

# ZIGOR BETEARAZPENAREN EREDUAREN ILDO ESTRATEGIKOAK NAFARROAN

2021ko Iraila

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

**0. SARRERA**

**1. ESKUMENAK TRANSFERITU BEHARRA**

**2. ZIGOR BETEARAZPENA, GIZARTERATZEKO ZERBITZU PUBLIKO GISA**

**3. EGUNGO EGOERAREN ANALISIA**

**4. EREDUAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**

**5. ILDO ESTRATEGIKOAK**

**6. ANTOLAKETA ADMINISTRATIBOA**

**7. ONDORIO NAGUSIAK**

# SARRERA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak ezartzen du Nafarroari dagokiola Estatuko espetxeei buruzko legeria betearaztea (58.1.a artikulua).

Bestalde, 2019-2023 legegintzaldirako Programa Akordioaren edukiak[1] aurreikusten du aztertu eginen dela Zigor Betearazpeneko Bulegoa sortzea Justizia Departamentuaren barnean, erdi-askatasuna edo baldintzapeko askatasuna duten pertsonak gizarteratzeko sarea koordinatzea, eta eskumenak hartzen joatea espetxeen funtzionamenduaren arloan eta epe ertain-luzeko tratamendurako programen diagnostikoari, sailkapenari, diseinuari eta betetzeari dagokienez.

Horregatik, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren ekimenez, "Nafarroan zigor betearazpenaren ereduaren ildo estrategikoak aztertu eta ezartzeko lantalde teknikoa" eratu zen, helburutzat hartuta Nafarroan zigor betearazpenaren eredu propio baten oinarriak ezarriko zituen dokumentu teknikoa batera prestatzea.

Lantalde hori 2020ko ekainaren 29an bildu zen lehenengo aldiz, eta aurrez aurreko bigarren bilkura bat izan zuen irailaren 21ean. Bilkura horietan ildo estrategikoak eta ekintza nagusiak garatu ziren, eta zirriborro batean jaso. Gero, osasun krisiak eragindako murrizketak areagotu egin ziren eta ordutik aurrera modu telematikoan egin zen lana. Hala, azaroan zehar bideodeiak egin ziren, eta haietan lantaldeko kideek jarraitu zuten dokumenturako proposamenak egiten. Horrenbestez dokumentua ia

[1] Koalizioko gobernua osatzeko Programa Akordioa, uztailaren 26an sinatua Nafarroako Parlamentuan.

amaituta zeukaten. Orduan, Salhaketa Nafarroa elkarteko koordinatzaileak, Libertad Francés Lecumberrik (lehenbiziko bi bilkuretan eta online lanean aritua) erabaki zuen lan prozesua bertan behera uztea eta amaierako dokumentua ez sinatzea. Lantaldeko gainerako kideek jarraitu zuten alderdi tekniko batzuk lantzen modu telematikoan. Dokumentua behin betiko bukatutzat eman zen 2021aren hasieran, eta lantaldeak modu telematikoan oniritzia eman zion, 2021eko otsailaren 12an egindako bilkuran.

Dokumentu honetan agertzen den eredua Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zen, 2021eko apirilaren 13an.

2021eko irailean, Hezkuntza Departamentuaren ekarpenak jaso eta horiek dokumentuan sartu ziren.

Taldekideek beren kabuz parte hartu zuten azterketan, arloko aditu gisa, eta ez nork bere elkartearen ordezkari gisa. Hona hemen lantaldearen azken osaera:

**Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua**

| | |
|---|---|
| **Eduardo Santos Itoiz** | Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria |
| **Rafael Sainz de Rozas Bedialauneta** | Justiziako zuzendari nagusia |

**Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua**

| | |
|---|---|
| **Sara Chivite Lasheras** | Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Arreta Komunitarioaren eta Osasun Mentaleko Zentroen Arloko Zerbitzuko burua |

## Espetxe arloa

| | |
|---|---|
| **Amador Ruiz Sanz** | Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Zerbitzuko burua |
| **Puerto Solar Calvo** | Espetxe Erakundeetako legelaria |
| **Virgilio Valero García** | Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiko Lurralde Koordinazioko eta Ingurune Irekiko zuzendari nagusi ohia |

## Arlo juridikoa

| | |
|---|---|
| **Patricia Moreno Arrarás** | Abokatua, Espetxe Zuzenbidean espezialista |

## Unibertsitate arloa

| | |
|---|---|
| **Maria Soledad Barber Burusco** | Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra |

## Espetxeko gizarte arloa (hirugarren sektorea)

| | |
|---|---|
| **Heraclio Varona Uriarte** | IRSE eta Bidesari elkarteak |
| **Jorge Ollero Perán** | Espetxe Erakundeetako legelaria, eszedentzian Andaluziako ENLACE federazioko eta Espetxe Inguruneko Gizarte Erakundeen Sareko kidea. |
| **Alfonso Arana Marquina** | Gizakia Helburu erakundeko koordinatzailea |

# 1. ESPETXE ARLOKO ESKUMEN OSOAK TRANSFERITU BEHARRA

Egungo gizarteek erronka konplexuei egin behar diete aurre. Erronka globalak izan arren, haiei egokiro heldu ahal izateko beharrezkoa da politikagintza berriz hurbiltzea herritarrengana. Lehendik ere krisi klimatikoak, migrazioek, aldaketa demografikoek eta ekoizpen ereduaren aldaketek markatzen zituzten ongizate-estatuen eraldatze-dinamikak, eta Covid-19 pandemiak azkartu egin ditu. Gizarte kohesionatuak, inklusiboak, partaidetzazkoak eta irekiak eraiki ahal izateko, politika berritzaileak taxutu behar dira, trantsizioan dagoen mundu honetara egokitzeko gauza direnak.

Zigor betearazpenaren arloko politikak ez daude testuinguru horretatik kanpo eta haiek ere birkonfiguratu beharra dute beren helburuak betetzen jarraitzeko. Nafarroako gizartearen askatasuna eta segurtasuna babesteak berekin dakar lanean aritzea delituei aurrea hartzeko eta, behin delitu bat egin ondoren, hura egin duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko. Nafarroako Foru Komunitateak zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetu du, bere politikak zuzenean kudeatuz osasunaren, hezkuntzaren eta eskubide sozialen alorretan. Era berean, zigor betearazpenaren politikak hobetzen ahal dira lurraldera gehiago hurbiltzen badira, esku hartzen duten zerbitzu publikoen koordinazio eta integrazio handiagoei bide emanez. Eraiki nahi den gizarte ereduaren araberakoa izanen da zigorrak betearazteko modua. Estatuari dagokio delituak eta zigorrak finkatzea; zigorrak betetzeko era, ordea, moldatu egin daiteke, betiere espetxe arloko legeriak eta Espainiako Konstituzioak

ezarritako esparruan, hots, betiere gizarteratzeari begira. Zigorrak betearazteko eskumenak egikaritzeak esan nahi du Nafarroak bitartekoak ezarriko dituela Nafarroak eraiki nahi duen gizarte ereduaren arabera bete daitezen zigorrak. Ildo estrategiko hauetan gizarte kohesioa oinarri duen ereduaren alde egiten da apustu, segurtasuna berdintasun handiagoaren eta politika sozialen bidez indartuko dela sinetsita, eta ez errepresioa areagotuz.

Lehen atal honetan, zigor betearazpenaren arloko eskumen osoen transferentziari ekiteko beharraren arrazoiak azalduko dira: lege arrazoiak, arrazoi historikoak eta sozialak.

## 1. Lege arrazoiak.

### *1.1. Espetxe betearazpeneko jarduera Espainiako eskumenen mapan*

Azpimarratu behar da zigor betearazpenaren kontzeptuak ez diola erreferentzia egiten jurisdikzio-boterea egikaritzeari, hori epaitegi eta auzitegiei soilik baitagokie; aitzitik, jarduera administratiboa da eta autonomia-erkidegoek ere egin dezakete, hala jasoa badute beren estatutuetan. Nafarroako Foru Komunitateaz gain, Kataluniak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Andaluziak beren estatutuetan jasorik daukate espetxe betearazpenaren arloko eskumena.

Eskumenen transferentzia eraginkorra Kataluniako Autonomia Erkidegoan baino ez da gauzatu, Espetxe Administrazioaren arloko Estatuaren zerbitzuak Kataluniako Generalitateari eskualdatzeko abenduaren 28ko 3482/1983 Errege Dekretuaren bidez. Errege dekretu horrek ezartzen du Estatuak eskumen esklusiboa duela espetxe arloko legeriaren gainean, eta autonomia-erkidegoak legeria hori betearazteko eskumenak dituela. Hain aspaldi eskumenak Kataluniari eskualdatu izanak

erkidego horri aukera eman dio bere kudeaketa ereduak garatzeko eta gizarteratze politika publikoen integrazio handiagoa lortzeko. Osasuna eta hezkuntza kudeatzen dituzten administrazioek elkarren artean koordinatzen dituzte osasun eta hezkuntza arloetako politikak. Era berean, Kataluniak espetxe arloko eskumenak jaso zituenean lankidetzarako mekanismoak ezarri ziren, Espetxe administrazioak koordinatzeko behin-behineko arauei buruzko ekainaren 20ko 1436/1984 Errege Dekretuaren bidez. Gero Konstituzio Auzitegiak araudi hori aztertu zuen ekainaren 8ko 104/1988 epaian, eta ebatzi zuen espetxe sistema bakar bat dagoela, zenbait administrazio publikok kudeatzen dutela, eta administrazio horiek behar adina toki izan behar dituztela bakoitzaren lurraldean sustraitutako pertsona zigortu guztiei harrera egiteko.

Gainerako autonomia-erkidegoek ez dute eskumenik jaso Estatuarengandik, nahiz eta esparru horretako zenbait jarduketa egiten dituzten. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoa espetxe jardueraren zenbait elementu bereganatzen joan da zati batez, hala nola espetxe osasuna (894/2011 Errege Dekretua, ekainaren 24koa) edo espetxearen ordezko zigor eta neurrien kudeaketa (horretarako kudeaketa-esleipena argitaratu zen Barne Ministerioko Zuzendaritza Tekniko Nagusiaren 2011ko irailaren 14ko Ebazpenean, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Hitzarmena). Bestalde, 2011n bertan hitzarmen bat sinatu zen presoen gizarteratze eta laneratze prozesu integralak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan[2]. Gainera, autonomia-erkidego horrek lanean jarraitzen du espetxe betearazpenaren arloko eskumen osoaren transferentziari begira, eta duela gutxi dokumentu batean bildu ditu bere espetxe ereduaren ideia orokorrak ("Euskadin espetxe eredu bat ezartzeko ildo estrategikoei

[2] https://www.boe.es/boe/dias/2011/11/07/pdfs/BOE-A-2011-17518.pdf

buruzko dokumentu teknikoa")[3]. Dokumentu horrek adierazten du zein liratekeen Euskal Autonomia Erkidegoko espetxe politikaren oinarrizko printzipioak eta helburu nagusiak. Apustu egiten da zigorra betetzeko erregimen irekia hedatzearen alde eta askatasuna kentzen ez duten neurriak sustatzearen alde, zigorra horrela betetzen denean gutxiago berrerortzen dela erakusten duten ikerketak aintzat hartuta.

Andaluziako Autonomia Erkidegoan, berriz, lanean ari dira osasun arloko transferentzian, eta zenbait gizarte entitatek eskumen osoak eskualdatzeko eskatu dute.

### *1.2. Espetxe betearazpenerako eskumenak Nafarroan.*

Sarreran adierazi den bezala, Foruaren Hobekuntzak ezartzen du Nafarroari dagokiola Estatuko legeria betearaztea espetxe gaietan (58.1.a artikulua). Artikulu hori ulertu behar da irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoak, Espetxeen Lege Orokorrak, 79. artikuluan dioenarekin loturik:

> *"Justizia Ministerioaren Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari dagozkio lege honetan arautzen diren espetxeen zuzendaritza, antolaketa eta ikuskaritza, beren estatutuetan espetxeei buruzko legeak eta espetxeen jardueraren kudeaketa hartu dituzten autonomia-erkidegoetan izan ezik."*

Estatuko legeriak berak aurreikusten du, beraz, politika penalaren eta espetxe betearazpenaren arteko bereizketa. Politika penala Estatuari dagokio, eta espetxeei buruzko legeriaren betearazpena eta espetxeen jardueraren kudeaketa, aldiz, autonomia-erkidegoek bereganatzen ahal dituzte beren estatutuetan.

[3] Euskadin espetxe eredu bat ezartzeko ildo estrategikoen proposamen teknikoa

Nafarroako Parlamentua eskumen-bereganatze horren alde agertu da: 2017ko irailaren 28an egindako osoko bilkuran onetsi zuen ebazpen batean, "adierazten du bere borondatea dela Nafarroak Foruaren Hobekuntzaren bidez esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan", eta Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu "Nafarroari espetxeen arloko eskumena transferitzearen auziari[4]" ekin diezaioten. Hau da, Nafarroako Parlamentuak adierazi du Nafarroak modu eraginkorrean egikaritu behar dituela beren izaera historikoagatik lehendik ere bereak dituen eskumenak (pixkanaka bertan behera utzi direnak), eta, bestetik, bete egin behar dela Foruaren Hobekuntzaren 58.1 artikuluan ezarritakoa eta osorik transferitu espetxe jardueraren kudeaketa. Parlamentuaren ebazpen horrek, gainera, administrazio eskudun guztiak premiatzen ditu beren eskumenak balia ditzaten hezkuntzaren, gizarte zerbitzuen, osasunaren, lanaren eta etxebizitzaren alorretan, halako moduan non gainbegiratze penalaren pean dauden pertsonek beren eskubide guztiak erabiltzen ahalko baitituzte gainerako herritarrek bezala. Adierazi beharra dago Salhaketa Nafarroa elkarteak egindako txosten bat Parlamentuan aurkeztutakoan eta haren ondorioz onetsi zela ebazpen hori. Hona txostenaren izenburua: "Nafarroako Gobernuak espetxe arloko eskumena bereganatzea. Bultzada baten beharra".

Zigor betearazpenaren arloko eskumen osoa eskualdatzea ezinbestekoa da egoki koordinatu ahal izateko jadanik Nafarroatik kudeatzen diren eskumen sektorialak: espetxe gaiek utzi egin behar diote osasun, hezkuntza eta gizarte arloetako gainerako politiketatik bereizitako eremua izateari. Espetxe arloko eskumen osoak transferituz gero, koherentzia eta batasuna emanen litzaieke pertsona zigortuak gizarteratzera bideratutako esku-hartze guztiei, izan ere gizarteratzea

[4] 2017ko urriaren 5eko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofiziala, 122. zenbakia.

baita espetxe betearazpenaren arloko politika guztien funtsezko helburua. Espetxe arloko eskumenen eskualdatze hori gauzatu bitartean, Nafarroako Gobernuak erabat bermatu behar ditu bere lurraldean bizi edo bertan sustraiak izan eta gainbegiratze penalaren pean dauden pertsonen eskubideak. Horretarako bete-betean baliatu behar ditu lehendik badituen eskumenak edo eskuratzear dituenak.

Lehenik, adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu behar duela Espetxe Osasuna, gehiago luzatu gabe, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea betetzeko, hauxe ezartzen baitu seigarren xedapen gehigarrian: "*Espetxe Erakundeen menpeko osasun zerbitzuak autonomia-erkidegoei transferituko zaizkie*". Betebehar hori duela 15 urte baino gehiago bete behar zatekeen, eta azterlan hau idatzi den garaian gauzatzeko zorian zegoen. Espetxe Osasunaren eskualdatze hori gehituko litzaieke Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zigor betearazpeneko sistemarekin koordinaturik gaur egun egiten dituen jarduketei, zeinak, funtsean, osasun mentalekoak, droga-mendekotasunaren arlokoak eta ospitaleko nahiz ospitaletik kanpoko arreta espezializatukoak baitira. Alegia, Espetxe Osasuna eskualdatu aurretik ere Nafarroako Gobernua saiatzen da Iruñeko Espetxean dauden pertsonen osasun premiak asetzen, langileen atxikipena dela medio. Hala ere, arreta hori areagotu egin behar litzateke.

Presoen egoera hobetzeko borondate politikoa, zeinak oinarri baititu eskumen historikoak, jada transferitutako eskumenak eta berdintasun materialaren konstituzio-printzipioa (Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua), gogotsuago egikaritu behar da, eta ez osasun esparruan bakarrik, baizik eta hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan ere bai. Une hauetan, Nafarroan presoentzako osasun, hezkuntza eta gizarte arreta ez da oraindik kanpoan dagoenaren parekoa. Azterlan

honetan hainbat aldiz errepikatuko denez, eskumen osoa eskualdatu arte itxaron beharrik izan gabe konpontzen ahal da auzi hau, eta horretarako beharrezkoa da Nafarroako Gobernuko zenbait departamentu elkarrekin koordinatzea, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak bultzaturik.

Ildo beretik, hezkuntza zerbitzuak jada transferituta daude honako dekretu hauen indarrez: uztailaren 9ko 1203/1999 Errege Dekretua –horren aplikazioak autonomia-erkidego guztiei eragiten die–, eta 1476/2000 Errege Dekretua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzkoa. Eskumen hori eduki arren, ez da bere osoan garatu, eta badira gabeziak, espetxean hezkuntzarako eskubidea kanpoko baldintza berdinetan erabiltzea eragozten dutenak. Izan ere, azterlan hau idazterakoan, espetxean ez dago oraindik eskura Nafarroako hezkuntza sistemako prestakuntza-eskaintza osoa. Egoera hori okerragotu egin da Covid-19 gaitzak eragindako osasun krisiaren ondorioz. Espetxeetan ezarri diren murrizketek prestakuntza- eta tratamendu-jardueretarako sarbidea oztopatu dute.

Gizarte zerbitzuei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak gizarte zerbitzuetarako eskubide unibertsala aitortzen du, eta Nafarroan bizi diren pertsona guztiengana hedatzen. Askatasunaz gabetutako pertsonek, nahiz eta ohiko bizilekua komunitate honetako udalerrietatik kanpo izan, bermatuta eduki behar dute lege horrek eskaintzen dituen gizarte zerbitzuak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko eskubidea. Espetxean zein Gizarteratze Zentroan gizarte langile gutxiegi egoteak, ordea, eragotzi egiten du gainerako biztanleek jasotzen dutenaren pareko arreta ematea, eta gizarte zerbitzuekin koordinatzeko zailtasunak daude. Eskumen historikoetan oinarrituta, Nafarroako Gobernuak (bere baliabideak erabiliz edo Iruñeko Udalarekin

hitzarmenak eginez) gizarte zerbitzuetako langileak atxiki behar lizkioke Espetxeari, osasun eta hezkuntza arloetan egiten duen bezala.

Ondorio gisa, bi ohar egin daitezke. Batetik, Nafarroako Gobernuak, departamentu egokien bitartez eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak koordinaturik, osasun, hezkuntza eta gizarte baliabide gehiagoz hornitu behar ditu Iruñeko Espetxea eta Gizarteratze Zentroa, bai eta Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Zerbitzua ere, gainbegiratze penalaren pean dauden biztanleen eskubide-berdintasuna bermatzeko. Bai egungo eskumenak bai eskumen historikoak gogotsuago erabili behar dira. Bestalde, nabarmendu behar da, Nafarroan espetxeratutako biztanleei dagokienez, hezkuntza, gizarte eta osasun eskumen horien egikaritze osoari erantsi behar zaiola zigor betearazpenaren arloko eskumen osoaren transferentzia, Foruaren Hobekuntzaren 58.1 artikuluan dagoen aginduaren arabera. Horrela bakarrik egon litezke gainerako foru politikekin uztarturik pertsona zigortuak gizarteratzeari buruzko erabakiak, izan ere gizarteratze hori bailitzateke Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren helburua.

## 2. Arrazoi historikoak.

Historian zehar foru erakundeek modu aktiboan parte hartu izan dute Iruñeko Espetxeko espetxe-zerbitzuetako batzuen kudeaketan eta mantentzean[5].

Estatuak espetxe guztiak bateratzeko prozesuari ekin zion XX. mendearen hasieran, udalen eta probintzia-diputazioen eskuetan baitzegoen espetxeen kudeaketa, eta orduan Nafarroako Diputazioak

[5] Atal honetan oinarritzat hartu da Salhaketa Nafarroa elkarteak egindako txosten hau: "Nafarroako Foru Komunitateak espetxe arloko eskumenak bereganatzea. Bultzada baten beharra".

gogotik defendatu zituen baliatzen zituen eskumenak. Hala, 1922ko abenduaren 19ko erabaki baten bitartez Estatuari erreklamatu zion "espetxe zerbitzuez arduratzen jarraitzea eta halaber gure espetxeen jabetzari eustea". Eskaerari baiezkoa eman zion 1923ko martxoaren 21eko Ministro Aginduak, eta, horrenbestez, Iruñeko espetxearen jabetza eta kudeaketa Nafarroako Diputazioaren eskuetan geratu ziren. Eskumenek une hartan izan zuten oraintsuko jatorri historikoa, eta gutxi-asko XX. mende osoan zehar erabili ziren. Hala, 1989ko ekainaren 14an Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko akordio bat sinatu zen, Foru Administrazioak Iruñeko Espetxeari zegokionez artean ere garatzen zituen prestazioak eta zerbitzuak antolatzeko. Akordioaren testuak berariaz jasotzen du ezen, kontuan harturik Nafarroari dagokiola espetxe arloko legeria betearaztea, eta transferentzia egiteko dagoenez, beharrezkoa dela "*aldi baterako eta behin-behineko akordio bat egitea harik eta aipatu inguruabarra gertatu arte*". Beraz, behin-behineko akordioa egin zen, Foruaren Hobekuntzak ezartzen zuen transferentzia osoaren zain. Nafarroako Administrazioak bere gain hartu zituen betebeharren artean nabarmentzen dira langile gastuen zati bat ordaintzea, Espetxean konponketak eta inbertsioak egitea, eta "*gizarte zerbitzuak eta presoen bizi baldintzak hobetzeko zerbitzuak ematea*". Prestazio hori bi administrazioek finantzatu behar zuten erdi bana, eta arlo hauek hartzen zituen, besteak beste:

> *"1. Lehen mailako, bigarren mailako, unibertsitateko eta lanbide heziketako hezkuntza eta kultur prestakuntza, urrutiko hezkuntzako tekniken bitartez edota, hala badagokio, aurrez aurreko irakaskuntzaren bitartez.*
>
> *2. Lanerako prestakuntzako tailerrak sortzea.*
>
> *3. Kirol, kultur, gorputz eta aisia jardueren programak ezartzea.*

*4. Hirugarren graduko presoentzako unean uneko enplegu programetan lanak garatzeko lankidetza.*

*5. Presoen familientzako laguntza ekonomikoa.*

*6. Preso ohiak gizarteratzea".*

Lehen atala, prestakuntzari buruzkoa, aski garatu da, gorago aipatu den hezkuntza-eskumenen eskualdatzea dela bide. Aurreikusitako gainerako esku-hartzeak gaur egun hutsalak dira, nahiz eta hitzarmena formalki indarrean egon, isilbidez luzatuko dela ezartzen baita haren laugarren klausulan. Nafarroako Gobernuak helburu horietarako jarri izan duen aurrekontu-zuzkidura gainbehera etorri da ia-ia desagertu arte. 2006. urtean 500.000 euro jarri ziren espetxea mantentzeko, eta gaur egun ez dago helburu horretarako aurrekontu-partidarik.

Azkenik, azpimarratu behar da Nafarroako Administrazioak zeharbidez ere esku hartzen duela zigor betearazpeneko politikan, dirulaguntzak emanez presoekin eta preso ohiekin lan egiten duten gizarte entitateei.

Ondorio gisa, nahiz eta Foru Administrazioak espetxe jardueran parte hartzen jarraitu, parte-hartze hori ez da nahikoa, jada esan den bezala. Eskumen historikoek Nafarroako Gobernuari aukera eman eta betebeharra ezartzen diote gogotsuago jarduteko presoen bizi baldintzen hobekuntzan. Horregatik, bete-betean erabili behar dira, berariazko aurrekontu-partidak jarriz presoak gizarteratzeko, eta osasuneko, hezkuntzako eta gizarte zerbitzuetako langile gehiago esleituz Nafarroako espetxe sistemari.

## 3. Arrazoi sozialak.

Orain arte azaldutakoaren arabera, zigor betearazpenaren arloko eskumenak jasotzearen aldeko oinarri juridiko nagusiak dira Foruaren Hobekuntzaren 58.1 artikulua, batetik, eta indarrean dirauten eskumen historikoak, bestetik; azken horien erakusgarri da Nafarroako erakundeek espetxeetako hainbat afera kudeatu izana. Espetxe aferen kudeaketa hori bere osoan egikaritzeak bide emanen luke egokiro koordinatu ahal izateko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen arloetako politikak, zeinak jada eskumenekoak baitira. Izan ere, oraingo egoerak ondorio sozial kaltegarriak ditu, antolamendu zatikatuak zaildu egiten baitu zigor betearazpeneko politika integratu bat garatzea, gizarte baketsu, inklusibo eta kohesionatua eraikitzera bideratua.

"*Garapen iraunkorrerako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiei justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkor, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan*". Horrela dio Garapen Jasangarriko Helburuetako 16. helburuak, 2030 Agenda deritzonaren barnean. Helburuok erakunde guztientzako esparru politiko komuna osatzen dute, eta abiapuntutzat har daitezke garai global honetan ditugun erronkei heltzeko. 16. helburu horrek helmugatzat jartzen du indarkeria mota guztiak gutxitzea (16.1) edo zuzenbide estatua eta justiziaz baliatzeko aukera sustatzea, besteak beste. Nafarroako politika publikoak 2030 Agenda horrekin lerrokatzeak barnean hartu behar du zigor betearazpenaren arloko eskumenak baliatzea gizarte baketsu eta inklusiboa lortzeko[6].

Beste alde batetik, Justizia Ministerioak bultzatutako 2030 Justizia Plana ere bat dator hemen garatzen diren ildo estrategikoekin, bereziki justizia errestauratiboa bultzatzeari eta biktimentzako babesa indartzeari dagokienez. Prozedura Kriminalaren Lege aurreproiektu berriak (2020ko

[6] https://gih-2030agenda.navarra.es/pages/16-helburua-konparaketa

azaroaren 24an onetsia) egokitasun arautuaren printzipioaren hedapena eta justizia errestauratiboaren erregulazio prozesala jasotzen ditu, Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen CM/ReGrc (2018) Gomendioaren ildotik. Beraz, Nafarroan egitekoak diren jarduketak ederki koordinatzen dira Estatuan eta Europan xedatutakoarekin.

Nafarroako gizartea gizarte kohesioduna da, bake eta segurtasun maila handiak dituena. Pobreziaren edo gizarte bazterkeriaren arriskua neurtzen duen AROPE tasa Espainiako batez bestekoa baino nabarmen beherago dago: 2018ko tasa % 12,6 izan da Nafarroan eta % 26,1 Estatuan[7]. Kriminalitate tasa ere Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa da: EINen arabera, Nafarroan 42,2 delitu mila biztanleko, eta Espainiako gainerakoan 45,6. Halaber, espetxeratze mailak nahiko apalak dira: 2019ko abenduaren 31n 307 preso zeuden Iruñeko Espetxean (277 gizon eta 30 emakume). Espetxeratze tasa ez da, izatez, Nafarroan gara litezkeen zigor betearazpeneko politikek nagusiki erabakiko duten adierazle bat; aitzitik, hura erabakitzen duena politika penala da oro har, alegia, delituak eta zigorren iraupena ezartzen dituen zigor legeria, batetik, eta gizarteko gatazkak erregulatzen laguntzen duten askotariko sistemen arteko loturak eta lehentasunak, bestetik. Politika penalaren eta gizarte politiken arteko elkarrekintza motaren mende egonen da gatazken kriminalizazioa handiagoa edo txikiagoa izatea. Beraz, badago nolabait eragiterik espetxeratze tasa horren gainean, prebentziorako eta barne batasunerako ekintzak direla medio; horrelakoak proposatzen dira eredu honetan, bereziki 2. ildo estrategikoan. Eredu honen hautu politikoa da gizarte politikak areagotuz delituak gutxitzen laguntzea, halako moldez non zigorrak ezartzeko beharra txikiagoa izanen baita. Gizarte kohesionatuago eta baketsuago batean, zeinean ez baitago biztanle

[7] Pobreziaren egoerari buruzko txostena. Espainiako pobreziari eta gizarte bazterketari buruzko arrisku-adierazlearen jarraipena, 2019. EAPN.

talde bazterturik eta indarkeriari uko egiten baitzaio bizikidetzaren erregulaziorako metodo gisa, delitu gutxiago eginen dira eta zigor gutxiago ezarriko.

Beste alde batetik, lekualdatzeei eta zigorra betetzeko zentroaren esleipenari buruzko politikak ere badu eragina espetxe tasan, eta espetxe arloko eskumenak dituzten administrazioen artean koordinatu behar da. Horren haritik, Nafarroako espetxe biztanleriaren mapa fidagarriagoa osatu ahal izateko, kontuan hartu behar lirateke sustraiak Nafarroan izan eta zigorra Espainiako Estatuko beste espetxe batzuetan betetzen ari diren preso guztiak. 2020ko otsailean egindako galdera parlamentario bati Gobernuak emandako erantzunaren arabera, Foru Komunitatetik kanpo zigorra betetzen ari diren preso nafarrak 184 dira. Horrenbestez 491 dira Nafarroarekin lotura duten presoak, guztira. Baliteke kopurua are handiagoa izatea, presoen portzentaje handi baten bizilekua edo errotuta dauden lekua ez baitago jasorik datu ofizialetan. Nolanahi ere, behin-behinean 184 pertsona horiek kontuan hartuz gero, espetxeratze tasa litzateke 75 preso 100.000 biztanleko, Estatuko gainerakoan dagoen 130eko tasa baino askoz apalagoa.

| Adierazlea | Espainia | Nafarroa |
|---|---|---|
| AROPE tasa | 26,1 | 12,6 |
| Kriminalitate tasa | 45,6 | 42,2 |
| Espetxeratze tasa | 130 | 75 |

Abiapuntu hori ona izan arren, Nafarroan oraindik ere badira bazterketa maila handiko pertsona taldeak, pobrezia ekonomikotik ezin irtenda bizi ez ezik, osasun eta hezkuntza arazo pilatuak eta gizarte loturen gabezia ere pairatzen dituztenak. Presoak eta preso ohiak arazo gehien izaten dituzten kolektiboetakoak dira, eta haiekin beharrezkoagoa da

esku-hartze koordinatu eta integralak antolatzea, maiz bizkarra ematen dien gizarte horretan txertatzeko aukera izan dezaten. Haien gizarte bazterkeriazko egoeraren eta jokabide kriminalen arteko lotura dela eta, gizarte-, osasun-, etxebizitza- eta hezkuntza-politiken bitartez haiek gizarteratzen ahalegintzea da gizarte baketsuago eta seguruagoa lortzeko modurik bidezkoen eta eraginkorrena. Zigor betearazpenaren arloko eskumen orokorra jasotzea ezinbesteko urratsa da kolektibo hori benetan bildu ahal izateko gizarteratze politika publikoetara.

Azpimarratu behar da zigor betearazpenaren alderdi partzial batzuen gaineko eskumena hartzea –osasunari, hezkuntzari eta gizarte zerbitzuei dagokiena–, beharrezkoa izanda ere, eraginik gabekoa dela ez bazaio gehitzen zigor betearazpenaren arloko eskumen osoa. Apustu egin behar da eredu integral bat ezartzearen alde, erregimenari buruzko erabakiak eta espetxe sailkapenari buruzkoak bere gain hartuko dituena, bestela akatsak gerta litezkeelako gizarteratze prozesuetan.

Eskumenen transferentzia osoak inbertsio ekonomikoa eskatuko luke hasieran, baina diru aurrezpenak ekarriko lituzke epe ertainera, zerbitzuen bikoiztasunak amaituko liratekeelako. Bi osasun eta gizarte sistema paralelo, espetxeetakoa eta orokorra, izateari utziko litzaioke, eta espetxeetako zerbitzuak sare orokorrera batuko lirateke. Komunitatean sendo oinarrituta dagoen eta gizarteratzeko egiazko gaitasuna duen espetxe eredu horren aldeko apustuak inbertsioaren zati handi bat itzuliko lioke gizarteari, eta egokia litzateke itzulketa horren zenbatekoa kalkulatzea berariazko azterketen bitartez[8]. A priori, esan daiteke proposatzen den bezalako zigor betearazpenaren ereduak kostuak murriztu eginen lituzkeela, ingurune irekiari eta askatasunaz gabetzen ez

[8] Inbertsioaren Itzulketa Sozialaren analisia, politika publikoek gizartean eta ingurumenean sortzen dituzten kostuak eta onurak kalkulatzea helburu duena, zigor betearazpeneko politiken arloan ere ebaluatu liteke, Gizarte Errealitatearen Behatokiarekiko elkarlanaren bidez, esate baterako.

duten neurri komunitarioei esker. Izan ere, betetze modu horiek merkeagoak eta eraginkorragoak dira, eta gutxiago murrizten dituzte pertsonen eskubideak. Gainera, gizarteratzea areagotuz gero, gutxitu eginen lirateke delituak eta horiek pertsegitu eta epaitu beharraren ondoriozko kostuak. Garrantzitsuagoa da, ordea, gutxitu eginen liratekeela biktimizazioak eta horiek dakartzaten oinaze guztiak.

Azaldu diren arrazoi legezko, historiko, sozial eta ekonomikoak tarteko, agerikoak dira zigor betearazpenaren arloko eskumen osoen transferentziarantz politikoki aurrera egitearen garrantzia eta beharra, gizarteratzera argi eta garbi bideratutako Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzu bat eraiki ahal izateko.

# 2. ZIGOR BETEARAZPENA, GIZARTERATZEKO ZERBITZU PUBLIKO GISA

Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren eginkizuna litzateke epaitegi eta auzitegiek ezarritako zigorrak legeria indardunaren arabera betearazteko jarduera materialez eta kudeaketa-jarduerez arduratzea. Ez luke barnean hartuko, noski, jurisdikzio-ahala egikaritzea, hori epaitegi eta auzitegiek soilik egin baitezakete, Konstituzioaren 117.3 artikuluaren arabera; haien eskumena da epaitzea eta epaia betearaztea. Epaia betearazi ahal izateko bitarteko material eta administratibo batzuk behar dira, eta horien antolaketa legokioke Nafarroako Gobernuari, behin eskumenaren transferentzia burututakoan. "Zigor betearazpena" terminoa hobesten da "espetxe betearazpena" terminoaren aldean, badirelako ordenamendu penalean espetxeaz gain beste bide batzuk ere delituei erantzuteko. Askatasuna kentzen ez duten zigor eta neurriei (gizartearentzako lanak, kondena-etendurak...) "ordezkoak" deitzeari utzi behar zaio, horrek iradokitzen baitu espetxea dela zigor nagusia. *Ultima ratio* edo esku-hartze txikienaren printzipioak, beherago azalduko den bezala, zigortuei kalte gutxiago eraginda zigorraren helburuak betearazten ahal dituzten baliabideak lehenesten ditu. Ildo beretik, beherago adieraziko da nola zigor arloko justiziari lotuta ez dauden gizarte politikak gizartean gertatzen diren gatazkei heltzeko bide hobeak diren, eta, horregatik, lehentasunez sustatu behar diren. Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak ikuspegi neurritsua izan behar du, punitibismorik gabeko etorkizunerantz jo behar dela jabeturik, eta zigor neurriak gutxitzeko lanean jarri behar ditu gizarte politikak.

Zerbitzu horrek bultzatu behar luke zigorrak beren xede konstituzionalarekin bat datorren moduan betetzera. Horregatik,

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluko gizarteratze-agindua lehentasunez betetzera bideratutako zerbitzu publiko gisa eratuko litzateke. Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluak ezartzen duenez, zigorrek eta segurtasun neurriek berriz heztea eta gizartean berriz sartzea dute helburu. Konstituzioak, beraz, botere publikoei agintzen die gizarteratzea har dezatela helburu zigorrak betearazterakoan. Gainera, itzal handiko egile batzuen esanetan, 25.2 artikulua "konstituzio-printzipio bat da zeinetik oinarrizko eskubideak eratortzen baitira zigortuarentzat", alegia, badagoela gizarteratzeko eskubidea, gizarteratzea baita zigorraren eduki nagusia[9]. Era berean, Europako Espetxe Arauek honako hau diote beren printzipioen azalpenean: "*Atxiloketa oro halako moduan eginen da non askatasunaz gabetutako pertsona gizarte librean berriz sartzea erraztuko baitu*" (6. artikulua).

Izan ere, zigorrek (ez bakarrik espetxe zigorrak), eskubide-gabetzeak diren aldetik, beldurtzea edo arauaren indarra berrestea dute helburu. Zigorrekin mehatxatuz eta zigorrak ezarriz lortu nahi dira helburu horiek, eta fase horietan jarduten dute edo hartzen dute protagonismoa helburuok. Behin zigor askatasun-gabetzaileen betearazpenera iritsita, ordea, betearazpen hori askatasunaz gabetutako pertsonari tresnak eskaintzea besterik ezin da izan, espetxetik irteten denean aske eta deliturik egin gabe moldatu ahal izan dadin. Espetxe zigorrak ezin du beste edukirik izan. Bestela, ankerrak edota apalesgarriak izateagatik debekaturik dauden zigorrak ezartzeko arriskua legoke (Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluaren aurka dauden zigorrak).

Zigor sistemak gizarte seguruagoa eraikitzen lagundu behar du, arauen baliozkotasuna sendotuz eta haiek ez betetzeko gogoa kenduz.

[9] José Cid Moliné. Derecho a la reinserción social. Consideraciones a propósito de la reciente jurisprudencia constitucional en materia de permisos. Jueces para la democracia, ISSN 1133-0627, 32. zk., 1998, 36.-49. or.

Aldi berean, gizarteak bere burua egokiro babestuta ikustea eta delituen biktimei erreparazioa ematea lortu behar da. Zigortutako pertsonak gizarteratzeak esan nahi du lan egin behar dela delituak egin dituzten pertsonek ez dezaten delitu gehiago egin aurrerantzean. Beraz, helburu horrek bat egiten du prebentzioaren eta segurtasuna hobetzearen helburuekin. Adierazi behar da, berriz ere, delituak eragoztea ez dela zigor zuzenbidearen ardura soilik, gizarte osoak partekatzen duen ardura baizik. Era berean, biktimen babesa eta erreparazioa sustatzen ahal dira erreparazio eta akonpainamendu prozesuen bitartez, ikuspegi errestauratibo zabal batekin, zeina ez baita nahitaez lotu behar zigor prozesuarekin. Herritarren segurtasunaren arloko politikarik onena gizarte kohesioan oinarritutakoa da, eta hala ulertzen du zigor betearazpenaren eredu honek.

Gizarte inklusioaren eta gizarteratzearen arteko lotura ere espetxe legerian zehaztuta dago. Espetxe tratamendua, Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 59. artikuluaren arabera, berriz heztea eta gizarteratzea xede dituzten jardueren multzoa da. Tratamendu horren bidez, zigortutako pertsonak lege penala errespetatuz bizitzeko gai izan daitezen lortu behar da, eta lagundu egin behar zaie beren beharrizanak asetzen. Horretarako, delituen azpian dauden kausei heldu behar zaie, eta berrerortzea gutxitzeko eraginkorrenak direla erakutsi duten ekintzak abiarazi behar dira. Ildo horretan, presoek gabezia handiak izaten dituzte eremu sozialean, "Egoeraren azterketa" atalean azalduko den bezala. Beraz, premia horiei erantzutea delituei aurrea hartzen laguntzen duen legezko eginbeharra da, eta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen arloetako politikekin egokiro koordinatuz gauzatu behar da.

Aintzat hartu behar da Nafarroan bizi diren pertsona guztiek dutela gizarte inklusiorako eskubidea (Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen

arabera), eta, ildo horretan, ulertu behar da gainbegiratze penalaren pean dauden pertsonen gizarteratzeko eskubidea loturik dagoela inklusiorako eskubide hori erabateko berdintasunean egikaritzearekin.

# 3. EGUNGO EGOERAREN ANALISIA

Abiapuntua ongi ezagutzeko, behean aurkezten dira Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Zerbitzuari (SGPMA), Gizarteratze Zentroari eta Espetxeari buruz dauden datuak. Zigor betearazpeneko sistema bakarra da, eta bertan maiz gertatzen da pertsonak hiru eremu horietan ibiltzea aldi berean edo hurrenez hurren. Hala ere, kontzeptuen bereizketa hau eskaini beharra dago, antzeman ahal izateko nolakoa den haietako bakoitzaren egoera eta zein baliabide diren indartu beharrekoak. Ildo estrategikoen proposamenean zigor betearazpeneko eremu horietako bakoitzari izen desberdina emanen zaio. Egungo egoeraren azterketa hau osatzeko, atal honen azkenean Nafarroako presoen eta preso ohien ezaugarriei buruzko datuak eskainiko dira.

## A) Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Nafarroako Zerbitzua

Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Nafarroako Zerbitzua (SGPMA) Iruñeko Espetxearen mendean dago, eta espetxeratzearen ordezko zigor eta neurri guztien kudeaketaz eta jarraipenaz arduratzen da. Ekainaren 17ko 840/2011 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik, zerbitzu horrek ez du eskumenik segurtasun neurriak betearazteko.

2019an, guztira, 2.240 zigor eta neurri betearazi zituen, honela banatuak[10]:

- Baldintzapeko etendurak: 738 betearazpen-agindu.

[10] Atal honetako datu guztiak Nafarroako SGPMAren memoriatik atera dira.

- Ordezko neurriak: 1.
- Segurtasun neurriak (2011ko uztailaren aurretikoak): 4.
- Gizartearentzako lanak: 1.497.

Zigortuen % 89 gizonezkoak izan ziren eta % 11 emakumeak. Atzerritarrak % 21 izan ziren.

Delitu motei dagokienez, % 34 genero-indarkeriaren delituak izan ziren eta % 27,6 bide-segurtasunaren aurkako delituak. Bi mota horietako delituek eragin zituzten Zerbitzuak kudeatutako espedienteen % 61,6.

Kudeatutako neurri gehienak etendurak eta gizartearentzako lanak dira, eta horiekin batera programak, lantegiak edota onura publikoko jarduerak egiten dira batzuetan. Administrazio eskudunetako, SGPMAko eta gizarte entitateetako langileek ematen dituzte programak eta lantegiak. 2019an, honako dokumentu hauek egin ziren:

- Soziosanitarioa (droga-mendekotasuna, osasun mentala eta adimen-desgaitasuna): 408.
- Sexu-erasoen kontrola: 9.
- Genero indarkeriagatiko erasotzaileak: 289
- Etxeko indarkeriari buruzko programa: 6.
- Bide-segurtasuneko programak eta lantegiak: 75.
- Sentsibilizatzea eta trebetasun sozialetan berreztea: 3.

SGPMAk arlo anitzeko lantaldea dauka, honela osatua:

- Zerbitzuko burua, Iruñeko Espetxeko Zuzendaritzaren menpekoa.
- Administrari laguntzaileak (4).

- Gizarte langileak (2). Gizarteratze Zentroaz ere arduratzen dira (erregimen irekia eta baldintzapeko askatasuna).
- Psikologoa.

## B) Gizarteratze Zentroa

Gizarteratze Zentroa Iruñeko Espetxearen menpekoa da. Erregimen erdi-askea duten pertsonentzako 100 toki ditu, eta baldintzapeko askatasuna duten pertsonen jarraipenaz ere arduratzen da. Zentro zabal eta modernoa da, 2012an eraikia, Espetxe berriarekin batera. Instalazio ederrak ditu, baina ez dira erabiltzen. Baditu liburutegia, gimnasioa, erabilera anitzeko lantegi okupazionala, eta lanerako prestakuntza jardueretako monitore eta hezitzaileen lanerako eta bileretarako gela bat.

Espetxe legeriaren arabera, gizarteratze zentroen jarduerak "funtsezko helburua izanen du espetxeratuen gizarteratze positiborako gaitasunak indartzea, gizarte ingurunerako itzulketa erraztuko dieten tratamendu programak eta jarduerak garatuz" (Espetxe Erregelamenduaren 163.2 artikulua). Iruñeko kasuan, ordea, langile gutxi izateak eragotzi egiten ditu gizarteratzeko lagun-egite prozesuak, eta izatez ez dago egiazko gizarteratze zentrorik, sekzio ireki bat baizik, tratamendurako jarduera zehatzik gabekoa. Horren arrazoia da, besteak beste, Gizarteratze Zentroak ez duela lanpostu zerrenda propiorik, aitzitik, Espetxeak eta Gizarteratze Zentroak oraindik ere baterako lanpostu zerrenda dute, instalazio berriak eraiki aurretik izan zuten bera. Horregatik, Gizarteratze Zentroak langile hauek baino ez ditu: Espetxearekin partekatzen dituen barnealdeko zaintzaileak, eta SGPMAz ere arduratzen diren bi gizarte langile. Bestela izaten da erabat garatutako gizarteratze zentroetan. Esaterako, 150 toki dituen Granadako zentroak 72 lanpostu

ditu guztira: GZko 3 legelari, GZko 4 psikologo, GZko 6 koordinatzaile (presoei espetxetik kanpo laguntzen diete eta jarraipena egiten diete), GZko 3 hezitzaile (82.1 edo 100.2 artikuluko presoentzako tratamendu programak egiten dituzte espetxe barnean) eta 2 erizain, bulegari eta zaintzaileez gain. Zigor betearazpenaren arloko eskumenaren transferentzia gizarteratze zentro oso baten egiazko lanpostu zerrenda batean oinarritu behar litzateke. Adierazi beharra dago, gainera, lanpostu zerrenda horretan funtzionarioak baino ez direla sartzen; beraz, gizarte laneko eginkizunak eta beste batzuk dituzten lan-kontratudunak gehitu behar lirateke.

Gizarteratze zentro bat bere lanpostu zerrenda eta guzti sortzea aurrerapausoa litzateke, eta ahalbidetuko luke pertsona gehiagok edukitzea erregimen erdi-askea, hala hirugarren graduan nola Espetxe Erregelamenduaren 100.2 artikuluko erregimenean. 2020ko urrian 44 pertsona zeuden erregimen irekian: 41 gizon eta 3 emakume. Beraz, zentroak hartzen ahal dituenak baino askoz gutxiago. Arlo anitzeko lantalde tekniko bat edukiz gero, 150 pertsona baino gehiago egon litezke erregimen irekian, eta horixe da 3. ildo estrategikoan egiten den proposamena.

Azken urteetako eboluzioari erreparatzen badiogu, Gizarteratze Zentroaren edukiera sekula ez da osorik erabili, alderantziz baino: gero eta gutxiago erabili izan da. 2015ean pertsona gehiago zeuden erregimen irekian[11]: zehazki, baziren 55, haietatik 46 gizonezkoak eta 9 emakumezkoak. Nolanahi ere, kopuru horiek oso urrun daude gizarteratze zentro garatu batek izan lezakeen edukieratik: 100 lagunentzako lekua izanen luke, gaua zentroan emanda eta laneko, familiako edo gizarteko eginbeharretarako kaleratuta; ez hori bakarrik, gainera gauza izanen

[11] Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren 2016ko Memoria.

litzateke jarraipena egiteko kontrol telematikoa duten pertsonei eta espetxeaz kanpoko baliabideetan edo komunitate terapeutikoetan sartutakoei. Horretarako beharrezkoa litzateke Gizarteratze Zentroa ez ezik Gizarteratze Sarea ere indartzea. Gizarteratze sarearen kontzeptua ildo estrategikoen proposamenen atalean erabiliko da, eta esan nahi du erdi-askatasunaren eremu horretan sartu behar direla zenbait gizarte entitate ere, presoei ahalbidetzen dietenak kondena kanpo-inguruneetan betetzea, esaterako komunitate terapeutikoetan, Espetxe Erregelamenduaren 182. artikulua aplikatuta, edo tutoretzapeko etxebizitzetan. Sare hori malgua da. Izan ere, bigarren graduan sailkatutako pertsonek ere erabiltzen dute, bai 100.2 artikulukoek bai bigarren gradu arruntekoek, baimenarekin espetxetik irteten direnean edo kanpoko tratamendu-programetara joaten direnean. Eskura dauden datuen arabera, kanpoko 20 entitate laguntzaile baino gehiago ari dira Espetxean eta Gizarteratze Zentroan, eta gehitu behar zaizkie SGPMArekin lankidetzan ari direnak. Beraz, oso garrantzitsua da entitate horiek pertsona zigortuak gizarteratzeko egiten duten lana aitortu eta indartzea.

Sare horrek baldintzapeko askatasunean dauden pertsonekin eta laguntza eskatzen duten preso ohiekin ere lan eginen luke. Baldintzapean aske dauden pertsonak, berriz, 74 ziren 2020an (66 gizon eta 8 emakume), 2018an jarraipenpean zeuden 182 pertsonak baino askoz gutxiago[12]. Beherakada hori, ziur aski, 2015eko azken erreforma penalak eragin du, baldintzapeko askatasunaren izaera aldatu baitu, astunago bihurtuz zigortuentzat.

## C) Espetxea

[12] Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren 2019ko Memoria.

Nafarroako Espetxea 2012an eraiki zuten. 70.707 m2-ko azalera eraikia du, 4 solairu, 504 gela eta 120 gela osagarri. Espetxeak 10 modulu ditu: 72 gelako 4 modulu eta 36 gelako 6 modulu. Honako hauek ere baditu: komunikazioen modulua, non 26 mintzatoki jarri baitira abokatuentzat, epaileentzat eta elkarrizketa pribatuetarako, 12 gela ahaideen bisitetarako eta 12 gela bisita intimoetarako; sukaldea eta arropa-garbitegia espetxe osorako; kirol eta kultur modulua, barnean hartzen dituena gimnasioa, kiroldegi estalia, aldagelak, pilotalekua, liburutegia, ikus-entzunezkoen gela, ikasgelak, bulegoak eta erabilera anitzeko eremuak; auditoriuma; eta ekoizpen eta prestakuntza lantegiak[13].

Nahiko alferrik galduta dagoen azpiegitura da, eta bertan ez dira egiten egin litezkeen tratamendu-jarduera guztiak. Gainera, instalazioak zabalak izan arren, ez da betetzen gela bakoitzean pertsona bakarra jarri behar dela dioen printzipioa, espetxe legerian jasoa:

> *"Printzipio zelularrak gidatuko du espetxe sistema, alegia, presoek gela bana izan behar dutela, salbu eta gelaren neurriek eta biziegokitasun baldintzek aukera ematen dutenean intimitateari eutsiz pertsona bat baino gehiago hartzeko, horrelakoetan gela partekatzeko baimena ematen ahalko baita, presoak hala eskatuz gero, non eta ez dagoen horren kontrako arrazoiren bat, tratamendua, osasuna, ordena edo segurtasuna tarteko."* (Espetxe Erregelamenduaren 13. artikulua).

Printzipio hori Europako Espetxe Arauetan ere badago (18.5 artikulua), eta erraz betetzen ahal da. 2019ko abenduaren 31n 307 preso

[13] SIEPSE, Sociedad de Infraestructuras y Equipamientos Penitenciarios y de la Seguridad del Estado enpresaren webgunea. https://www.siepse.es/

zeuden Espetxean (277 gizon eta 30 emakume, guztiak bigarren graduan sailkatuak). Urteetan zehar egonkor samar mantendu da 300 pertsonako kopuru hori.

| Urtea | Gizonak | Emakumeak | Osotara |
|---|---|---|---|
| 2019 | 293 | 22 | 315 |
| 2018 | 274 | 15 | 289 |
| 2017 | 261 | 26 | 287 |
| 2016 | 278 | 25 | 303 |
| 2015 | 320 | 22 | 342 |

Nafarroako espetxe biztanleriaren zenbaketan kontuan hartu behar lirateke Foru Komunitatetik kanpoko espetxeetan kondena betetzen ari diren nafarrak edo Nafarroan errotutako pertsonak. Eskuragarri dauden azken datuak (184 pertsona) behin-behinean ontzat emanez gero, guztira 491 lirateke presoak, oraindik ere Espetxeko 504 gelak baino gutxiago. Beraz, bete liteke printzipio zelularra. Beste arrazoi batzuen artean, printzipio zelularra aplikatu beharra argudiatu zen espetxe berria eraikitzeko. Hala ere, ez da behar adina giza baliabide jarri printzipio hori bete dadin.

Espetxea langile gehiagoz hornitu ez ezik, beharrezkoa litzateke erregimen erdi-askea gehiago erabil dadin sustatzea, Ildo Estrategikoetako 2. apartatuan proposatzen den bezala. Horrek okupazio maila txikia eta gela bakoitzeko pertsona bat mantentzeko aukera emanen luke, eta, ondorioz, tratamenduetarako aukera hobeak eta gatazken murrizketa lortuko lirateke.

Espetxe biztanleriaren ezaugarri prozesalak eta penalak honako hauek dira:[14]

[14] Fiskaltzaren 2016ko Memoria.

- Prebentiboak: 53 (49 gizon eta 4 emakume).
- Zigortuak: 230 (210 gizon eta 20 emakume).
- Delitu mota nagusiak:
    - Jabetzaren aurkako delituak eta osasun publikoaren aurkakoak. Estatuko batezbestekoa estrapolatzen badugu, zigortuen % 56 bi kategoria horietakoak lirateke.
    - Sexu-askatasunaren aurkako delituen gehikuntza nabari da. Beraz, tratamendu programak egiteko baliabide gehiago behar lirateke.
    - Genero-indarkeriaren delituengatiko zigor laburrak ere ugaritu egin dira, eta dagoeneko kategoria ugarienetan hirugarrena dira. Bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonen kopurua ere hazi egin da. Pertsona horiek berrerorleak izan ohi dira, alegia, behin eta berriz ezarri dizkiete askatasuna kentzen ez duten zigorrak, baina ez dituzte arrakastaz bete. Zigorrak betetzen ari diren bitartean modu indibidualizatuagoan lagun eginez gero, berrerortzea eta espetxeratzea saihets litezke.

- Zigorren iraupena:

**Gizonak**

| | |
|---|---|
| 6 hilabetetik 3 urtera | 111 |
| 3 urtetik 8 urtera | 66 |
| 8 urtetik 15 urtera | 25 |
| 15 urtetik 20 urtera | 5 |

| | |
|---|---|
| 20 urtetik 30 urtera | 1 |

**Emakumeak**

| | |
|---|---|
| 6 hilabetetik 3 urtera | 7 |
| 3 urtetik 8 urtera | 4 |
| 8 urtetik 15 urtera | 5 |
| 15 urtetik 20 urtera | 2 |
| 20 urtetik 30 urtera | 2 |

Betetzen ari diren zigor gehienak laburrak direla nabari da. Horrek erakusten du badagoela handitzerik kondena eteten zaien edo erregimen erdi-askean betetzen dutenen kopurua.

Nafarroako Fiskaltzaren arabera, berrerorleak 96 ziren, eta lehen gradukoak 136. Preso guztietatik 79 ziren atzerritarrak (% 25).

Langileei dagokienez, Espetxeak funtzionarioentzako 183 lanpostuz osatutako lanpostu zerrenda dauka, SGPMAri atxikita dauden lanpostuak ere kontuan hartuta. Arartekoaren 2018ko apirilaren 12ko txostenaren arabera[15], funtzionarioentzako 16 plaza zeuden hutsik: hezitzaile bat, barneko zerbitzuko koordinatzaile bat, bulegoburu bat, zerbitzuen koordinatzaile bat, bulegoko espezialista bat, barneko zaintza zerbitzuko 6 langile, barneko zaintza zerbitzua-2ko langile bat, eremu mistoko 3 langile orokor eta bulegoko langile orokor bat; eta lan-kontratudunen 3 lanpostu: berariazko jardueretako ofizial - erizaintzako laguntzaile 2, eta

15 https://www.defensordelpueblo.es/resoluciones/procurar-la-cobertura-de-los-16-puestos-de-trabajo-vacantes-en-la-relacion-de-puestos-de-trabajo-rpt-y-tres-de-personal-laboral/

lanbide jarduera teknikoetako ofizial bat. Gainera, esan dugun bezala, lanpostu zerrenda hori espetxe zaharrarena da, eta lanpostu gutxiegi ditu.


Langile urritasun horrek, noski, zentroan egiten diren tratamendu-jardueretan eragiten du. Tratamendu espezializatuko zenbait programa, hala hona gaixo mentalei arreta integrala emateko esparru-programa (PAIEM), sexu-erasotzaileentzako programa edo genero-indarkeriarena, ez dira jarraitutasunez garatzen, eta hori konpondu egin behar litzateke behar adina langile jarriz, bereziki psikologoak[16], eta kanpoko baliabideetara joz.

## Presoen eta preso ohien gizarte eta osasun ezaugarriak

Presoen zigor eta espetxe inguruabarrez gain, beharrezkoa da haien gizarte eta osasun ezaugarriak ezagutzea. Nafarroako presoei eta preso ohiei berariaz erreferentzia egiten dieten azken datuak "Nafarroako gizarte bazterketari buruzko diagnostikoa"[17] lortzeko azterlan monografikoan daude, zeina 2009an egin baitzen, Bazterketaren Aurkako II. Planaren esparruan. Berriz egin behar lirateke berariazko azterketak Nafarroako presoen eta preso ohien errealitateari eta beharrizanei buruz. Azken ikerketa horrek erakusten duenez, droga eta alkohol kontsumo arazotsuek presoen erdiei baino gehiagori (% 53,8) eta espetxetik ateratakoen % 70i eragiten diete. Bestalde, presoen % 16,5ek B edo C hepatitisa edota GIB-hiesa dute. Gaixotasun mentalek eta minusbaliotasunek presoen % 21,7ri eragiten diete. Ezaugarri horien parekoak dira Drogei buruzko Plan Nazionalak 2016an argitaratutako "Espetxeratuen osasunari eta droga kontsumoari buruzko inkesta[18]"

[16] Espainiako Arartekoaren 2018ko apirilaren 12ko Txostena eta Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren 2019ko Memoria
[17] Nafarroako gizarte bazterketari buruzko diagnostikoa
[18] Espetxeratuen osasunari eta droga kontsumoari buruzko inkesta

izenekoan ageri direnak, eta begi bistan jartzen dute droga kontsumoa askoz ohikoagoa dela presoen artean biztanleria orokorrean baino.




Aldea bereziki deigarria da kokaina kontsumoan (% 30,7 eta % 1,9) eta heroinarenean (% 14,3 eta % 0,1). Oro har, espetxeratuen % 71 dira legez kanpoko drogen kontsumitzaile.




Beste alde batetik, estatu osoan % 29ri diagnostikatu diete nahasmendu mentalen bat, % 6ri GIBa, eta % 15i C hepatitisa.

Azterlan horrek oinarritzat hartu ditu estatuko espetxe guztietako presoei egindako galde-sortak, eta, beraz, Nafarroako errealitatea ere adierazten du. Agerian uzten ditu kolektibo horren gabeziak hezkuntzaren eta lanaren alorretan. Presoen % 17,6k ez dakite irakurtzen edo idazten, edo ez zituzten amaitu lehen ikasketak; % 54,6k Lehen edo Bigarren Hezkuntzara iritsi baina ez zuten amaitu; % 22,6k Bigarren Hezkuntza amaitu zuten, eta % 5,2k baino ez dituzte egin unibertsitate ikasketak. % 41 baino gehiago langabezian zeuden, % 6 kale gorrian edo infraetxe batean bizi ziren, eta % 47 baino gehiago lehen ere espetxean egonak ziren. Nabari da, beraz, gizarte inklusiorako eskubidea ez dela betetzen presoentzat.

# 4. EREDUAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Oinarrizko printzipio hauei jarraitzen die zigor betearazpenaren eredu osoak. Nafarroako gizartearen balioak islatzen dituzte, eta foru legeria, estatukoa eta nazioartekoa dituzte oinarri, bai eta gai hauetan adituak diren erakunde eta entitateek emandako gomendioak ere.

## 1. Esku-hartze txikienaren printzipioa

*Ultima ratio* edo esku-hartze txikienaren printzipioa Espainiako Konstituzioaren 10., 15. eta 17. artikuluak eta Europako Espetxe Arauetako xedapenak elkarri lotuta irakurtzetik ondorioztatzen da. Printzipio hori da proposatzen den ereduaren bizkarrezurra, eta esan nahi du eskubideak gutxien murrizten dituzten baliabideak erabili behar direla. Espetxea azken baliabide gisa erabili behar da, eta espetxean dauden pertsonen kopurua beharrezkoa den gutxienekora murriztu behar da. Horretarako, penalak ez diren erantzun komunitarioak indartu behar dira, zigorra erregimen erdi-askean betetzea sustatu, eta gizarteratzera egiaz bideratutako espetxe sistema eraiki behar da, espetxe tasa eta berrerortze tasa ahalik eta maila beherenean egon daitezen.

Sare penala hedatzearen efektua saihestu behar da, espetxearen "ordezko" neurrien eta espetxe zigorren metaketak efektu hori sor baitezake. Horretarako, askatasuna kentzen ez duten neurri horiek kudeatzeko sistema sendotu beharra dago, benetako *probation* zerbitzu bat eratuz.

## 2. Gizarteratzea helburu izatearen printzipioa

Eredu hau honako printzipio honetatik abiatzen da: Nafarroan badago gizarteratzeko benetako eskubide subjektiboa, ulertu behar baita gizarte inklusiorako eskubidea loturik dagoela Nafarroako legerian aurreikusita dagoen gizarte inklusiorako eskubidearekin. Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua eta Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea batera irakurtzean antzeman daiteke gizarteratzeko orientazio horren errealitatea, zeinak eskubide-berdintasuna eskaini behar baitie Nafarroan gainbegiratze penalaren pean dauden pertsona guztiei. Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat ezartzen du, izaera orokorrarekin ezarri ere, "erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta akonpainamendu pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, alderdi guztietan, halako moduan non pertsona guztiek izanen baitituzte aukerak eta behar diren bitartekoak bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean osotara parte hartzeko, eta Nafarroako gizarte osoarekiko egokia den bizi eta ongizate mailaz gozatuko baitute". Bada, espetxe eremuan hori lortzea bat dator gizarteratzea lortzearekin.

## 3. Pertsonaren duintasunaren printzipioa.

Zigorren gizatasunaren printzipioa eta tratu txar eta torturen debekua, Konstituzioaren 15. artikuluan jasoak, pertsonaren duintasunaren printzipio orokorragoaren adierazpen zehatzak dira. Pertsonaren duintasuna zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren giltzarria da:

> *"Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta*

*gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea.*" (Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua).

Duintasun horren kariaz, eskubide guztien errespetua bermatu behar da, bai eta espetxe sisteman edozein motatako tortura, tratu txar edo tratu apalesgarriei aurrea hartzeko eta halakoak desagerrarazteko mekanismoen garapena ere. Halaber, gizarteratzeko helburuz ezarri behar dira zigorrak, zeren eta berrerortzea saihestu eta delituei aurrea hartzeak biktimen duintasunarekiko begirunea ere adierazten baitu. Zigor betearazpenaren eredu honen asmoa da berariaz jarraitzea Konstituzioaren 10. artikuluari, bake soziala pertsona ororen duintasunaren errespetuan baizik ezin dela oinarritu iritzita.

### 4. Herritartasun osoaren printzipioa.

Berdintasun formalak (EKren 14. artikulua) eta materialak (EKren 9.2 artikulua) osatzen dute printzipio honen oinarria. Printzipio honen adierazpenak dira normalizazioa –alegia, komunitatearen bitarteko orokorren bidezko arreta–, erakundeen arteko koordinazioa eta politika publikoen integrazioa. Printzipio honek espetxe arloko eskumenen transferentzia osoaren beharra du erabat egingarri bihurtzeko.

Eskubide-berdintasunaren bermea, espetxe barnean zein kanpoan arreta jarraitua jaso ahal izatea eta zigorra norbera errotuta dagoen lurraldean betetzea ere printzipio honen adierazpenak dira.

## 5. Ikuspegi errestauratiboa txertatzearen printzipioa.

Nafarroako Foru Komunitatea aitzindarietakoa da ikuspegi errestauratiboa aplikatzen, zigortzailea ez den gizarte bat sustatzeko, jabetzen dena arazo sozialen konponbidea ez dagoela zigor sisteman. Ikuspegi errestauratibo modernoaren oinarria da modu orekatuan planteatzea erreparazio kontzeptua, erantzukizuna aitortzearen kontzeptua eta eragindako pertsona eta komunitateen partaidetzarena. Kontzeptu horiek zigor betearazpenaren eredu osoa zeharkatu behar dute. Europako Kontseiluaren 2018ko urriaren 3ko (2018)8 Gomendioa, justizia errestauratiboari buruzkoa, gidari izan daiteke printzipio hori zeharka txertatzeko zigor betearazpenaren eremu guztietan. Justizia errestauratiboan esku hartzeko esparru integral bat eduki behar da, halako moldez non jarduketa guztiak, bai askatasuna kentzen ez duten zigorretarako espazioetan, bai Gizarteratze Zentroan nahiz Espetxean, Justizia Errestauratiboaren Zerbitzu integral batek koordinaturik eta protokolizaturik egonen baitira. Zerbitzu horrek, judizio barneko bitartekaritza penalaren ikusmoldea gainditurik, biktimen, biktimagileen eta komunitatearen arteko errestaurazio prozesuak bultzatu behar ditu zigor betearazpenaren fase guztietan. Justizia errestauratiboa, 2. ildo estrategikoan azalduko den bezala, ez da zigor sistemaren osagarri huts gisa aplikatu behar; aitzitik, gatazkak komunitatearen baitan ebazteko bideak ezarri behar dira, arazo sozialak epaitegietatik ateratzeko.

## 6. Genero-ikuspegia txertatzearen printzipioa.

Herritartasun osoaren printzipioaren hariari jarraituz, zigor betearazpenaren arloan ere aplikatu behar dira genero-ikuspegia politika publiko guztietan txertatzea bermatzen duten arauak. Horregatik, printzipio honek eskatzen du bete-betean aplika daitezela apirilaren 4ko

17/2019 Foru Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa, eta apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa.

17/2019 Foru Legearen xedea da "*baldintza egokiak sustatzea Nafarroako Foru Komunitatean Konstituzioan jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea egiazkoa eta eraginkorra izan dadin bizitzaren eremu eta etapa guztietan*". Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa da, eta, beraz, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasun hori hartu beharko du helburutzat, bere eginez genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren printzipioa, alegia: "prozesu politikoak halako moldez antolatu, hobetu, garatu eta ebaluatzea non genero berdintasunaren ikuspuntua txertatuko baita politika guztietan, maila eta etapa guztietan".

Hortaz, genero-ikuspegia une oro aplikatu behar da zigor betearazpenean, ezinbestez kontuan hartu behar delako, egoera guztietan, esparru guztietan eta kolektibo guztietan, emakumeen eta gizonen botere-mailen arteko desoreka dagoela eta emakumeak baldintza kaskarragoetan daudela. Zigor arloan hori areagotu egiten da. Izan ere, ingurunea oso maskulinizatuta dago, emakumeak gutxiengo txikia dira eta egoera horretan ez zaie erantzuten haien premia espezifikoei. Hori dela eta, beharrezkoa da printzipio hau nabarmentzea eta indarrez eta xehetasunez garatzea zenbait jarduketa, hala zigortuei eta biktimei nola langile publikoei, lan-kontratudunei eta gizarte entitateetako langileei zuzenduak.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitean, aipatu 14/2015 Foru Legean ezarritakoaren arabera, arreta berezia jarri behar zaie emakumezko presoen beharrizanei, gehienek indarkeria mota hori

pairatu baitute. Horrelako delituengatik zigortutako gizonekiko lana ere indartu egin behar da.

# 5. ILDO ESTRATEGIKOAK

## Sarrera

Zigor betearazpenaren eremuan bi sektore bereizi ohi dira: espetxearen ordezko zigor eta neurriena, eta askatasunaz gabetzen duten zigorrena (funtsean, espetxe zigorra). Bestalde, espetxe zigorra betetzeko garaian erregimen arrunta eta erregimen irekia bereizten dira. Lehenengoa espetxe barnekoa da funtsean, eta bigarrena gizarteratze zentro batean aplikatzen da.

Esku-hartze txikienaren printzipioaren arabera, eskubideak gutxien murrizten dituzten esku-hartzeak lehenetsi behar dira, eta horrelakoak, gainera, eraginkorragoak izaten dira berrerortzea saihesteko eta segurtasun publikoa bermatzeko. Horregatik, askatasunaren mugatze mailei erreparatzen badiegu, lehen tokian jarri behar dira zigorretik haragoko konponbide sozial eta errestauratiboak, erantzun sozialak sustatuz, justizia nahia asetzeko gauza direnak zigor zuzenbidera jo gabe. Hurrengo mailan, hobe da askatasuna kentzen ez duten zigorrak betearaztea espetxe zigorrak baino. Azkenik, espetxeari dagokionez, zigorra erregimen arruntean betetzeak salbuespen izan behar luke, zigorraren helburuak lortzeko modu leunagorik ez dagoenean soilik aplikatzekoa. Marta Martí eta Elena Larrauri legelariek dioten bezala, "sekula ez zitzaion deitu behar erregimen arrunta pertsona egun osoan giltzapean dagoen erregimen bati" [19].

Hortaz, Nafarroako ereduak esku-hartze txikienaren printzipio hori du ardatz: zigorraz bestelako konponbideak lehenestea gatazken ebazpen alternatiboaren bitartez, askatasuna kentzen ez duten zigorrak

[19] Martí Barrachina, M., & Larrauri, E. (2020). Una defensa de la clasificación inicial de las penas cortas en régimen abierto. Revista Española De Investigación Criminológica, 18, 1-34.

lehenestea, zigorra ingurune irekian bete dadin sustatzea, eta, bigarren espetxe gradua aplikatzen denean, ahalegin guztiak egitea pertsona gizarteratzeko.

Eremu horietan guztietan, herritartasun osoaren printzipioak eskatzen du gainbegiratze penalaren pean dauden pertsona guztien eskubide-berdintasuna berma dadila. Beraz, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzua helburutzat hartu behar du zigortuak gizarteratzea, genero-ikuspegia zeharka aplikatuta.

Printzipio horiek oinarri, hona hemen ildo estrategikoak:

1) **Gainbegiratze penalaren pean dauden pertsona guztien eskubideak bermatzea.**
2) **Erantzun komunitarioak eta askatasuna kentzen ez duten zigorrak lehenestea.**
3) **Zigorrak ingurune irekian bete daitezen sustatzea.**
4) **Gizarteratzea sustatzea zigorraren betearazpen osoan zehar**

## 1. ildo estrategikoa

# Gainbegiratze penalaren pean dauden pertsona guztien eskubideak bermatzea.

**1. helburu estrategikoa. Arreta-parekotasuna bermatzea osasunean, hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan, edozein diskriminazio desagerraraziz.**

**2. helburu estrategikoa. Aurrea hartzea torturari eta zigor edo tratu anker edo apalesgarriei.**

Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren ildo estrategiko honek gogoeta funtsezko eta saihestezin bat adierazten du: bermatu egin behar da gainbegiratze penalaren pean dauden pertsona guztien eskubideak gainerako herritarrenak bezala errespetatuko direla. Horretarako, ildo estrategiko hau bi helburu estrategikoren bidez zehazten da. Lehenbizikoa –"arreta-parekotasuna bermatzea osasunean, hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan, edozein diskriminazio desagerraraziz"– betetze aldera, Nafarroako administrazioek ematen dituzten zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko jarduketa materialak egin behar dira, estandar berak lor daitezen espetxean zein kanpoan. Nafarroako Gobernuko departamentuen arteko koordinazioa eta administrazio publikoen artekoa funtsezkoak dira kontu honetan.

Bestalde, bigarren helburu estrategikoa –"aurrea hartzea torturari eta zigor edo tratu anker edo apalesgarriei"– berariaz jartzen dio azpimarra gainbegiratze penalaren pean dauden pertsona guztien osotasun fisikoa eta morala bermatzeko betebehar konstituzionalari (EKren 15. artikulua). Gainera, eskubideak babesteko nazioarteko

sistemak ere torturari aurrea hartzeko mekanismoak ezartzearen garrantzia nabarmentzen du, eta Espainia sistema horretako kidea da. Gizarte zibilak parte hartzea oso garrantzitsua da helburu hori lortzeko. Izan ere, legeria urra lezaketen egoeren aurrean erantzun egokia eta gardentasuna bermatzeko sistemak ezarri behar dira Nafarroako Gobernuaren zuzendaritzapean.

## Justifikazioa

Gainbegiratze penalaren peko pertsonen eskubideak bermatzea Konstituzioaren 9.2 artikulutik eratorritako betebehar demokratiko bat da. Izan ere, artikulu horrek administrazio guztiei agintzen die pertsona guztien berdintasun materiala gauza dezatela:

> *"Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragozten edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte bizitzan ere."*

Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak zigor askatasun-gabetzaileak eta bestelako zigorrak kudeatzen ditu, jada adierazi denez. Horregatik, une oro ari gara gainbegiratze penalaren peko pertsonen multzoaz. Kontuan hartu behar da, ordea, legerian ezarritako eskubideak baldintza berdinetan baliatzeko zailtasuna nabarmenagoa dela askatasunaz gabetutako pertsonen kasuan. Horren harira, ekintza gehienak hertsiki bideratuta daude espetxe eremura. Hala ere, esan beharra dago askatasuna kentzen ez duten zigorren esparruan ere zerbitzu publikoak baliatzeko zailtasunak izaten direla eta administrazio

eskudunen arteko koordinazio egokirik ez dagoela. Hori horrela, beharrezkoa da udalekiko lankidetza hobetzea, gizartearentzako lanak betetzeko lanpostuak eskain ditzaten, eta lankidetza-protokoloak ezarri behar dira, askatasuna kentzen ez dieten zigorrak betetzen ari diren pertsonek gizarte zerbitzuak baliatu ahal izateko. Zigor betearazpenaren arloko eskumenen transferentziak bide emanen luke Foru Administrazioko maila guztien eta toki entitateen arteko koordinazio hori areagotzeko.

Eskubide-berdintasunaren printzipioa jaso duen legeriarekin jarraituz, Konstituzioaren 25.2 artikuluak berariaz dihardu horretaz, honako hau dioenean:

> *"Norbaiti espetxealdi-zigorra ezarri bazaio eta hori betetzen ari bada, kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu; ez, ordea, beren beregi mugatuta dituenak, kondena-epaiaren edukia, zigorraren esangura eta espetxe-legea kontuan hartuta. Edonola ere, espetxeratuak lan ordaindua izateko eskubidea du, eta Gizarte Segurantzaren onurak izango ditu, bai eta kultura lortzeko eta bere nortasuna oso-osorik garatzeko eskubideak ere."*

Espetxeen Lege Organiko Orokorrak, berriz, 3.1 artikuluan berretsi egiten du eskubide-berdintasunaren printzipio hori:

> *"Espetxeratuek eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak egikaritu ahalko dituzte, botoa emateko eskubidea ere tartean dela, salbu eta atxiloketaren helburuarekin edo kondena betetzearekin bateraezinak direnean."*

Nazioartean, Europako Espetxe Arauek ere honako hau diote 1.2 artikuluan:

> *"Askatasunaz gabetutako pertsonek eskubide guztiei eusten diete, salbu eta legez eskubideren bat kentzen zaienean, espetxe zigorrera edo prebentziozko atxiloketara kondenatzen dituen erabaki baten bitartez".*

Hala ere, lege-aginduen multzo hori gorabehera, hainbat txostenek aitortzen dute espetxean daudenei justifikaziorik gabe kentzen zaizkiela eskura izan behar lituzketen eskubide asko. Hain zuzen ere, azkenaldian emandako txosten garrantzitsuenetako bat aipatzearren, Europako Oinarrizko Eskubideen Agentziaren txosten batek, *Atxilotze baldintzak Europar Batasunean: arauak eta errealitatea*[20] izenburu adierazgarria duenak, eskubide-berdintasuna bermatzeko legezko betebeharraren eta eskubideen urraketa hedatuaren arteko dibergentzia antzematen du estatu kideetako askotan. Europako eremuan bertan, *Europako Parlamentuaren 2017ko urriaren 5eko Ebazpenak, espetxe baldintzei eta sistemei buruzkoak,*[21] *"estatu kideak premiatzen ditu errespetatu ditzaten askatasunaz gabetzeari buruzko arauak, nazioarteko zuzenbideko bitartekoetan eta Europako Kontseiluaren arauetan ezarriak"*, eta *"gogorarazten die ez dela gauza bera askatasunaz gabetzea eta duintasunaz gabetzea."*

Estatuan, Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionala (PMN) den aldetik Arartekoak ematen dituen txostenetan[22] urtez urte gabeziak nabarmentzen dira espetxe kudeaketaren hainbat alderditan, batez ere osasun laguntzan. Azkenik, Iruñeko Espetxeari dagokionez, txosten

[20] Criminal detention conditions in the European Union: rules and reality. 2019. https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/fra-2019-criminal-detention-conditions-in-the-eu_en.pdf

[21] Europako Parlamentuaren 2017ko urriaren 5eko Ebazpena, espetxe baldintzei eta sistemei buruzkoa (2015/2062(INI) https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-8-2017-0385_ES.html

[22] Prebentzio Mekanismo Nazionalaren 2019ko txostena. https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2020/06/Informe_2019_MNP-1.pdf

berriena da Salhaketa Nafarroa elkarteak 2017an egindako hau: "Nafarroako Gobernuak espetxe arloko eskumena bereganatzea. Bultzada baten beharra"[23]. Sakonean aztertzen ditu berariazko eskubide batzuk; zehazki, osasunerako, hezkuntzarako eta gizarte inklusiorako eskubideak.

Presoen bizi baldintzak hobetzea eta espetxeetako langileen lan baldintzak hobetzea elkarrekin bat datozen ekintzak dira, eta horiek ere torturaren prebentziora bideratuta daude, zeina ildo estrategiko honetako bigarren helburua baita. Horren haritik, Prebentzio Mekanismo Nazionalak eta Torturaren eta Tratu Anker edo Apalesgarrien Prebentziorako Europako Komiteak adierazi dutenez, "langileen eta presoen arteko harreman eraikitzaileak sortzeak tratu txarren arriskua arintzen du eta atsegingarriago bihurtzen du langileen jarduna. Horrelako harremanak bermatzeko, langile-hornidura egokia behar da espetxeratuen benetako zaintza- eta arreta-premietarako, eta erabateko garrantzia eman behar zaio langileen prestakuntzari, espetxeratuen eskubideei eragiten dieten arloetan. Bereziki azpimarratu behar dira gatazken ebazpen baketsuari buruzko prestakuntza, krisietan esku hartzekoa eta hitzezko nahiz hitzik gabeko tekniken ikaskuntza, oldarraldiak hasi eta berehala eten ahal izateko, bide hertsagarririk erabili beharrik izan gabe; baita segurtasun eta euste neurrien aplikazio egokiari buruzko prestakuntza edota osasun mentalari eta droga-mendekotasunari buruzkoa ere."[24]. Argi antzematen da elkarrekin lotuta daudela gizarteratzea xede duen espetxealdiaren lorpena, espetxe inguruneko langile horniduraren eta langileek dituzten lan baldintzen hobekuntza eta preso guztien eskubideen bermea. Espetxe batean

[23] http://www.salhaketa-nafarroa.com/2017/05/la-asuncion-de-competencias-en-materia-penitenciaria-por-la-comunidad-foral-de-navarra-la-necesidad-de-un-impulso/
[24] Prebentzio Mekanismo Nazionalaren 2014ko memoria eta 11. txosten orokorra (CPT/Inf (2001) 16).

osasunerako, hezkuntzarako eta gizarteratzeko eskubideak betetzen badira, espetxe horretan txikiagoa izanen da tratu txarren arriskua. Aurrean aipatutako prebentzio-erakundeen aholkuen arabera, zigorrak betearazteko eskumenak dituzten agintariek "erabateko lehentasuna eman behar diote tratu txar edo torturatzat jo daitezkeen egoerak antzeman ahal izateko mekanismo guztiak abiarazteari[25]". Hain zuzen ere, kexak eta erreklamazioak aurkezteko sistema eraginkorrak ezarri behar dituzte, behar diren ikerketak egin, eta gardentasuna sustatu behar dute, barnean hartuz gizarte zibilaren parte-hartzea.

Ildo estrategiko hau osatzen duten bi helburu estrategikoak –hots, eskubideen bermea eta tratu txarren prebentzioa– betetzea indarrean dauden legeen errespetu kontua da, eta, gainera, gizarte kohesionatu eta segurua eraikitzeko oinarria ere bada.

Jarraian xehekiago aztertuko da aipatutako eskubideetako bakoitzaren egoera.

## Osasunerako eskubidea

Konstituzio-eremuan osasunerako eskubidea bizitzarako eta osotasunerako eskubidearekin lotzen da (15. artikulua), bai eta osasuna babesteko eskubidearekin ere (43. artikulua), zeina Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren bidez garatu baita. Jada esan denez, 16/2003 Legearen seigarren xedapen gehigarria indarrean jarri eta gero espetxe osasuna Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuan txertatu behar zatekeen. Gainera, osasun arloko eskumena Foruaren Hobekuntzan Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako eskumena da (53., 54. eta 58.

[25] Prebentzio Mekanismo Nazionalaren 2014ko memoria.

artikuluak) eta hark bere lurralde osoan egikaritzen du, 17/2010 Foru Legearen 11. artikuluan xedatutakoari jarraituz:

> *"Osasun laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Halaber, Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen ditu, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera".*

Espetxe Erregelamenduaren 208. artikuluak, berriz, hau xedatzen du: "*Espetxeratu guzti-guztiei bermatuko zaie arreta mediko-sanitarioa, gainerako herritarrek jasotzen dutenaren parekoa.*" Arestian aipatu txostenean Europako Oinarrizko Eskubideen Agentziak gogora dakar besteek bezalako osasun arreta jasotzeko eskubide hori, baina, ohartarazten duenez, "*hala ere, maiz osasun langileak urriak izaten dira eta horrek atzerapenak eragiten ditu hitzordu medikoetan, torturaren prebentziorako mekanismo nazionalek estatu kide guztietan adierazi duten moduan*[26]." Espainian, Prebentzio Mekanismo Nazionalaren azken txostena argia da:

> *"Duela urte batzuetatik hona, Prebentzio Mekanismo Nazionalaren urteroko txostenetan osasun langileen hornidura urria nabarmentzen da. Egoera hori urtetik urtera larriagotzen ari da. Gaur egun, espetxeetako plantilletako mediku lanpostuen erdiak daude bete gabe. Epe laburrean etor litezkeen erretiroen aurreikuspenak iragartzen du espetxeetako osasun arretako egungo sistemak lur joko duela, lehenbailehen neurri egokiak hartu ezean. Egoera hori presoen eskubideen kalterako da, eta eragin egiten die hala*

[26] 38. orrialdea. Criminal detention conditions in the European Union: rules and reality. 2019.

*langile publikoei nola espetxe ingurunearekin harremana duten pertsona guztiei*[27]."

Iruñeko Espetxean nabarmena da langile urritasun hori, zeinak, bi osasun sistema desberdin izateari gehituta (Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiaren mendekoa eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren mendekoa), eragotzi egiten baitu kanpoan eskaintzen denaren pareko arreta lortzea. Espetxe sistemaren eta osasun sistema orokorraren arteko zatiketak tratamenduen jarraitutasuna zailtzen du presoak aske irteten direnean edo beste espetxe batera aldatzen dituztenean. Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Komunitateak osasun arloko eskumena bere gain hartzea presako neurri bat da, eta azterlan hau amaitzeko garaian badirudi gauzatzear dagoela.

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako arreta dela eta, esan beharra dago sare komunitarioarekiko integrazio hobea lortu dela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko psikiatrak Espetxera joanda. Horrek frogatzen du ezen, borondate politikoa izanez gero, Foru Komunitateak espetxe sistemaren kalitatea hobetzen ahal duela baita eskumenen bereganatze eraginkorrik gabe ere. Hala eta guztiz ere, arreta psikiatriko eta psikologikoa ez da kanpoan eskaintzen denaren parekoa. Izan ere, espetxean osasun mentaleko arazoek duten prebalentzia dela eta, gehien hobetu beharreko arloetako bat da hori, eta horregatik berariazko epigrafe bat eskainiko zaio gako-ekintzen atalean.

## Hezkuntzarako eskubidea

[27] 111. orrialdea. Prebentzio Mekanismo Nazionalaren 2019ko txostena.

Eskubide hau Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluaren babesean dago, eta osorik transferitu zaie autonomia erkidegoei espetxeetan ezar dezaten. Foruaren Hobekuntzak 47. artikuluan ezartzen duenez, "*Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketa eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan*". Artikulu hori garatuz, ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legeak, helduen hezkuntza arautzen duenak, hau xedatzen du: "*Lege-esparru bat ezarri behar da erakundeen arteko lankidetza eta koordinazioa garatzeko, pertsona helduek, euren garapen pertsonal eta profesionalari begira, euren ezagutzak eta gaitasunak eskuratu, gaurkotu, osatu edo zabaldu ahal izatea bermatzeko*". Espetxeei dagokienez, hezkuntzarako aukera berdinak izateko eskubide hau honako xedapen hauetan garatu da: 1203/1999 Errege Dekretua, uztailaren 9koa; 1476/2000 Errege Dekretua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleak Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzeari buruzkoa; eta Estatuko Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitateak sinatutako hitzarmena (2003ko maiatzaren 20ko BOEn argitaratu zen, 120. zenbakian). Hitzarmenak betebehar hau jasotzen du:

> "*Espetxeko hezkuntza-unitateei Komunitateko helduen hezkuntza-sare publikoan dauden gainerako hezkuntza-unitateei ematen zaien arreta bera ematea, espetxe-baliabidearen berezitasunen eta, hala badagokio, presoen gabezien arabera dagozkion egokitzapenak alde batera utzi gabe.*"

Espetxeko prestakuntza beharrez arduratzen den unitatea organikoki Jose María Iribarren helduentzako ikastetxekoa eta Felix Urabayen NHBHIkoa da. Aipatutako ikastetxeetako ikasketa berberak irakasten dira, espetxearen espezifikotasunak ezartzen dituen mugekin.

Gaur egun baliabide digitalak eskuratzeko aplikatzen diren segurtasun mugei dagokienez, behin segurtasun informatikoaren eskakizunak gainditu ondoren, 2021-2022 ikasturterako, espetxean dauden pertsonek prestakuntza eskaintza osoa izanen dute eskuragai. Eskatzaileek ikasketen arloan duten egoera kontuan harturik osatzen da behin betiko eskaintza.

## Gizarte inklusiorako eskubidea

Nafarroako Foru Komunitatearen gizarte inklusiorako sistema Estatuko aurreratuenetakoa da. Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak pertsona guztientzat eta izaera unibertsalarekin ezartzen du gizarte inklusiorako eskubidea, alegia, "*erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta akonpainamendu pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, alderdi guztietan, halako moduan non pertsona guztiek izanen baitituzte aukerak eta behar diren bitartekoak bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean osotara parte hartzeko, eta Nafarroako gizarte osoarekiko egokia den bizi eta ongizate mailaz gozatuko baitute*". Foru lege horrek 2. artikuluan dio eskubide honen titular direla Nafarroan bizilekua izan eta gizarte bazterketako egoeran dauden pertsona guztiak. Eta honako hau xedatzen du: "*Nafarroako administrazio publikoen erantzukizuna da eskubide hori bermatzea, arreta pertsonalizatua, iraunkorra eta integrala emanez, pertsonen beharren araberakoa eta haien egoeraz egindako kodiagnostiko objektibo eta integralean oinarrituta; baita eskubide horretaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzea ere*". Beraz, Iruñeko Espetxeko presoek aukera izan behar dute eskubide hori gainerako herritarrek bezala baliatzeko. Alabaina, kanpoko gizarte zerbitzuen sarearekiko integraziorik ezak, erroldatzeko zailtasunek eta koordinazio-bide argirik ezak urratu egiten dute gizarteratzeko eskubide hau. Eskubide hau gauza dadin, gainera,

kalitatezko enplegu duinerako aukera hobetzeko eta espetxetik irtendakoan etxebizitza eskuratu ahal izateko ekintzak ere behar dira. Eskumen historikoak oinarri, Nafarroako Gobernuak gizarte laneko zerbitzuak eskaintzen zituen lehengo espetxean. Orain, eskumen historiko horiexen arabera, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak bultzada eman lezake sare publikoko gizarte laneko profesionalek espetxe berrian jardun dezaten.

## Ez torturarik ez zigor edo tratu gizagabe, anker edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea

Esan bezala, eskubide hau Espainiako Konstituzioaren 15. artikulutik eta giza eskubideen nazioarteko sistematik eratorria da. Zehazki, eta leku nabarmenean, aipatzekoak dira torturaren eta beste tratu edo zigor anker, gizagabe edo apalesgarrien aurkako Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren hitzarmenak, eta Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenaren 3. artikulua. Artikulu hori dela-eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak jurisprudentzia oparoa eman du, eta bertan adierazi du tratu txarren debeku hori urratu egiten dela torturen salaketak behar adina ikertzen ez direnean (alderdi prozesala), eta kondenak betetzeko zenbait baldintza ere zigor edo tratu apalesgarritzat jo daitezkeela. Giza eskubideen aldeko hitzarmen horietan xedatu da torturaren prebentziorako Europako mekanismoa sortzea, bai eta mekanismo global bat ere, zeinaren parte baitira prebentziorako mekanismo nazionalak. Prebentzioaren ikuspegi hori emankorrena eta egokiena dela kontuan izanik, Nafarroak sendotu egin behar lituzke berme-sistema horiek, gizarte zibilari lotu beharko lizkioke, eta Nafarroako Arartekoarekin koordinatu behar lituzke.

Iruñeko espetxeko egoera dela-eta, Prebentzio Mekanismo Nazionalak egindako azken bisitan, 2017an, egiaztatu du tratu txarrei aurrea hartzeko gomendioak nahiko ongi betetzen dituen espetxea dela[28], baina egon badaudela hobetu beharreko arloak espetxearen kudeaketan, eta horiei ekin behar litzaiekeela. Bereziki, txostenaren arabera, neurri batean baino ez dira betetzen Prebentzio Mekanismo Nazionalaren gomendioak honako arlo hauetan: bideozaintza, osasun laguntza, bitarteko hertsagarrien erregistroa, tratu txarrei buruzko alegazioen ikerketa, langile-hornidura eta langileen identifikazioa. Beherago zehaztuko denez, helburu estrategiko honetako gako-ekintzak bat datoz Prebentzio Mekanismo Nazionalaren gomendioekin.

Ondorio gisa, kontrol penalaren pean dauden pertsonen eskubideak bermatu ahal izateko, zenbait ekintza positibo egin behar dira osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen alorretan (1. helburu estrategikoa), bai eta torturen edo tratu txarren prebentzioaren alorrean ere (2. helburu estrategikoa).

Jarraian, bi helburuok garatu eginen dira, haiek betetzeko beharrezkotzat jotzen diren gako-ekintzak azalduz.

[28] Prebentzio Mekanismo Nazionalaren 2017ko txostena, 2018. urtea. Ikus 148. orrialdeko eta hurrengoetako laburpen taula. https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2018/07/Informe_2017_MNP.pdf

## *1. helburu estrategikoa. Arreta-parekotasuna bermatzea osasunean, hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan.*

Lehenago azaldu den bezala, Espetxean dauden pertsonentzat arreta-parekotasuna bermatzeko betebeharra du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako lurraldean bizi diren pertsona guztien arteko eskubide-berdintasuna eskatzen duten legeen indarrez. Espetxe arloko eskumen partzialen edo osoen transferentziak lagunduko luke eraginkortasuna handitzen helburu honen lorpenari begira, elkarren artean koordinatu ahal izanen bailirateke erregimenari, tratamenduari eta laguntza zerbitzuei dagozkien kontu guztiak. Transferentzia hori egin gabe ere, ordea, Nafarroako Gobernuak, bere departamentuen bitartez, bere eginbeharrak bete eta baliabide egokiak jarri behar ditu presoak ez diskriminatzeko. Helburu estrategiko hau, beraz, orain bertatik garatzen joan daiteke, espetxe arloko eskumenak jaso zein ez.

### *Osasuna*

Espetxe osasunaren arloko eskumenen transferentzia dagoeneko 15 urte baino gehiagoz atzeratu den betebeharra da, eta azterlan hau bukatzeko unean gauzatzeko zorian dago. Gehiago luzatu gabe eta berehala hartu behar du Nafarroako Gobernuak bere gain espetxe osasunaren arloko eskumena, eta Iruñeko Espetxeko osasun zerbitzua erabat txertatu behar da Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Alabaina, eskumen horren transferentzia egin zein ez egin, espetxetik kanpoko edozein herritarri ematen zaion osasun laguntza bera eman behar zaie Iruñeko Espetxean daudenei. Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere gain hartu behar ditu Iruñeko Espetxeko preso

guztien osasuna bermatzera bideratutako jarduketa guztiak, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonek dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea betez. Horretarako, Nafarroako Gobernuak jada bere eskumen historikoak baliatzen ahal ditu eta bitarteko gehiago jartzen ahal ditu presoen premiak asetzeko. Horrek esan nahi du Espetxeko erizaindegia Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sareko oinarrizko osasun laguntzako edozein zentroren parekotzat hartzea: oinarrizko laguntzako zentro bateko mediku, erizain, laguntzaile eta gizarte-langileak izan behar ditu, egunero eskaini behar ditu kontsultak, espezialistenganako deribazio guztiak egin, eta paziente bakoitzaren historia kliniko digitala eduki, tratamenduaren jarraitutasuna bermatzeko moduan. Gainera, presoen ezaugarrien arabera beharrezkoenak diren espezialitate medikoek, hots, psikiatriak eta psikologiak, berariazko langileak izan behar dituzte, eta langileok arreta integratua eman behar dute oinarrizko laguntzako lantaldearekin batera.

Osasunaren arloko helburu hau bete dadin, honako gako-ekintza hauek proposatzen dira:

**Gako-ekintzak**

1. Lantaldeak antolatzea, espetxea osasun arloko behar adina langilez hornitzeko, presoen premia bereziak aintzat harturik.
2. Koordinazioa hobetzea kanpoko sareko osasun zerbitzu espezializatuak erabiltzeko, presoen intimitaterako eskubidea errespetatuz. Presoak behar duten espezialitatera deribatzea, behar den garaian eta dagokien lehentasunarekin, gainerako herritarrak bezala. Medikuarekiko hitzordua emateko eta hitzordura joateko modua erraztu behar da, ahal den neurrian saihestuz

pazientea zaintzapean edo eskuburdinak jarrita eramatea, baina lagun egin behar zaio hala eskatzen badu. Horrela intimitatea eta estigmatizaziorik eza bermatuko dira.

3. Osasun laguntza integralaren eredu bat egiaz ezartzea, osasuna sustatzeko eta komunitatean parte hartzeko ekintzak barnean hartuko dituena.
4. Genero-ikuspegia txertatua duen osasun laguntza garatzea, aldian aldiko arreta ginekologiko espezializatua bermatuko duena, horretarako bide izanik emakumeen osasuna sustatzeko programak, sexu- eta ugalketa-osasunaren zaintza eta minbizi espezifikoen nahiz prebalentzia handiko beste gaixotasun batzuen prebentzioa. Emakumeen higiene pertsonalerako bitartekoak doan eskaintzea.
5. 70 urtetik gorakoak eta gaixotasun larriak edota sendaezinak dituztenak espetxetik ateratzea lehenesten duten protokoloak egitea.
6. Dibertsitate funtzionala edota dibertsitate intelektuala duten pertsonen berariazko premiei erantzutea, espetxetik atera daitezen erraztea tartean[29].

Berariaz jorratu behar dira **osasun mentalari** buruzko planteamendua eta gako-ekintzak, osasun mentala espetxeko arazo larrienetakoa baita. Tipologiei erreparatu behar zaie; funtsean hiru multzo handitara laburbil daitezke: nahasmendu mental larria duten pertsonak, adikzio-patologiak dituztenak, eta biak dituzten pertsonak; azken horiek patologia bikoitza dutela esaten dugu.

[29] Argibide gehiagorako, ikus *Adimen desgaitasuna duten presoen eta preso ohien egoera Espainian* izeneko txostena, Plena Inclusión elkarteak egina.

Abiapuntu gisa, nahasmendu mental larria duten pertsonak espetxeratzea saihesteko ekintzak egin behar dira. Detekzio eta deribazio ekintza horiek 2. ildo estrategikoan garatuko dira. Premisa hori abiapuntu hartuta, alegia, espetxea ez dela osasun mentaleko arazo larriak dituzten pertsonak artatzeko toki terapeutiko bat, egoera horretan dagoen preso bat detektatzen denean Zigor Kodearen 60. artikulua aplikatu behar litzateke: artikulu horrek dio zigorra eten egin behar dela baldin eta, epai irmoa eman ondoren, zigortuari nahasmendu mental larria eta iraunkorra antzematen bazaio, zigorraren zentzua ezagutzea eragozten diona.

Ezin bada saihestu espetxeratzea edo espetxean gelditzea, honako irizpide hauek gidatu behar dute osasun mentaleko arazoak dituzten presoen artapena:

1. Osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa lehenetsi behar da. Izan ere, pertsona horiek arazo sozialak izan ohi dituzte osasun arazoekin nahasian, eta tratamendu medikoak ez du arrakastarik izanen ez bazaie erantzuten gizarte inklusioaren arloko premiei.
2. Komunitatearen baitako arretaren alde apustu egin behar da: dagoen arreta komunitarioko sarearen mapa egin, eta zerbitzu horiek askatasunaz gabetutako pertsonen eskura ere jarri.
3. Osasun- eta espetxe-langileen oinarrizko prestakuntzari ekin behar zaio, arreta integral eta koordinatu baterantz aurrera egiteko. Espetxeko langileei osasun mentalaren alderdi nagusiei buruzko oinarrizko prestakuntza ematea lehentasunezko xedea da, arazoen detekzio goiztiarrari eta tratamendu egokiari begira.
4. Arlo anitzeko lantaldeak behar dira, kasuak banaka kudeatu eta tratamendu egokiak eskainiko dituztenak. Nahasmendu mental larrien kasuak oinarrizko osasun laguntzako taldeak artatuko lituzke gorputz-osasunari dagokionez, eta osasun mentaleko taldeak

gainerakoan. Komunitateko baliabide intentsiboagoen beharra dutenean (eguneko ospitaleak, akutuen unitatea, egonaldi ertain edo luzea…) gainerako herritarrek bezala haietara jotzeko modua izan behar lukete; aztertuko litzateke nola lagun egin segurtasuna bermatuta.

5. Osasun mentaleko arazo ez hain larriak dituzten pertsonekin, Espetxeko osasun mentaleko lantaldeak psikoterapia espezifikoko teknikak erabiliko lituzke esku hartzeko, kasuan kasukoak, taldeko psikoterapia ere tartean dela. Osasun mentaleko sare publikoan psikologoek banakako terapiak egiten ahal dituzte, eta hori espetxean ere ezarri behar litzateke.
6. Patologia bikoitzari dagokionez, indartu egin behar da adikzioak tratatzeko sare publiko eta komunitarioko langileekiko lotura hori.
7. Osasun mentalaren sustapenak proaktiboa izan behar du: suizidioari eta depresioari aurrea hartzen dioten programak egin behar dira, medikalizazio hutsean gelditu gabe.
8. Egoera akutuak dituzten pertsonei dagokienez, Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuak badu nahiko baliabide pertsona horiek artatzeko deskonpentsazio uneetan. Beraz, ez litzateke beharrezkoa horretarako unitate berriak sortzea, salbuespenezko kasuetarako hitzarmenak egin badaitezke ere beste autonomia-erkidego batzuekin. Horrelako egoerak ez lirateke inola ere kudeatu behar diziplina-parametroen arabera, eta ez lukete espetxe arloko ondoriorik sortu behar.
9. Arau orokor gisa, komunitateari begirako ereduetarantz jo behar da, eta, berariazko baliabide gehiagoren beharra badago, intentsitate txikikoak lehenetsi, hala nola gizarteratze-etxebizitzak.
10. Adikzio-nahasmenduak dituzten pertsonen taldean, ez da beharrezkotzat jotzen terapia eta hezkuntza unitate bat sortzea. Horren ordez, banakako esku-hartze pedagogikoa indartu behar

litzateke, eta kasu gehiago deribatu kanpoko baliabideetara. Handitu egin behar dira psikologiako eta gizarte hezkuntzako baliabideak. Gazteak erdigunean jarriko dituen esku-hartze berariazko bat planteatu behar da.

11. Adikzio kronikoak dituzten pertsonen ezaugarriei dagokienez, kontuan izan behar da adikzioari gehitutako patologia organikoak izaten dituztela, eta, gainera, kontsumitzeari uztea ez dela epe laburreko helburua. Programa ez oso zorrotza planteatzen ahal da, pertsonaren oinarrizko beharrizanak aseko dituena, kontsumoaren kalteak leunduz eta berrerortzea saihestuz.
12. Aske irteten direnei dagokienez, lehentasunezkoa da laguntzaren jarraitutasuna bermatzea. Horregatik, oinarrizko gizarte eta osasun baliabideetara jotzen lagundu behar zaie, beharrezkoa denean.

Espetxe osasunaren arloko eskumena jaso bezain laster lantaldeak sortu behar dira esku-hartze zehatzetarako, inola ere espetxeratu behar ez liratekeen profilei dagokienez, bereziki: pertsona zaharrak, desgaitasuna duten pertsonak eta nahasmendu mental larria duten pertsonak. Laugarren lantaldea adikzio-arazoen aniztasunaz arduratuko litzateke. Hiru sistemetako langileek osatuko lituzkete lantalde guztiak: osasun, espetxe eta gizarte arloetakoek. Gainera, gizarte zibilak parte hartuko luke. Adikzioen tratamenduari dagokionez, gaur egun bada lantalde bat Nafarroako osasun mentaleko sarean adikzio-nahasmenduetarako arreta nola hobetu aztertzen ari dena[30], eta zama

[30] Nafarroako Osasun Mentaleko Planaren 14. helburua da "Adikzio-nahasmenduen eta patologia bikoitzaren artapen integrala hobetzea Nafarroako osasun mentaleko sarean. Ekintza-ildoak: adikzio-nahasmenduetarako zeharkako laguntza programa berrikusi eta eguneratzea, eta zirkuitu integral eta integratu batean sartzea baliabide guztiak, propioak eta itunduak, adikzio berriak eta patologia bikoitza barnean hartuta, biztanle talde honi arretarik egokiena eskaintzeko. http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/F349F797-9858-4326-8974-2EF2B7812FCB/449137/PlanSaludMental201923NAVEGABLE3.pdf

judizialak dituzten pertsonen multzoa oso garrantzitsutzat jotzen du, eskaintzen zaien esku-hartzea berrikusteko eta hobekuntzak planteatzeko. Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak lantalde horretan lagundu behar luke, adikzioak dituzten paziente horientzako esku-hartzearen birplanteamendura ezarriz baliabide komunitarioetan, eta hala arreta anbulatorioa nola intentsitate handiagoko baliabideak hobetuz, bai eta gizarte- eta lan-alderdiarekin eta bizilekuarekin zerikusia duten baliabide soziosanitarioen eskuragarritasuna ere.

## Hezkuntza

Esan den moduan, helburua da kanpoan dagoen prestakuntza eskaintza bera lortzea; hortaz, hezkuntzarako eskubidean berdintasun hori bermatzearren, kontuan hartu beharko litzateke Pamplona I espetxeko presoen mugikortasuna handia dela, eta, horren ondorioz, prestakuntza beharrak ikasturte batetik bestera asko aldatzen direla.

Honako neurri zehatz hauek proposatzen dira:

1. Irakasleen plantillak egokitzen segitu, ikasturte bakoitzean espetxean dauden pertsonen prestakuntza beharrak hauteman ondoren.
2. Sarbide librea eman espetxeko liburutegira eta Nafarroako liburutegi publikoen katalogora.
3. Prestakuntza eskaintza handiagoa emateko modua aztertu, batxilergoa eta erdi eta goi mailako heziketa zikloak ikasteko aukera erraztuz eta sustatuz, betiere presoen profilak aukera hori ematen duen neurrian.

4. Unibertsitate mailako ikasketak erraztu, UHUNen urrutiko hezkuntzako plataforma (ALF) Iruñeko espetxean ezarriz.
5. Informatikako eta hezkuntza digitaleko baliabideen eskuragarritasuna hobetzen segitu. 2021-2022 ikasturtean, informatika gela bat jarri da martxan, eta horrek presoen gaitasun digitala hobetzen lagunduko du.
6. Nafarroako Unibertsitate Publikoa espetxeko hezkuntza jardueretan partaide egin.

## Gizarte zerbitzuak

Gizarte inklusiorako eskubidea baldintza berdinetan bermatu behar zaie espetxeratu guztiei. Aurrean esan den moduan, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat eta izaera unibertsalarekin ezartzen du "*erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta akonpainamendu pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, alderdi guztietan, halako moduan non pertsona guztiek izanen baitituzte aukerak eta behar diren bitartekoak bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean osotara parte hartzeko, eta Nafarroako gizarte osoarekiko egokia den bizi eta ongizate mailaz gozatuko baitute*". Beraz, eskubide hori presoentzat ere bermatuta dago eta bete egin behar da haiek espetxean dauden bitartean. Preso gehienek jasaten dituzten gabeziak direla-eta, gizarte inklusiorako eskubide horri arreta berezia jarri behar diote Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek eta gainerako administrazioek, Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren koordinazioaren eta arduraren pean. Zerbitzu horren eredua azterlan honetan garatzen da.

Oinarrizko printzipioen atalean eta ildo estrategiko honen justifikazioan azaldutakoaren arabera, gizarte inklusiorako eskubidea

gizarteratzeko eskubidearekin lotu behar da, ulerturik gizartean erabat eta egiaz txertatzera bideratutako laguntzak eta banakako akonpainamendua jasotzeko eskubide horren bitartez gauzatzen dela Nafarroan Konstituzioaren 25.2 artikulua.

Gako-ekintza gisa, honako hauek lehentasunezkotzat jotzen dira:

1. Gizarte zerbitzuen koordinazio eta esku-hartze egokiak eratzea, erabil daitezkeen prestazio eta programa guztietarako irispidea bermatzeko. Espetxeratuen historia sozialak kanpoko historia sozialarekin uztartuta egon behar du. Asmoa da Espetxeko gizarte zerbitzuak erabat integratzea kanpoko sarean. Espetxeko erizaindegia Osasunbideko oinarrizko laguntzako zentro bilakatu behar den bezala, gizarte zerbitzu espezializatu bat eratu behar da espetxean.
2. Gizarte langileen eta gizarte hezitzaileen kopurua handitzea Espetxean, Nafarroako Administrazioko langile publikoak atxikiz edo gizarte zerbitzuekin hitzarmenak eginez zuzenean esku har dezaten Espetxean.
3. Preso guztien erroldatzea bermatzea. Asmoa da gizarte eskubideetarako irispidea ez dadila galdu edo zaildu espetxean sartzeagatik. Hori saihestu ahal litzateke baldin eta gizarte zerbitzuek onartuko balute espetxeratzearen ziurtagiria Nafarroan bizi izatea frogatzen duen dokumentu bat dela. Edota Espetxea premiatuko balitz presoak erroldatu ditzan, hala eskatzen badute. Gainera, presoek espetxeratu aurretik bizi ziren helbidean erroldaturik segitu ahal dute, nahi izanez gero[31]. Nolanahi ere, inoiz ez lirateke errolda dela-eta ukatu behar eskubide sozialak.

[31] 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionaleko Lehendakaritzarena eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarena, udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal errolda kudeatzeko, 3.4 puntua. "Presoak erroldatzea. Presoa espetxea dagoen

4. Prestazio eta zerbitzuetarako irispidea bermatzea mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonei.
5. Etxebizitza babesturako egiazko irispidea eskaintzea.
6. Gizarteratzen laguntzeko etxebizitzetako toki kopurua handitzea.
7. Egokiro koordinatzea laneratze politikak.
8. Lanpostu duinak sortzea espetxean.
9. Presoen lan-kooperatibak partaidetza publikoarekin sortzeko aukera baloratzea, gutxiegi baliatu izan diren Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 27.c eta 32. artikuluei helduta.
10. Presoen eta preso ohien beharrizanak berariaz jasotzea Nafarroako administrazio guztien zerbitzu-zorroetan eta gizarteratzeko estrategia eta planetan. Zehazki, Nafarroako hurrengo gizarteratze plan estrategikoan aintzat hartu behar litzateke Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzua.
11. Gizarte Errealitatearen Behatokiak aztertu egin behar ditu presoen eta preso ohien gizarte premiak.

Helburu estrategiko honetan –"Arreta-parekotasuna bermatzea osasunean, hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan, edozein diskriminazio desagerraraziz"– espetxeak emakumezkoak ez diskriminatzea lortzeko neurriak ere sartzen dira, genero-ikuspegia zeharka txertatzearen printzipioarekin bat. Beste alde batetik, sexu-identitate eta -joeragatiko

udalerrian erroldatu, presoak berak eskatuta baino ezin izanen da egin. Presoak nahitaez erroldatzea onartuko balitz, beste zigor bat erantsiko litzaioke espetxealdiari, eta hori berariaz aurreikusita ez dagoenez, Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluaren kontrakoa litzateke. *A sensu contrario*, presoek eskubidea dute erroldarako esleitzen duten bizilekua hautatzeko ohiko bizilekutzat; ez da, beraz, benetako egoitza kasu honetan aplikatu beharreko irizpidea. Muga bakarra ezar daiteke horri dagokionez: erroldarako hautaturiko bizilekuarekin loturarik ez izatea, edo izandako lotura amaitu izana (adibidez, presoarekin loturarik ez duen beste familia-talde bat bizi delako etxebizitzan, edo harekin inskribatuta ageri diren pertsonek baja eskatzen dutelako modu justifikatuan".

diskriminazioa saihesteko giltzarri diren ekintzak jasotzen dira, bai eta biztanle migratzaile eta arrazializatuei dagozkien neurriak ere.

## Generoa

Espetxea bezalako esparru batean genero-ikuspegia txertatzeak ekintza sail bat eskatzen du, bermatu egin dadin lege hauek betetzea: apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa, eta apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa. Zigor betearazpenaren arloan emakumeek bestelako premiak dituztela ez aitortzea edo ez jakitea, hala sisteman sartzeko baldintzei nola egonaldiari eta irteerari dagokienez, zuzendu beharreko egoera da. Ekintza eta programa jakin eta mugatu batzuk salbu (espetxe arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzen programa), ez da berariazko programa orokorrik garatu emakumezko presoei, haien beharrei eta eskariei erantzuteko, haiek ere partaide eginez. Ez da orain arte bultzatu espetxe arloko genero-estrategia orokorra, emakumeen beharrizanen berariazko azterketatik abiatzen dena. Espetxeen plangintza eta kudeaketa gehiengoari begira daude, gizonezkoei hain zuzen ere, eta egoera aldatu egin behar da genero-ikuspegiaren zeharkako aplikazioa dela medio.

Emakumeen espetxe egoeraren bereizgarria da gizonezkoek baino sakabanatze geografiko handiagoa izatea, espetxe gutxi batzuetan elkartu dituztelako; alegia, zailtasun handiagoak dituzte beren sustrai edota afektu guneetatik hurbileko espetxe eta egoitzetan kondena bete ahal izateko, eta kondenaren azken faseak erregimen erdi-askean betetzeko aukera material gutxiago dituzte, beren ohiko bizilekutik hurbileko egoitza egokirik ezagatik.

Carmen Juanatey Dorado egilearen hitzetan, "*gizonezkoen aldean, emakumezkoen espetxe betearazpeneko sistemaren ezaugarria da espazioen prekaritate handiagoa eta, ondorioz, ostatu baldintza kaskarragoak, familia eta lagunengandik urrutiago egotea, espetxe barnean sailkapen irizpideen araberako bereizketarik ez izatea, zailtasun gehiago izatea tratamendu programetan sartzeko edo lantegietako zenbait lanetan aritzeko, eta abar*"[32].

Emakumeek beste era batera bizi izaten dute espetxealdia, eta horregatik ondorioztatzen da bestelako neurriak eta konponbideak sustatu behar direla haientzat, jakina baita –azpimarratzen du– ez dela aski berdintasun formalaren aitorpen osoa. Espetxe esparruan badira, izan ere, legezko zenbait diskriminazio, eta horiek berrinterpretatu egin behar dira indarra duten genero-berdintasunari buruzko legeekin bat etorriz. Hala, adibidez, gizonezkoei ere aplikatu behar zaie Espetxe Erregelamenduaren 82.2 artikulua[33].

Genero-ikuspegia txertatzeak berekin ekarri behar du espetxe sistema osoa zeharkatzen duten ekintzen multzo bat. Horien artetik hauek nabarmenduko ditugu:

1. Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuan berdintasun printzipioa zeharka txertatzeko plana egitea.
2. Genero-indarkeriaren aurkako prebentzioa eta sentsibilizazioa bermatzea, bai eta detekzioa, laguntza integrala, babesa, justiziarako irispidea eta erreparazioa ere, genero-indarkeria jasan

[32] Emakume presoen egoerari buruzko APDHAren txostenean aipatua (2020). https://apdha.org/media/Informe-APDHA-situacion-mujer-presa-web.pdf

[33] "Hirugarren graduan sailkatutako emakume zigortuen kasuan, egiaztatzen bada emakume batek ezin duela kanpoan lan ordaindurik egin, baina jasorik geratzen bada, kasuan kasuko gizarte zerbitzuek aldez aurretik txostena emanda, emakume hori etxeko zereginetan arituko dela bere familia-bizilekuan, etxeko jarduera hori kanpoan egindako lantzat joko da."

duten emakumeentzat eta, hala behar denean, haien seme-alabentzat.

3. Ikuspegi feministatik gizarte eta hezkuntza lantegiak planifikatu eta egitea, generoa, indarkeria, ahizpatasuna, generoaren eta jokabide kriminalaren arteko lotura eta horrelako gaiak jorratzeko.
4. Hirugarren gradua edota baldintzapeko askatasuna betetzeko baliabideak bilatzea emakumeentzat eta, berariaz, seme-alabak dituzten emakumeentzat, beste baliabiderik ez dutenean.
5. Adingabeak genero-ikuspegiarekin babestea, halako moldez non ama edo aita batek ere ez dituen bere seme-alabak galduko espetxeratzearen ondorioz (salbu eta adingabeak babesteko beharrezkoa denean). Seme-alaben bisiten baldintzak hobetzea, gizatasunaren printzipioari jarraituz. Zaintza lanak berdintasunez banatzea sustatu behar da.
6. Zigorra betetzeko familia-unitateak sortzeko aukera aztertzea.
7. Berdintasuna lanpostuak eskuratzeko garaian; lanpostuok genero-rolak hautsi beharko dituzte.
8. Generoaren arloko etengabeko prestakuntza ematea espetxeko langileei.
9. Komunikazio eta agiri guztietan hizkera inklusiboa erabiltzea.

Helburu estrategiko honetako gako-ekintzen zerrenda bukatzeko, aipatu beharrekoa da eskubide-berdintasunaren sustapena sexu-identitatearen eta -joeraren aniztasunari dagokionez eta pertsona migratzaile eta arrazializatuei dagokienez.

**Sexu-identitatea eta -joera.**

Oinarri hartu behar dira ekainaren 19ko 8/2017 Legea, Nafarroako LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa, eta hura garatzeko Ekintza Plana, eta zigor betearazpenaren arlora ekarri behar dira. Nafarroako Gobernuak bere departamentu guztietan bermatu behar du foru lege hori betetzea eta eraginkor bihurtzeko baldintzak sustatzea zeinek bere eskumeneko eremuan. Beraz, LGTBIQ+ kolektiboen eskubideen errespetua bermatu egin behar da espetxean.

1. Sexu-joerari, generoaren eta sexu-identitatearen adierazpenari, generoaren adierazpenari eta LGTBI+ elkarte-mugimenduari buruzko ekintza positiboak babestu behar dira.
2. Beharrezkoak dira egoera espezifikoaren azterketa eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekiko koordinazio berariazkoa.
3. Prestakuntza-prozesu, sentsibilizazio-ekintza eta jarduketa-protokolo berariazkoak ezarri behar dira.

## Pertsona migratzaile eta arrazializatuak.

Biztanleria arrazializatu eta migratzailea gainordezkatuta dago espetxeetan, ez atzerritarrek delitu gehiago egiten dituztelako, baizik eta egiturazko eta legezko gorabehera jakin batzuek haien espetxeratzeak gehitu eta haien gizarteratzea zailtzen dutelako. Esate baterako, behin-behineko espetxealdia ohikoagoa da kolektibo horretan, baimenak ukatu egiten zaizkie beren egoera administratiboa dela-eta, gizarte bazterketa handiagoa jasaten dute, etab.

Biztanle horien eskubide-berdintasuna sustatze aldera, honelako ekintzak behar dira:

1. Gizarteratze politiken eta migrazio politiken arteko koordinaziorako neurriak aplikatzea (gaur egun biak departamentu berean daude).
2. Migratzaileen erregularizazioa sustatzea, eta, gizarteratu direla egiaztatuz gero, migratzaileak lurraldetik automatikoki kanporatzea saihestea, legeria indardunari jarraituz. Jurisprudentziak egin izan duen bezala[34], honako hau sustatu behar da: zigor betearazpeneko kanporatzea edo aurrekari penalen ondoriozko kanporatzea gauzatzeko (kanporatze administratiboa), justifikatu behar izatea pertsona mehatxu egiazkoa eta nahiko larria sortzen ari zaiela ordena publikoari eta segurtasun publikoari, eta aintzat hartzea zenbat denbora daraman Espainian bizitzen, zer lotura egin dituen, adina, interesdunari eta haren familiari sortuko zaizkien ondorioak edota helmugako herrialdearekin dituen loturak.
3. Atzerritarrak bidegabeki zigortzen dituzten Arrisku Aldagaien Taulak birformulatzea. Immigratzaileei AAT horiek aplikatzea, gaur egun aurreikusten den bezala, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluaren kontrakoa da argi eta garbi. Gainera, ez dio jarraitzen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziari (Albarracín auzia, besteak beste). Espetxe kudeaketarako tresna bat da, jarraibide baten bidez ezarria (22/1996 Jarraibidea, 1/2012 Jarraibidearekin lotuta), eta aldatu egin liteke behin transferentzia jasotakoan, Nafarroak antolatuko bailuke atzerritar zigortuak gizarteratzeko bere politika.

[34] Ikus Murtziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 483/2017 Epaia, 2017ko uztailaren 24koa

## *2. helburu estrategikoa. Aurrea hartzea torturari eta zigor edo tratu anker edo apalesgarriei.*

Aurreko helburu estrategikoa garatzeko, jarduketa positiboak egin behar dira presoen eta gainerako herritarren arteko eskubide-berdintasuna lortzeko. Bigarren helburu estrategiko honetan, berriz, legezko betebeharrekin bat etorriz, Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluaren urraketen prebentzioari jartzen zaio arreta. Artikulu horren arabera, botere publiko guztien betebeharra da pertsona guztien osotasun fisikoa nahiz morala bermatzea, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarririk ere. Manu horrek giltzapean daudenentzat duen garrantzi berezia dela-eta, torturaren prebentziorako nazioarteko eta estatuko sistema bat sortu da. Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalak –Espainiako Arartekoaren mendekoa– eta Torturaren eta Tratu Anker edo Apalesgarrien Prebentziorako Europako Komiteak –Europako Kontseiluaren mendekoa– emandako gomendioek gidatzen dituzte helburu hau betetzeko seinalatzen diren gako-ekintzak.

**Gako-ekintzak:**

1. Iruñeko Espetxeko langileen etengabeko prestakuntza indartzea, pertsonen eta taldeen arteko gatazkei nola heldu ikas dezaten.
2. Gatazkak ebazteko espetxe bitartekaritza ezartzea, espetxeari loturik ez dauden entitateek kudeatua. Espetxe barneko bizikidetzan gerta daitezkeen barne gatazkei ikuspegi errestauratibotik heldu behar zaie.
3. Bakarraldia espetxeko diziplinazko zehapen gisa gutxiago baliatzeko ekintzak ezartzea. Espetxe barneko segurtasun politika egokia sustatu behar da, presoen tratamendu-jardueren eta funtzionarioen lan-egoeraren hobekuntzan oinarritua. Hartara

espetxeko bakartze zigorra gutxitan erabiltzeko edo sekula ez erabiltzeko politikarantz jo liteke. Osasunarentzat guztiz kaltegarria denez gero, bakartzea kasu bakanetan soilik aplikatu behar da, eta erakundeak bestelako erantzunak eman behar dizkie gatazkei, diziplina-ahalaren esparruan pertsona kondenatuen ardura eta beren burua kontrolatzeko gaitasuna piztu ahal izateko. Nolanahi ere, ziegan bakartzearen zigorra aplikatzen jarraitzen den bitartean, sekula ezin izanen da gainditu hurrenez hurreneko 14 eguneko bakarraldia, eta zigor horren araubideak bermatu egin behar du behar adina ordu ematen direla ziegatik kanpo. Bakartzearen nondik norakoen berri eman beharko da: xehetasunak, justifikazioa, bakartutako pertsonarentzako informazio juridikoa. Gainera, haren osasunaren jarraipen medikoa eginen da eta etengabeko informazioa emanen zaie ahaide eta hurbilekoei.

4. Ildo beretik, segurtasun politika horrek oso kasu bakanetan erabili behar du espetxeko bakarraldia hertsagarri gisa. Nolanahi ere, hura aplikatzen jarraitzen den bitartean beraren nondik norakoen berri eman beharko da: xehetasunak, justifikazioa, bakartutako pertsonarentzako informazio juridikoa. Gainera, haren osasunaren jarraipen medikoa eginen da eta etengabeko informazioa emanen zaie ahaide eta hurbilekoei.
5. Bideozaintzako mekanismoak ezartzea, torturaren prebentziorako erakundeen aholkuei jarraituz.
6. Bakartze zigorraren erabilera erabat debekatzea nahasmendu mentalak dituzten pertsonen kasuan (Prebentzio Mekanismo Nazionalak horixe gomendatu zuen 2014an, halako praktikak kasu horietan torturak zirela iritzita).
7. Espetxe Erregelamenduaren 75. artikuluaren aplikazioa mugatzea, Prebentzio Mekanismo Nazionalaren gomendioak oinarri.

**8.** Euspen mekanikoak kentzea. Erakunde askok adierazi dute euspen mekanikoek kalte larria egiten dietela pertsonen osasun fisiko eta psikologikoari. Nazio Batuek esan dute tortura eta tratu txartzat ere har daitezkeela. Gainera, ohartarazi izan da badaudela euspen mekanikoaren ordezko baliabideak, eta horrelakoak sustatu behar direla.

**9.** Gizarte zibila bultzatzea torturari aurrea hartzeko eginkizunetan parte har dezan, bai eta legezko betebeharrak betetzen ote diren eta askatasunaz gabetutako pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzen ote diren zaindu eta kontrolatzeko eginkizunetan ere, Nafarroako administrazioen mende dauden askatasunaz gabetzeko toki guztietan.

**10.** Aztertu behar litzateke "presoen eskubideen tokiko bermatzaileak" sortzeko aukera, herritarrek eskubideen sustapenean parte har dezaten toki eremuan. Figura hori Italiako espetxe legerian ezarri da, eta honetan datza: pertsona entzutetsuak izendatzea, beren borondatez jarduten dutenak, presoen eskubideak betetzen ote diren zaintzen. Espetxerako sarbide librea izan behar dute, eta agintarientzako gomendioak eta txostenak ematen dituzte[35].

**11.** Espetxeko langileen lan baldintzak hobetzea, haien segurtasuna eta laneko osasuna bermatuz eta, halaber, burn-out sindromeari aurrea hartzeko programak, langileria kudeatzeko partaidetzazko

[35] Tokiko eskubide-bermatzaileen gaineko argibide gehiago bilatzeko, ikus "Descarcelación. principios para una política pública de reducción de la cárcel", Iñaki Rivera Beirás-ena. 2017. Adibide gisara, Italiako legeak honako eginkizun hauek esleitzen dizkio Erromako presoen eskubideen bermatzaileari: "*Bermatzaileak, behaketa eta zeharkako gainbegiratze lanak direla medio, bizitza zibilean parte hartzeko eskubide eta aukeren erabilera eta udal zerbitzuen erabilera sustatzen ditu askatasunaz gabetuta egon eta Erroman helbidea, bizilekua edo etxebizitza duten pertsonen artean, aipamen berezia eginez oinarrizko eskubideei, lanari, hezkuntzari, kulturari, osasunaren babesari, kirolari (...). Askatasunaz gabetutako pertsonen eskubide-urraketei, bermeei eta prerrogatibei buruz jakiten dituen berriei dagokienez, informalak izan arren, Bermatzailearen informazioak interesekoak izanen dira agintaritza eskudunentzat (...)*"

prozesuak eta hazkunde profesionalerako aukera gehiago ezarriz (giza baliabideen alorreko beste neurri batzuen artean), lan segurua, gogobetegarria eta gizartearen oniritzia duena sustatzeko. Gorago ere adierazi den bezala, Prebentzio Mekanismo Nazionalak gomendatzen du apustu egitea "harreman eraikitzaileak sortzeko langileen eta presoen artean, zeren eta horrek tratu txarren arriskua gutxitu eta haien lana gogobetegarriago bihurtzen baitu".

**12.** Administrazioaren, sindikatuen eta gizarte zibilaren ordezkariekin batera gogoetan eta lanean aritzeko taldeak sortzea, espetxeko gatazkak gutxitze aldera.

## 2. ildo estrategikoa

# Erantzun komunitarioak eta askatasuna kentzen ez duten zigorrak lehenestea

**1. helburu estrategikoa. Zigor sisteman sartzen diren gatazkak gutxitzea.**

**2. helburu estrategikoa. Askatasuna kentzen ez duten zigor neurrien ezarpena sustatzea.**

### Justifikazioa

Esku-hartze txikienaren printzipioaren arabera, egoera gatazkatsuen aurrean, zehapenik gabeko baliabideak erabili behar dira lehendabizi; eta horrelakoak aski ez direnean soilik izanen da egokia zigor zuzenbidera jotzea. Zigor sistemaren barnean arau orokor gisa erabili beharko dira askatasuna kentzen ez duten zigorrak, eta azken baliabide gisa espetxealdia. Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak esku-hartze txikienaren printzipioari jarraitzen dio zalantzarik gabe, eta horregatik ahalegintzen da baliabide penalen bitartez kudeatzen diren gatazkak gutxitzen eta askatasunaz gabetzen ez duten erantzunak gehitzen. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean, zigor betearazpeneko zerbitzu batek bere burua mugatzera eta murriztera jo behar du, zigor zuzenbide ahalik eta mugatuena lortzen saiatuz. Zer den delitua erabakitzeko ahala (legegintza) eta zigorrak ezartzeko ahala (jurisdikzioa) Nafarroako Gobernuaren eskumenetik kanpo daude; Nafarroako administrazioen eskumenek, hala ere, lagundu ahal dute eta lagundu behar dute zigor zuzenbide mugatuena lortzen, gatazken penalizazioaren ordezko bideak eskaintzen herritarrei eta eragile juridikoei. Ildo estrategiko

honek, beraz, punitibismorik gabeko etorkizunerantz aurrera egiteko eta espetxe zigorraren erabilera gutxitzeko eskatzen digu. Espetxe zigorra *ultima ratio* izateaz gain, utzi egin behar zaio uste izateari bide penala gizartearen arazoen konponbidea dela, gaiztakeriaren kausa zigor nahikorik eza dela. Horren ildotik, saihestu egin behar da sare penalaren hedapenaren efektua ("widening the net" efektua delakoa), espetxearen ordezko zigorren gehiegizko erabilerak eragindakoa. Dokumentu honetan "erantzun komunitarioak eta askatasuna kentzen ez duten zigorrak" terminoa erabiltzearen aldeko hautua egin da, "ordezko zigorrak" baztertuta, azken adierazpide horrek okerreko uste bat indartzen duelako, alegia, espetxea izan behar dela zigor nagusia, eta bestelako zigorrak, berriz, bigarren mailako aukerak baino ez. Erantzun komunitarioez hitz egitean, erreferentzia egiten zaio lehenengo eta behin eremu penaletik kanpoko eta izaera komunitarioko bideak sustatu beharrari. Horiek ezinezkoak direnean bakarrik joko da askatasuna kentzen ez duten zigorretara.

Kriminologiako literaturak, Europako Kontseiluaren gomendioek eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiek hemen aurkezten ari den ildo estrategikoaren alde egiten dute, hots, eskubideak ahalik gutxien murrizten dituzten konponbideak lehenestearen alde. Hala, José Cid irakaslearen *"La política criminal europea en materia de sanciones alternativas a la prisión y la realidad española: una brecha que debe superarse"* artikuluak sakonean jorratzen du Europako araudia, eta espetxea azken baliabide gisa baizik erabili behar ez delako printzipioa giza eskubideen parte dela planteatzen du, kontuan izanik espetxearen kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko izugarria[36].

[36] Cid, José: *La política criminal europea en materia de sanciones alternativas a la prisión y la realidad española: una brecha que debe superarse*. Estudios Penales y Criminológicos, XXX. libk. (2010). Servizo de Publicacións da Universidade de Santiago de Compostela. ISSN: 1137-7550; 55.-83. or.

Hain zuzen ere, Europako Espetxe Arauek diotenez, "Inori ezin zaio kendu bere askatasuna, beste baliabiderik ez dagoenean izan ezik"[37], eta printzipio hori Europako Kontseiluaren beste testu batzuetan ere agertzen da; esaterako, espetxeetako gainpopulazioari eta espetxe inflazioari buruzko (99) 22 Gomendioan, edo 2016ko "Espetxeetako preso pilaketari buruzko Liburu Zuria" dokumentuan. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere gauza bera baieztatu du *Varga eta beste batzuk v. Hungaria* auziko 2015eko martxoaren 10eko epaian, besteak beste, baita Europako Oinarrizko Eskubideen Agentziak ere *Criminal detention and alternatives: fundamental rights aspects in EU cross-border transfers*[38] txostenean, 2016an.

Esku-hartze txikienaren printzipioak eskatzen du, beraz, arlo penaletik kanpoko eta izaera sozialeko konponbideak sustatzea eta, horiek nahikoa ez direnean, askatasunaz gabetzen ez duten erantzun penalak ematea. Horregatik, Europako Kontseiluak horrelako erantzunak sustatu ditu Zehapen eta Neurri Komunitarioei buruzko Europako Arauez 1992an emandako gomendioan eta baldintzapeko askatasunaz 2003an emandako gomendioan, besteak beste.

Europar Batasunak ere espetxearen ordezko zigorrak lehenetsi ditu duela gutxi dokumentu honetan: *Kontseiluaren konklusioak, espetxeratzearen ordezko neurriak direla-eta: askatasuna kentzen ez duten neurriak eta zehapenak erabiltzea justizia penalean* (2019/C 422/06, 2019ko abenduaren 16koa)[39]. Estatu kide guztiek onetsitako testu horretan honako hau azpimarratzen da:

[37] Recommendation (2006) 2, European Prison Rules, 2006ko urtarrilaren 11, zioen azalpena.
[38] http://fra.europa.eu/en/publication/2016/criminal-detention-and-alternatives-fundamental-rights-aspects-eu-cross-border
[39] https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=OJ:JOC_2019_422_R_0006&from=ES

> *"Espetxea azken baliabide gisa (ultima ratio) soilik erabili behar delako ideiak adostasun zabala bildu du. Askatasuna kentzen ez duten neurriak eta zehapenak espetxearen ordez aplikatzeak –bidezkoa denean, eta kasu bakoitzeko inguruabar bereziak aintzat hartuta– hainbat onura ekar dezake, aspaldi-aspalditik ikerketek erakutsi dutenez.*
>
> *Espetxearen ordezko neurrien funtzio garrantzitsu bat da delitugilearen birgaitze soziala eta gizarteratzea sustatzea, horixe baita honelako neurrien aplikazioaren helburu nagusietako bat. Ordezko neurri hauek badituzte beste alde on batzuk, batez ere berrerortzeak gutxitzen dituztelako eta, horrenbestez, segurtasun publikoa areagotzen dutelako. Delitugilearen mesedetan aplika daitezke, baina mesede egin diezaiekete biktimei, etorkizuneko balizko biktimei eta gizarte osoari ere."*

Adikzio arazoak dituzten pertsona zigortuei berariaz erreparatuta (kopuru aldetik duten garrantziagatik), Europar Batasunak bereziki sustatzen ditu ordezko neurriak honako dokumentu honetan: Kontseiluaren Konklusioak, drogak kontsumitzen dituzten delitugileentzat hertsatze-zehapenen ordezko aukerak erabiltzea sustatzekoak (2018ko martxoaren 8a)[40]. Erabaki horretan EBko 28 estatu kideen borondate politikoa adierazten da hertsatze-zehapenen ordezko neurriak aplika daitezen sistema juridikoetan, helburu honekin:

- Delituei aurrea hartzea.
- Berrerortzeak gutxitzea.

[40] https://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-6931-2018-INIT/es/pdf

- Justizia penaleko sistemaren efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea.
- Osasunarekin zerikusia duten kalteen murrizketa eta arrisku sozialen gutxitzea kontuan hartzea.

Beraz, esku-hartze txikienaren printzipioa aplikatzearen eta espetxearen ordezko neurriak erabat garatzearen aldeko apustuak badu oinarri sendoa legeria nazionalean, Europako legerian eta kriminologiako ikerlanetan. Hala ere, aipatu beharra dago nola zenbait egilek ohartarazi duten gerta litekeela ordezko zigorrekin espetxearen erabilera murriztu beharrean sare penalaren hedadura eta intentsitatea handitzea[41], eta horregatik behar-beharrezkoa dela zigor betearazpenaren eredu zinez murriztaile bat taxutzea, lehenengo eta behin zigor arlotik kanpoko konponbide komunitarioak aplikatzen ahaleginduko dena.

Horrexetarako planteatzen dira hurrengo helburu estrategikoak.

## *1. helburu estrategikoa. Zigor sisteman sartzen diren gatazkak gutxitzea.*

Gatazkak gizarteko bizitzaren ezinbesteko osagai dira, eta herritarrek berek ebatzi ohi dituzte beren kabuz. Herritarrek beren arteko tirabirei konponbide egokia bilatzerik lortzen ez dutenean Estatuko organo espezializatuetara jotzen dute: epaitegi eta auzitegietara. Azken urteotan "zigor zuzenbideranzko ihesa" gertatu da, ez bakarrik legegileek gero eta

[41] Aebi, Marcelo, et al. *Have community sanctions widened the net of European criminal justice systems.*

gatazka gehiago sartu dituztelako zigor arloan, baizik eta, gainera, gero eta pertsona gehiagok jartzen dutelako salaketa, gatazkak beren kabuz ebatzi ezinik. Auziak judizializatzera jotzen duen giro politiko eta mediatikoa edo gizarteko eta familiarteko loturen ahulezia egon daitezke salaketa penalen gehikuntza horren atzean. Dena dela, egoera aztertu behar litzateke, eta hura orekatzen ahalegindu. Askotan, gatazka judizializatuak osasun mentalarekin, adikzioekin edo gizarte bazterketarekin lotutako kausak atzean dituzten arazoak izaten dira. Zigor arlotik kanpoko konponbideen aplikazioa behean aurkezten ditugunen antzeko jarduketen bidez sustatzen ahalko litzateke.

Justizia errestauratiboa da lehen helburu estrategiko honen ardatzetako bat, bi eratara erabil baitaiteke: zigorraren ordezko aukera gisa, bitartekaritza komunitarioko prozesuak sustatuz; eta zigor sistemaren osagarri gisa, judizio barneko justizia errestauratiboak eskaintzen dituen ahalbide guztiak garatuz delituen artxibatzea sustatzeko, egokitasun printzipioa aplikatuta. Jada adierazi denez, helburu estrategiko hau bat dator Justizia Ministerioaren 2030 Justizia Planarekin eta izapidetzen ari den araudi prozesal berriarekin (Prozedura Kriminalaren Lege berria).

Hori dela eta, gako-ekintza hauek proposatzen dira:

## Gako-ekintzak

1. **Justizia errestauratibo komunitarioaren prozesuak bultzatzea gatazkak desjudizializatzeko.**

Bitartekaritza komunitarioa eta justizia errestauratiboaren beste forma batzuk, hala nola zirkulu komunitarioak, izaera orokorrarekin ezarri behar dira. Erantzukizun publikoko zerbitzuak ezarri behar dira, baina herritarrek inplikazio handia izan behar dute haietan. Hurrengo gako-ekintzan ez bezala, honetan ez dago loturarik sistema judizialarekin, aitzitik, auziak auzitegietatik kanpo ebazten dira auzitegiak saihesteko. Adibide gisa Finlandiako bitartekaritza eredua proposatzen da, nahiz eta Nafarroak bere eredu propioa garatu beharko duen, zeinak, betiere, parte-hartze komunitario sendoaren eta politika sozialekiko loturaren beharra izanen baitu.

1. taula. Finlandiako bitartekaritza eredua.

Eredu honek bitartekaritza komunitario unibertsala eskaintzen die herrialdeko biztanle guztiei. Zerbitzu publikoa da, eta funtzionarioen ardurapean daude kudeaketa, koordinazioa eta prestakuntza, baina boluntarioak arduratzen dira bitartekari aritzeaz edo esku-hartze errestauratiboak (zirkuluak) egiteaz. Boluntario horiek behar bezala trebatuta daude, eta ordain txiki bat jasotzen dute bitartekaritzari ematen dioten denboragatik.
Nafarroan antzeko zerbitzu bat ezartzen ahal litzateke, Justizia Zuzendaritzak koordinatua, zeinak kasu honetan tokiko lana eta boluntarioen prestakuntza izanen bailituzke zeregin nagusiak.

| |
|---|
| Zerbitzu hori gizarte zerbitzuekin koordinatu behar litzateke, gatazka ez oso larrietarako konponbide sozialak bilatzeko, eta ez penalak. Polizia komunitario edo auzo-poliziekin ere lotu behar litzateke, eta haiek deribazioak eginen lituzkete; baita kulturen arteko bitartekaritzarako dauden programekin ere. |

2. **Judizio barneko justizia errestauratiboaren irismena handitzea.**

Gatazkak esparru komunitarioan ebatzi ezin direnean ere –ez delako konponbiderik aurkitzen edo Fiskaltzak esku hartzeko bezain larriak direlako–, judizio barneko konponbideak susta litezke ikuspegi errestauratibotik. Justizia errestauratiboak askatasunaz gabetzen ez duten erantzunak gehitzeko duen ahalmena ederki berretsita dago doktrinaren nahiz praktikaren bidez hainbat herrialdetan, Justizia Errestauratiboaren Europako Foroak egindako dosierrean ikus daitekeenez[42].

Nafarroan judizio barneko justizia errestauratiboaren aldeko apustuari eutsiko litzaioke; horrek berekin ekarriko luke, delitu arinen kasuan, prozedura artxibatzea, zigor prozeduraren 2015eko erreforman jasotako *egokitasun printzipioa* aplikatuta. Delitu arinen kasuan egokitasun arrazoiengatik prozedura largesteko aukera hori berariaz jasorik dago Prozedura Kriminalaren Legearen 963. artikuluan (martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren azken xedapenetatik bigarrenaren Hamar apartatuaren arabera idatzita; lege horrek Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen du). Fiskaltzak prozedura largesteko eska dezake, eta epaitegiak hala dekretatu, zenbait inguruabar biltzen badira: egitatearen ezaugarriak, inguruabarrak

[42] https://www.euforumrj.org/sites/default/files/2020-05/EFRJ_Thematic_Brief_RJ_and_Alternatives_to_Detention.pdf

eta egilearen inguruabar pertsonalak kontuan hartuta, salatu den delitu arinaren astuntasuna oso txikia izatea; eta egitatea pertsegitzeko interes publiko handirik ez egotea –ondare-delitu arinak direnean, horiek pertsegitzeko interes publiko handirik ez dagoela joko da kaltea konpondu denean eta kaltedunak salaketarik jarri ez duenean–[43].

Kontuan izanik ondare-delituengatik ezarritako zigorren kopurua izugarria dela eta mota horretako delitu gutxi bideratzen direla bitartekaritzara[44], askoz gehiagotan aplika liteke artxibatzearen figura hori halako kasuetan.

Horretarako, honelako neurriak ezarri beharko lirateke: judizio azkarretan deribazioak erraztuko lituzkeen protokoloa, Justizia Errestauratiboko Zerbitzuaren baliabideak gehitzea, edo lankidetza-hitzarmenak egitea ebasketek kaltetutako enpresekin.

Horrek ez luke berekin ekarriko Justizia Errestauratiboko Zerbitzua delitu mota horri begira bakarrik aritzea, delitu astunagoetan ere indartu behar baitira errestaurazio prozesuak.

## *2. helburu estrategikoa. Askatasuna kentzen ez duten zigor neurrien ezarpena sustatzea.*

Espainiako zigor sistemak, Mendebaldeko sistema gehienek bezala, beti izan du ardatz askatasunaz gabetzen duen zigor nagusia: espetxe

[43] *Las manifestaciones del Principio de Oportunidad en el proceso penal español The appearance of the discretionary prosecution Principal in Hispanista criminal Producciones* Javier Venancia Mirafuentes dk. Tomas Vicente Ballesteros dk.
[44] Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko Justiziako Gizarte Zerbitzuaren memoria. Nafarroako Gobernua. 2019.

zigorra. Horren ondorioz, oraintsu arte ez da garatu espetxearen ordezko zigor eta neurriak deitzen zaien horien sistema egokirik[45].

Nafarroan bada Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Zerbitzua (SGPMA), Barne Ministerioaren mendekoa, eta horrelako zehapenak kudeatzeko zeregin guztiz finkatua dauka. SGPMA horren indarguneetatik abiatuta, zerbitzu horren ahalmena indartzera bideratutako gako-ekintzak proposatzen dira, epaitegiek mota horretako zigor gehiago ezar ditzaten. Batez ere, askatasuna kentzen ez duten zigorren ezarpena lortu nahi da Iruñeko Espetxean gehiengo diren zigorrei dagokienez:

| Zigorraren iraupena | Presoen kopurua |
|---|---|
| 6 hilabetetik 3 urtera | 118 |

Kondenaren etenduraren egungo arauketak bide ematen du 2 urte arteko zigorren betearazpena eteteko, are zigor aurrekariak egonda, baldin eta aurrekari horiek "ez badute garrantzirik etorkizunean delituak egiteko probabilitatea baloratzeko". Gainera, bi urtetik gorako zigorrak eten egin daitezke 80.3 artikuluko kasuan (bi urtetik gorakoak ez diren banakako zigorrak), 80.4 artikulukoan (gaixorik dauden pertsonak) eta 80.5 artikulukoan (droga-mendekotasuna duten pertsonak).

Gogoan izan behar da, ildo horretan, zigor eta espetxe sistemaren kontrolpeko pertsona gehienak kalteberak direla –askotariko faktoreak direla medio, besteak beste deserrotzea, pobrezia, atzerritartasuna, gizarte bazterketa, droga-mendekotasuna, gaixotasun mentala, edota letradu-zuzendaritza bakarra eta konfiantzazkoa ez izatea Justiziarekiko kontu guztietarako–, eta, horren eraginez, botere publikoen esku-hartzea,

[45] Ikus Cid, J. (2010). *La política criminal europea en materia de sanciones alternativas a la prisión y la realidad española: una brecha que debe superarse*.

arlo honetan, maiz izaten dela zatikatua, koordinaziorik gabekoa eta, azken batean, disfuntzionala, pertsonaren gizarteratzeari begira. Horregatik beharrezkoa da esku-hartze hori gai izatea alderdi kognitiboa, enpatia eta esperientzia uztartzeko, pertsonaren arazoei beren osotasunean ekiteko garaian. Horrela, hasiera-hasieratik landu ahal izanen da pertsona gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide egoki bat, benetako eragina izanen duena hura delitura eraman zuten faktoreetan. Salatutako arazoek egiturazko kausak dituzte, Justizia Administrazioko profesionalen jarduteko ahalbideak baino harago daudenak neurri batean. SGPMA egoki eta indartsu batek, ordea, probation agentzia bilakaturik, sinergiak sortzen ditu, eta horiek errazago eta eraginkorrago bilakatzen dute epaile, fiskal, abokatu eta forentseek zein lantalde psikosozialek epaitegietan egiten duten lana.

SPGMA indartuz gero, handitu egin liteke etendako zigorren kopurua, gako-ekintza hauek direla medio:

## Gako-ekintzak

1. **Indarberritzea egungo Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Zerbitzua (SGPMA), benetako probation agentzia gisara funtziona dezan.**

Zerbitzu berri horrek Zigor Betearazpeneko Zerbitzuan txertaturik egon behar luke, autonomia funtzionalarekin.

Zigor betearazpeneko politikak Espetxe Administrazioaren, gainerako administrazio publikoen eta entitate multzoaren artean partekatutako erantzukizunaren politika izan behar du. Organo judizialak eta zerbitzu komunitarioak (gizarte, osasun eta prestakuntza zerbitzuak) elkarrekin

koordinatzeko organo baten beharra dago. Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuan txertatutako SGPMA indartu horrek hartuko luke bere gain koordinazio eta integrazio lan hori. Hala, Europako Probation Arauetan eta zehapen komunitarioei buruzko Europako Arauetan xedatutakoaren arabera Europako "probation zerbitzuek" dituztenen antzeko ahalmen eta eginkizunak izanen lituzke[46]. Horregatik, haren zereginetan sartuko litzateke aurretiko txostenen bidez diagnostikoa egitea eta kasuen jarraipena egitea, batez ere esku-hartze sendoagoaren beharra dagoenean. "Probation zerbitzu" bat edukitzeak aukera ematen du pixkanaka botere publiko guztiak lanean jar daitezen delituari aurre egiteko bestelako bideak sustatzen, delitugilea berriz gizarteratzea errazten dutenak, gizartetik bereizten lagundu ordez. Zerbitzuaren eginkizunak lau arlotan gauzatuko lirateke:

- ***Organo judizialei dagokienez:***

    - Epaitegi eta auzitegiei informazioa emanez epaitutako pertsonaren egoera pertsonalaz eta familia, gizarte, lan eta osasun egoeraz, bai epaiketaren zain dagoenean hartu beharreko erabakiei begira, bai zigorren eta segurtasun neurrien betearazpenari dagokionez.
    - Zigor arloko legeriaren esparruan askatasuna kentzen ez duten zigorrak aplikatzeko proposamenak aurkeztuz, pertsona bakoitzaren zigor eta espetxe egoera bere osotasunean harturik.
    - Txosten sozialak eginez instrukzio fasean, behin-behineko espetxeratzea dekretatzeko edo mantentzeko erabakiak

[46] CM/Rec(2010)1 of the Committee of Ministers to member states on the Council of Europe Probation Rules; Recommendation (92) 16, European rules on community sanctions and measures; Rec(2000)22 on improving the implementation of the European rules on community sanctions and measures.

hartzeari begira, bai eta organo judizial eskudunak ezarritako eskakizunen betetzearen jarraipenean ere, etenduretan eta segurtasun neurrietan.

- Pertsona bat ukitzen duten auziak eta prozedurak bilatuz Nafarroan zein Nafarroatik kanpo, eta aurrekari penalak ezerezteko izapideetan lagunduz.

- ***Auzipetuei dagokienez:***

  - Haiekin elkarrizketatuz ziegan, espetxean nahiz Zerbitzuaren bulegoetan, banakako gizarteratze eta laneratze planak egiteko, zigor arloko esku-hartzea eragin duten egitateen atzean dauden arazoetarako egokiak.
  - Gizarteratze prozesuan pertsonari lagun egiten dioten gizarte zibileko entitateekin koordinatuz, halakorik egonez gero. Horren harira, garrantzi berezia hartzen du familiei laguntza eta informazioa emateko lanak, familiak lagun egin diezaion prozesuan ari den pertsonari.

- ***Abokatuei dagokienez:***

  - Jarduketa horiek guztiak esku arteko auzien ardura duten abokatuekin koordinatuz, atxilotutako pertsonek irekita edukitzen dituzten auzien kopuruak eta barreiadurak ez dezaten jarduna oztopatu, egoera horrek zaildu egiten baitu kasu bakoitzari ikuspegi integral batetik ekitea, nahiz eta hori beharrezkoa izan, gizarteratzeari begira eraginkortasunez esku hartu ahal izateko.

- ***Baliabide soziosanitarioei dagokienez:***
    - Pertsona interesdunak berariaz baimenduta eta harekin harremana duten tratamendu-programekin eta zerbitzuekin etengabe koordinatuta jardunez.
    - Eremu soziosanitarioaren eta judizialaren arteko bitartekaritza erraztuz.

Horretarako, SGPMA indartu egin behar litzateke Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuan txertatuz eta haren autonomia funtzionala bermatuz; halaber, lanbide profil gehiago erantsi behar lirateke zigor betearazpenean (gizarte hezkuntza, kriminologia), eta aurretiko txosten psikosozialak egitea ahalbidetu. Azken eginkizun horren garrantzia dela-eta, berariazko gako-ekintza bat garatuko da.

2. **Organo judizialek askatasunaz gabetzen ez duten eta pertsonen inguruabarretarako egokiak diren neurri gehiago ezar ditzaten sustatzea, aurretiko txosten psikosozialak direla medio.**

Ordezko neurriak sustatzeko, neurri horiek egokiak eta gizartearentzat seguruak direla bermatuko dieten datuak eskaini behar zaizkie eragile juridikoei. Aurretiko txosten psikosozialek ordezko zigor gehiago ezartzea ahalbidetuko lukete. Epaile, abokatu eta fiskalek datu gehiago behar dituzte zigorrak indibidualizatzeko. Beraz, epaitutako pertsonen gizarte eta osasun arazoak baloratuko dituen baliabide publiko baten beharra dago. Epaitegiek epai komunitario egokiak ezar ditzaten sustatu behar da. Hortaz, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuari nahikoa baliabide eman behar zaizkio organo judizialei, Fiskaltzari eta prozesuko alderdien abokatuei erantzuteko, epaiaren aurretik txosten horiek eskatzen

dituztenean. Informazio eguneratua, arlo anitzekoa eta osoa jasotzeko zenbat eta baliabide gehiago eta estaldura instituzional handiagoa izan, orduan eta errazago izanen dute epaileek, norbaitek egindako delituaren ondorioak erabakitzerakoan, aintzat hartzea pertsona horrek izan ditzakeen arazoen multzoa bere osotasunean, eta horrek, inondik ere, areagotu eginen du ezartzen diren zigor edo neurrien birgaitze-ahalmena. Horren haritik kontuan hartu behar da honako hau:

- Ez badago gaiari buruzko txostenak emanen dituen erakunderik, eta beste daturik ezean, epaitegiek aurrekariak edo, onenean ere, informazio zatikatu eta osatugabeak izanen dituzte erreferentzia bakarra: alde batetik, aurrekariok denbora behar dutelako erregistrora iristeko; bestetik, oraindik ere akatsak gertatzen direlako Espainiako hango eta hemengo epaitegien artean horrelako datuak partekatzerakoan.

- Norbaiten espetxe egoeraren tratamendu bateratua errazagoa izanen da baldin eta pertsona horrek eduki ditzakeen betearazpen guztiak –askok mordoa edukitzen dute– bakar batean metatzen badira eta auzitegi betearazle bakar batek kontrolatzen baditu.

- Segurtasun neurriak direla-eta, gerta liteke halakoak betearazi ezin izatea, horretarako behar diren espetxe baliabideen eta espetxeaz kanpokoen beharrizan gero eta handiagoak bete gabe badaude, edo epaitegiak behar duen informazio eguneratua falta badu.

Mantendu behar lirateke Auzitegiko Medikuntzaren Institutuak egiten dituen txostenak, neurri hauek ezartzeko kontuan hartzen direnak: baldintzapeko etendura programa soziosanitarioekin, baldintzapeko askatasuna programekin, eta askatasunaz gabetzen duten segurtasun neurriak. Horrelako txostenak beren horretan mantendu behar dira, baina txosten psikosozialetatik bereizi behar lirateke. Izan ere, izaera eta helburu

desberdinak dituzten txostenak dira, Elena Larrauri kriminologoaren artikulu honek azpimarratzen duen bezala:

> *"Txosten honek pertsonari, haren gizarte inguruneari eta delituaren aurrean duen jarrerari buruzko datuak eskaintzen ditu, epaileak zigorra ezarri baino lehen, eta kondenatuak bete beharko dituen zigor mota, epeak eta berariazko eginbeharrak gomendatzeko balio du. Informazio hori lagungarria izan daiteke epaileak jabetu daitezen espetxearen ordezko zigorrak ez direla delitua lehen aldiz egin duten pertsonentzat bakarrik"* [47].

Horregatik, edozein prozeduratan eskatzen ahalko lirateke. Bereziki baliagarriak lirateke gizartearentzako lanak ezarri aurretik –zigor nagusi gisa ezarri, nahiz isuna ez ordaintzeagatiko erantzukizun subsidiario gisa edo baldintzapeko etendura berezi bati lotutako betebehar gisa–, pertsonaren inguruabarrek zenbaitetan neurri hori betearaztea eragozten baitute. Txosten horiek egitea zaila izan liteke judizio azkarretan. Horretarako zera proposatzen da, Zerbitzuak bere instalazioen zati bat edukitzea eraikin judizialean bertan, Justiziari laguntzeko gainerako zerbitzuen ondoan instalaturik, epaitegi guztiei berehalako erantzuna emateko.

Kondenaren etendurak direla-eta, halakoetan pertsona bakoitzaren profilari egokitutako programak ezartzera jo behar da. Pertsonak aurrekari penalak dituenean, txosten psikosoziala ezinbestekoa da ebaluatu ahal izateko ea aurrekariok ez ote duten eragozten kondenaren etendura onartzea. Gainera, txostenek aukera ematen dute askatasuna kentzen ez duen zigorra pertsonaren inguruabarrei egokitzeko, jada tratatzen ari den

[47] Larrauri, E. (2012). La necesidad de un informe social para la decisión y ejecución de las penas comunitarias. *Boletín criminológico*, *18*(139), 1-5.

edo baliabide egokietara deribatu behar den osasun mentaleko arazoren bat ba ote duen detektatuz. Ildo horretan, behar-beharrezkoa de nahasmendu mental larririk (NML) ba ote dagoen ebaluatu eta detektatzea, osasun eta gizarte arloetako informazio osoa bilduta. Horrela, nahasmendu mental larria duten pertsonak sintomatologiaren edo desorekatze mailaren arabera dagokien zirkuitu sanitariora bideratu behar dira, egokitzat jotzen diren bermeekin eta jarraibide medikoekin.

3. **Baliabide eta esku hartzeko programa gehiago sortzea, profilei egokituak eta genero-ikuspegia txertatua dutenak.**

Ingurune irekiko neurriek delituaren zergatiei ekin behar diete, eta horretarako baliabide eta esku hartzeko programa asko behar dira. Gaur egun SGPMAk askotariko lantegiak eta programak kudeatzen ditu (tratamendua ematekoak, terapeutikoak, prestakuntzakoak, sozialak etab.), bere baliabideekin nahiz kanpokoekin. Profil guztiak biltzeko eta neurriak bizkor gauzatu ahal izateko, lantegi eta programa gehiago sortu behar lirateke, eta daudenak indartu.

Ildo horretan:

Droga-mendekotasuna, osasun mentaleko arazoak edota adimen desgaitasuna duten pertsonentzako tratamendu programa soziosanitarioak normaltasunez egiten ari dira 1998az geroztik, osasun mentaleko sarea baliatuz (baliabide publikoak eta pribatu itunduak), eta neurri txikiagoan gizarte zerbitzuen sarea ere bai. Balorazio, deribazio eta jarraipen prozedurak argiak dira eta ongi aplikatzen dira. SGPMAren eta berariazko baliabideen arteko koordinazioa egokia da, baina bitarteko gehiagoz hornitzen bada hobetu egin liteke akonpainamendua, zenbait kasutan. Martxan jar liteke Zubi Zabala programa nahasmendu mental

larria duten pertsonentzat, akonpainamendu gehiago eskainita eta gizarte zibilak parte hartuta.

Genero-indarkeria edota etxeko indarkeria erabili duten erasotzaileentzat eta sexu-erasotzaileentzat sortutako programak ere (PRIA-MA, Topagunea, Sexu Erasoa Kontrolatzeko Programa eta SAREtik Kanpo) normaltasunez aplikatzen ari dira duela 15 urtetik. Psikologo gehiago jar litezke programa horiek gauzatzeko. Programen eraginkortasuna ebalua liteke aldian behin, eta argi aplika liezaieke genero-ikuspegia. Programak dibertsifikatu egin litezke genero-indarkeriaren arloko esku-hartzeen beharraren maila desberdinetarako.

Genero-indarkeriaren delituak egiteagatik askatasunaz gabetzen ez duten zigorren % 34 ezartzen dira, baina zigortuetatik % 46k baino ez dute programak egiteko betebeharra; % 54 gizartearentzat lan egitera kondenatzen dituzte, eta ez dute programarik egiten. Akonpainamendu hobea eta zereginak aukeratzeko laguntza eskainiko lituzkeen *probation* zerbitzu espezializatu batek esanahi beteagoa eman liezaioke zigorrari.

Bide segurtasuneko lantegi eta programen bitartez (TASEVAL eta PROSEVAL), gizartearentzako lanak eta baldintzapeko etenduretako betebeharrak betetzen dira, bide segurtasunaren aurkako delituak direla-eta. Horrelakoak SGPMAn egiten dira, Trafikoko, Foruzaingoko, Guardia Zibileko eta Iruñeko Udaltzaingoko bide hezkuntzako unitateen laguntzaz. Erakundeen arteko horrelako elkarlanak jorratzen jarraitu behar litzateke. Programa horietan, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren bidez, Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuan bide segurtasunaren ardura duen unitateak parte hartzea kudea liteke.

2020. urtean justizia errestauratiboko lantegi eta programak (Elkarrizketa Errestauratiboak) egiten ari dira lehen aldiz Nafarroan.

Horrelako programak egiten jarraitu behar litzateke modu egonkorrean, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak sustaturik eta koordinaturik.

Beste programa sozial batzuk, besteak beste PROBECO (sentsibilizatzeko eta gizarte trebetasunak lantzeko esku hartzea) eta BIZIKIDETZA lantegia, apenas egiten diren, langile faltaren ondorioz. Gizarte entitate baten laguntza beharko litzateke, edota langile gehiago SGPMAn.

Gizarteratze eta laneratze programak direla-eta: berariazko baliabide sanitarioekin koordinatzeko prozedura oso argia eta sistematikoa da; aldiz, ez dago protokolorik gizarte zerbitzuekin eta gizarteratze eta laneratze taldeekin (EISOL) koordinatzeko. Koordinazio hori hobetu behar litzateke, eta Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoen eta gizarte entitateen esku-hartzea ere areagotu liteke.

Azkenik, programa eta lantegi guztiek izan behar lukete kontuan genero-ikuspegia, eta programak sortu behar lirateke emakumeentzat bakarrik, genero kontuak, indarkeria, ahizpatasuna eta generoak delitu-portaerarekin duen lotura bezalako gaiak lantzeko.

4. **Gizartearentzat lan egiteko Nafarroako tokien katalogoa handitzea, toki gehiago sortuz Nafarroako Gobernuaren mendeko baliabideetan eta lan horiek beharrezkotzat jotzen diren udal eta kontzejuetan.**

Beharrezkoa da, halaber, pertsona guztien profilei eta bizilekuei egokitutako gizartearentzako lanetarako toki gehiago eskaintzea.

Gizartearentzako lanetarako tokiak falta dira, zenbait udalek ez dutelako parte hartzen edo oso gutxi parte hartzen dutelako, batez ere. Zenbaitetan, udal batzuek ez dituzte onartzen pertsona jakin batzuk, eta horregatik akonpainamendua hobetu behar litzateke, adibidez, gizarte

hezitzaileak kontratatuz Zerbitzuan eta profilen diagnostiko zehatzagoa eginez, udalek pertsona horiek onar ditzaten errazteko.

Zenbait herritan oso urria da gizarte zerbitzuen lankidetza, badirudi ez dela haien eskumenekoa pertsonak neurri komunitarioen bitartez gizarteratzea. Bestalde, beren ideologiak baldintzaturik, zenbait alkatek ez dute onartzen gizartearentzako lanak egitera kondenatutako pertsonarik, ez dutelako sinesten gizarteratzean, edo ez dutelako elkarlanean aritu nahi Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiko zerbitzu batekin.

Horregatik, beharrezkoa da etorkizuneko Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak toki berrien sorrera sustatzea –haietako portzentaje bat zenbait zigorturen ezaugarriei (osasun mentaleko arazoak, desgaitasuna...) egokituta egonen da– Nafarroako Gobernuaren zerbitzu eta baliabideetan (2010eko maiatzeko hitzarmen indarduna apenas aplikatzen den) eta Toki Administrazioko entitateetan, gizarte zerbitzuen konpromiso handiagoa eskatuz. Halaber, pizgarriak eman behar litzaizkieke gizartearentzako lanetarako tokiak dituzten gizarte entitateei.

5. **Nafarroan ezartzen diren neurri alternatibo komunitario guztien kudeaketa eta jarraipena berreskuratzea: baldintzapeko etendurak, ordezko neurriak, gizartearentzako lanak eta segurtasun neurri askatasun-gabetzaileak edo askatasunaz gabetzen ez dutenak (zaintzapeko askatasuna).**

2011ra arte, Nafarroako Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak (gaur egun, Espetxearen Ordezko Zigor eta Neurriak Kudeatzeko Zerbitzua) Foru

Komunitatean ezartzen ziren ordezko neurri guztiak kudeatzen zituen eta haien jarraipena egiten zuen. Hala, adibidez, gainerako neurriekin batera, 2008., 2009. eta 2010. urteetan segurtasun neurrien 124, 148 eta 151 espediente kudeatu zituen, hurrenez hurren. 840/2011 Errege Dekretuaz geroztik sistema hori ez zaie ordezko zigor neurri guztiei aplikatzen: kanpoan gelditzen dira segurtasun neurriak, hala askatasun-gabetzaileak, zeinak Espetxe-zaintzako Epaitegiak kontrolatzen baititu, nola askatasunaz gabetzen ez dutenak (zaintzapeko askatasuna). Bestalde, 2009tik aurrera, nahiz eta Zigor Kodearen 2015eko erreforman baldintzapeko askatasuna gainerako espetxe zigorraren etendura gisa arautu eta SGPMA zerbitzuen ardurapean utzi zuen, zerbitzuok ez dira neurri horren kontrola eta jarraipena egiten ari. Nafarroan, egoera hori, batez ere segurtasun neurrien alorrean, akatsak eragiten ari da bai neurri horien kudeaketan (neurriak aldi berean betetzea, eta ez hurrenez hurren), baita organo judizialen eta baliabide sanitarioen arteko koordinazioan ere.

Horregatik, ezinbestekoa da Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzua arduratzea Nafarroan ezartzen diren neurri guztien kudeaketaz eta jarraipenaz. Hori bi modutan lor daiteke: espetxe arloko eskumenen transferentziaren bidez, edo espetxeetako gizarte zerbitzuen transferentzia partzialaren bidez. Eta transferentzia hori iritsi arte, Nafarroako Gobernuaren eta Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiaren arteko hitzarmen baten bidez, zeinean adostuko baita, beste gauza batzuen artean, Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak kudea ditzala segurtasun neurriak, betiere SGPMAren langileriari eta egiturari eutsiz, zerbitzuak bikoiztu ez daitezen eta kudeaketan metatutako esperientzia gal ez dadin. Betiere transferentzia osoa helburu izanik, ordezko zigor eta neurrien kudeaketaren transferentzia onar liteke, segurtasun neurriak ere tartean, behin-behineko hitzarmen bat eginez,

1989ko ekainaren 14an sinatutakoaren antzekoa (*Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren arteko aldi baterako eta behin-behineko akordioa*). Hitzarmen berri horrek Foru Gobernuaren jarduketak eguneratu eta gehitu behar lituzke espetxe arloan, bai askatasuna kentzen ez duten zigor eta neurriei dagokienez, bai gizarteratze eta laneratzeari eta gainerako prestazio soziosanitarioei dagokienez.

## 3. ildo estrategikoa:

# Zigorrak ingurune irekian bete daitezen sustatzea.

**1. helburu estrategikoa. Hirugarren graduko hasierako sailkapenak eta hirugarren gradurako igoerak ugaritzea.**

**2. helburu estrategikoa. Gizarteratze sare komunitario bat sendotzea.**

**Justifikazioa**

Berriz ere esku-hartze txikienaren printzipioak eskaintzen du ildo estrategiko honen aldeko arrazoibide nagusia. Askatasunaz gabetzea oinarrizko eskubide bat murriztea denez (EKren 17. artikulua), askatasunaz gabetzen duen zigor bat ezartzen denean ahalik gutxien murriztu behar ditu eskubideak hura betetzeko erregimenak. Hau da, espetxea azken baliabide gisa erabili behar den bezala, erregimen arrunta delakoa erabili behar litzateke soilik ezinezkoa denean zigorra erregimen irekian betetzea. 17. eta 25.2 artikuluak elkarri loturik irakurtzeak bide ematen du espetxe erregimen erdi-askearen aldeko presuntzioa ezartzeko, askatasunerako eskubidea gehien errespetatzen duena eta gizarteratzearen aldekoena baita.

Espetxe arloko legeriak indibidualizazio zientifikoaren printzipioa deritzona ezartzen du Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 72.3 artikuluan: "Zigortua goiko gradu batean kokatu ahal izanen da hasieratik, baldintzapeko askatasunean izan ezik, beheragoko graduetatik pasatu beharrik izan gabe, betiere horretarako moduan

dagoela ondorioztatzen bada beraren behaketatik eta sailkapenetik." Gainera, Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiaren 9/2007 Jarraibideak, zigortuen sailkapenari eta destinoari buruzkoak, hau ezartzen du: "Hirugarren gradua ez da espetxe onura bat. Zigorra betetzeko modalitate arrunta da, eta bertara bideratu behar dira gizarteratzeko gaitasun positiboa duten espetxeratu guztiak, hasieratik nahiz haien eboluzioak aukera ematen duenean.

Nazioartean *Askatasuna kentzen ez duten neurriei buruzko Nazio Batuen gutxieneko arauek* (Tokioko Arauak) honako hau xedatzen dute:

> *"Lehenbailehen hartuko dira aintzat establezimendu batean dagoen preso bat aske uzteko eta askatasuna kentzen ez duen programa batean sartzeko aukerak." (9.4 artikulua)*

Europako Kontseiluari dagokionez, gutxieneko zigor zuzenbidearen eta eskubide-murrizketa ahalik eta txikienaren aldeko norabidea ezarri du hainbat gomendiotan: Ministro Batzordeak estatu kideei egindako (2014)4 Gomendioa, zaintza elektronikoari buruzkoa; Ministro Batzordeak estatu kideei egindako (2000)22 Gomendioa, komunitatean aplikatutako zehapen eta neurriei buruzko Europako arauen aplikazioa hobetzekoa; (92)17 Gomendioa, epaien koherentziari buruzkoa; (2003)22 Gomendioa, baldintzapeko askatasunari buruzkoa; edo (99)22 Gomendioa, espetxeetako preso pilaketari buruzkoa.

Azterlan kriminologikoetan, berriz, gizarteratze egokiagoa eta berrerortzeko arrisku txikiagoa antzematen zaie zigor osoa edo azken zatia erdi-askatasunean eta baldintzapeko askatasunean bete ondoren aske geratzen diren pertsonei. Kaleratze motaren arabera, egiaztatu da beren kondena hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean amaitzen duten pertsonek hurrenez hurren % 18 eta % 11 inguruko berrerortze tasa dutela, eta erregimen hori lortzen ez dutenek, aldiz, % 34koa, bigarren

gradutik kalera igarotzen direnean, eta % 44koa, lehen gradutik kalera igarotzen direnean[48].

Hirugarren graduko pertsonak gehituz gero (edo 100.2 artikuluko bigarren gradukoak, hasiera batean laguntza handiagoa behar duten profiletarako), hobetu eginen lirateke gizarteratze indizeak Nafarroan. Horretarako, noski, ugaritu egin behar lirateke hirugarren graduko hasierako sailkapenak eta hirugarren gradurako igoerak, eta, aldi berean, handitu egin behar lirateke Gizarteratze Zentroaren eta Gizarteratze Sare Komunitarioaren baliabideak. Horrela, erregimen erdi-aske horretan sartzen diren pertsonek ahalik ongien gizarteratzeko behar dituzten laguntzak eskuratu ahalko lituzkete.

Horregatik guztiagatik, helburu estrategiko hauek proposatzen dira:

[48] Capdevilla, Manel et al. Tasa de reincidencia penitenciaria en Cataluña. (2014). http://cejfe.gencat.cat/web/.content/home/recerca/cataleg/crono/2015/taxa_reincidencia_2014/tasa_reincidencia_2014_informe_ejecutivo.pdf

## *1. helburu estrategikoa. Hirugarren graduko hasierako sailkapenak eta hirugarren gradurako igoerak ugaritzea.*

Espetxera zigortutakoen erdiak baino gehiago eduki behar dira hirugarren graduan eta baldintzapeko askatasunean. Azken datu eskuragarrien arabera, 565 bat pertsona daude espetxera zigortuta.

| | |
|---|---|
| Bigarren gradua | 263 |
| Hirugarren gradua | 44 |
| Erroak Nafarroan izan eta zigorra kanpoan betetzen ari direnak | 184 |
| Baldintzapeko askatasuna | 74 |
| Guztira | 565 |

Helburu gisa proposatzen den banaketa da 250 bat pertsonak betetzea beren espetxe zigorra Gizarteratze Zentroan eta baldintzapeko askatasunean. Hori erabat onargarria da. Izan ere, Gizarteratze Zentroak dituen 100 tokiei erregimen telematikoko jarraipen-ahalmena gehitu behar litzaieke, bai eta zigorra espetxetik kanpo betetzeko unitateak ere, hala nola komunitate terapeutikoak (182. artikulua). Covid-19 pandemiaren ondorioz, hirugarren graduko pertsona gehiagok eman izan dute gaua Gizarteratze Zentrotik kanpo, eta ez da arazorik gertatu. Beraz, egiaztatu da posiblea eta eraginkorra dela 86.4 eta 83. artikuluetako sailkapenen kopurua handitzea. Baldintzapeko askatasunen kopuruak ziur aski beherantz jarraituko du (2018ko kopuruak ia bikoiztu egin zuen 2019koa), baina hori Zigor Kodearen azken erreformari egotzi behar zaio, presoentzat baldintzapeko askatasuna kaltegarriago bihurtu baitzuen hirugarren graduan irautea baino. Lehengo araudira itzuli behar litzateke,

baina gai hori espetxe kudeaketaren arloko eskumenetatik kanpo dago, eta ezin zaio hemen heldu.

Preso gehiago hasieratik hirugarren graduan sailkatu eta zuzenean Gizarteratze Zentroan sartu ahal izateko, eta hirugarren gradurako igoerak sustatu ahal izateko, gako-ekintza hauen beharra dago:

## Gako-ekintzak

1. Bost urtetik beherako zigorren hasierako sailkapenak egiteko eskumena Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren mendeko Gizarteratze Zentroko Tratamendu Batzordeari esleitzea. Behin transferituta espetxe eskumenak, Nafarroako Gobernuak ezarriko luke sailkapenerako eskumenak dituen zuzendaritza zentroa, eta arriskugarritasunik edo ihes egiteko arriskurik ez dagoenean sailkapenak Gizarteratze Zentroan zuzenean egiteko lehentasun hori ezar lezake. Proposamen hau bat dator Espainiako Abokatuen Kontseiluaren Protokoloarekin (hurrengo puntuan garatzen den horrekin) eta Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiaren 9/2007 Jarraibidearekin; azken horrek gehienez ere bost urteko espetxealdira kondenatutakoei hasieratik hirugarren gradua emateko aukera baloratzen du.
2. Espainiako Abokatuen Kontseiluak zigortuak Gizarteratze Zentroan zuzenean sartzeko egindako protokoloa onartzea[49]. Protokolo horrek hauxe dio: "Proposamen honen bitartez aukera ematen da hirugarren graduan sailkatzeko moduko inguruabar aldekoak dituzten zigortuak zuzenean sar daitezen Gizarteratze Zentroan edo dagokien atal irekian, espetxetik pasatu gabe. Proposatutako

[49] Adierazi beharra dago Ingurune irekian zuzenean sartzeari buruzko 6/2020 Jarraibideak bere egin duela protokolo hori.

sisteman, beraz, zigortuari bere inguruabarretarako bizi erregimen egokiago bat ezarriko litzaioke, bigarren graduari dagokion erregimen arruntetik erabat bereizia, eta, horrenbestez, espetxeratze neurri orok berekin dakartzan arriskuak saihestuko lirateke."

3. Aurrerapen-presuntzioaren printzipioa onartzea, zeinaren arabera espetxeko tratamendu batzordeak erakutsi beharko baitu zer gabeziak eragozten duten graduz igotzea, alegia, berariaz adierazi beharko baitu zer faktore objektibo landu behar diren presoa graduz igo ahal izateko.
4. Berariazko programa gehiago jartzea 100.2 artikuluko tratamendurako. Artikulu horrek dioenez, "lantalde teknikoak tratamendu batzordeari proposatu ahal izanen dio, zigortu bakoitzari dagokionez, aipatu gradu horietako bakoitzaren bereizgarriak konbinatzen ahal dituen betearazpen eredu bat onartzeko, betiere neurri horren oinarrian berariazko tratamendu programa bat badago eta programa hori ezin bada gauzatu beste era batera. Salbuespenezko neurri hori kasuan kasuko zaintza-epaileak onetsi beharko du gero, baina horrek ez du eragotziko hura berehala betearaztea". Hainbat espetxetan oso ohikoa da neurri hori baliatzea pertsonek erregimen erdi-askea lor dezaten, apur bat murritzagoa, gizarteratze zentroetan berariazko tratamendu programak garatze aldera. Hala ere, apenas erabiltzen den Iruñeko Espetxean, eta horregatik gako-ekintza litzateke erregimen malgu hori hedatzea. Pertsona gehiagok lortzen ahalko lukete erregimen erdi-askea baldin eta berariazko tratamendu programa gehiago garatuko balira espetxetik kanpo, sare publiko eta komunitarioekin koordinaturik, askatasunaz gabetzen ez duten zigorren eremuan egiten den gisara.

5. Gizarteratze zentroentzat lanpostuen zerrenda bana ezartzea, zentro horiek behar dituzten giza baliabideez hornitzeko. Egoeraren azterketari buruzko atalean azaldu den moduan, Iruñeko Gizarteratze Zentroak ia ez du giza baliabiderik, eta ozta-ozta funtzionatzen du espetxe bateko atal ireki baten antzera. Hori horrela, ezin du egin pertsonentzako programa berariazkorik 100.2 edo 82.1 artikuluak aplikatuta, ezta 83. eta 86.4 artikuluetako pertsonentzako jarraipenik ere. Ezinbesteko eta presako gako-ekintza da, beraz, benetako gizarteratze zentro oso bat sortzea eta beraren lanpostuen zerrenda egin eta hornitzea.
6. Gizarteratze eta laneratze programa bat garatzea (prestakuntza, lan bilaketa, enplegua...), koordinazio eta deribazio prozedura batekin, pertsonak bideratu ahal izateko gizarte zerbitzuetako gizarteratze eta laneratze taldeengana eta horrelako programak erabiltzen dituzten gizarte entitateengana.

## *2. helburu estrategikoa. Gizarteratze sare komunitario bat sendotzea.*

Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak erakundeen arteko koordinazioaren oinarria izan behar du zigorrak komunitatean bete daitezen; gogora ekarri behar da, ordea, gizarte osoak lagundu behar duela pertsonak gizarteratzen. Horregatik garrantzi izugarria du gizarteratze sare komunitario bat sendotzea, presoen eta preso ohien gizarte inklusiorako lanetan parte hartzen duten gizarte entitate eta administrazioek osatua.

Helburu estrategiko hori gako-ekintza hauetan zehazten da:

**Gako-ekintzak**

1. Gizarteratzeko baliabideen mapa egitea. Mapa horrek, espetxe arloan berariaz diharduten entitateez gainera, auzo, kirol, erlijio edota kultur entitateak ere bildu beharko lituzke, eta horiek ere parte hartuko lukete gizarteratze lanean ikuspegi komunitariotik.
2. Komunitate terapeutiko, gizarteratze-etxebizitza eta horrelakoen toki kopuruak handitzea, baliabide horiei finantzaketa egonkorra ematea, eta egoitza-baliabide gehiago sortu behar ote den aztertzea.
3. Komunitatearen baliabide orokorrekin (osasun mentala, adikzioak, hezkuntza eta abar) koordinatzeko protokolo argiak ezartzea. Baliabide horiek presoak ere hartu behar dituzte erabiltzailetzat. Presoak ere sartu behar dira komunitateari eskaintzen zaizkien programa orokorretako zerbitzu zorroetan.
4. Erakundearteko koordinazioa bermatzea bai Foru Gobernuko departamentuetan, baita udaletan eta gainerako administrazioetan ere.
5. Gizarte entitateek kudeatutako mendeko unitateak (zigorra erregimen irekian betetzeko modalitatea) sortzeko aukera aztertzea profil jakin batzuetarako (seme-alabak dituzten familiak). Genero-ikuspegitik heldu behar zaie presoen amatasunari eta aitatasunari, haurrak zaintzeko ardura emakumeei bakarrik dagokielako ustea baztertuta. Gainera, inori ez zaizkio seme-alabak kendu behar espetxean egoteagatik. Horregatik, komenigarria litzateke Iruñean familientzako mendeko unitate bat ezartzea, kontuan hartuta zenbat kasu dauden eta zer proposamen egiten dituen gizarte zibilak.
6. Iruñetik urrun bizi diren pertsonentzat mendeko unitate deszentralizatuak sortzeko aukera aztertzea. Norbera errotuta dagoen tokian gizarteratu behar denez, planteatu ahalko litzateke

mendeko unitateak sortzea Tuteran edo Nafarroako hiriburutik urruneko beste toki batzuetan.

7. Neurri errestauratibo komunitarioak ezartzea, hala nola zirkulu errestauratiboak edo laguntza- eta erantzukizun-zirkuluak, helburutzat harturik komunitateari eragindako kaltearen ordaina sustatzea –horretarako ez dago nahitaez biktimarekin lan egin beharrik– eta gizarteari delituen kausa sozialak aztertu eta eraldatzeko ardura harraraztea.
8. Politika hau gizarteari ezagutaraztea, bertan parte har dezan. Mezu argiak luzatu behar dira, ebidentzian oinarrituak, gizarteratzea eta gizarte kohesioa segurtasunez bizitzeko erarik onenak direla adierazteko.

## 4. ildo estrategikoa

# Gizarteratzea sustatzea zigorraren betearazpen osoan zehar

**1. helburu estrategikoa. Espetxe tratamendurako baliabideak gehitzea, batez ere hezkuntza eta lan arloetakoak, eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak sustatzea.**

**2. helburu estrategikoa. Kanpoaldearekiko harremanak erraztea.**

### Justifikazioa

25.2 artikuluak gizarteratzeari begira ezartzen ditu askatasunaz gabetzen duten zigorrak, eta Espetxeen Lege Organiko Orokorrak dio espetxe tratamendua dela gizarteratze hori lortzeko tresna:

> *"Espetxe tratamendua zigortuen berreziketa eta gizarteratzea lortzera zuzenean bideratutako jardueren multzoa da." (59.1 artikulua).*

Gizarteratzeak hainbat eztabaida doktrinalen gaia izan da, baina badu legezko definizio argia 59. artikuluaren 2. apartatuan:

> *"Tratamenduaren xedea da presoa zigor-legea errespetatuz bizitzeko asmoa eta gaitasuna duen pertsona bihurtzea, eta halaber haren beharrizanak asetzen laguntzea."*

Beraz, gizarte inklusioa sustatuz (pertsonaren beharrizanak asetzen lagunduz) pertsona berriro eror ez dadin (zigor-legea errespetatzeko gai

izan dadin) lortzea helburu duten jardueren multzoa da, ez besterik (eta ez gutxiago). Nahiz eta Konstituzio Auzitegiak ezarri duen ez dagoela gizarteratzeko eskubide subjektiborik arau orokor gisa, hori ez da oztopo Nafarroan *de iure* izateko eskubide hori, eta *de facto* ere behar luke; gogoeta horrek gidatzen du zigor betearazpenaren eredu hau. Zigor betearazpenaren eredu honen helburua, 1. ildo estrategikoan azaldutakoaren arabera, gainbegiratze penalaren peko pertsona guztiei beren eskubideak baliatu ahal izateko berdintasuna bermatzea da. Lehen esan den moduan, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak Nafarroan bizi diren pertsona guztientzat eta izaera unibertsalarekin ezartzen du "*erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta akonpainamendu pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, alderdi guztietan, halako moduan non pertsona guztiek izanen baitituzte aukerak eta behar diren bitartekoak bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean osotara parte hartzeko, eta Nafarroako gizarte osoarekiko egokia den bizi eta ongizate mailaz gozatuko baitute*".

Beraz, eskubide hori presoentzat ere bermatuta dago eta bete egin behar da haiek espetxean dauden bitartean. Preso gehienek jasaten dituzten gabeziak direla-eta, gizarte inklusiorako eskubide horri arreta berezia jarri behar diote Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek, Zigor Betearazpeneko Zerbitzuaren koordinazioaren eta arduraren pean. Zerbitzu horren eredua azterlan honetan garatzen da. Atal honetan jasotako neurrien osagarri izan behar dute 1. ildo estrategikoan jada azaldutakoek, preso guztien eskubideak bermatze aldera, erroldatzeko eskubidea, gizarteratzeko ibilbideetarako eskubidea eta abarrekoak tartean direla.

Aurreko ildo estrategikoetan erantzun komunitarioen, askatasunaz gabetzen ez duten neurrien eta ingurune irekiaren nagusitasuna ezarri da,

esku-hartze txikienaren printzipioari jarraituz. Bada, azken ildo estrategiko honetan azaltzen dira Espetxearen barnean garatu beharko diren helburu estrategikoak eta gako-ekintzak. Helburuok espetxe tratamendua indartzea dute ardatz, gizarte inklusiorako eskubidea espetxean gauzatzeko tresna izan behar baitu Nafarroan.

Espetxeen Lege Organiko Orokorrak espetxe tratamenduaren aldeko apustu argia egiten duen arren, azterlan askok erakusten dute Espainiako kartzeletako egoera bestelakoa dela, eta ez dela betetzen tratamendua erregimenari nagusitu beharra[50]. Iruñeko Espetxeko errealitatea ere lege-agindu horretatik urrun dago, eta tratamendurako jarritako giza baliabideek ez dituzte betetzen ezta lanpostuen zerrenda indardunean eskatzen diren gutxieneko mailak ere. Zer esanik ez, inondik ere ez dira espetxetik kanpo herritarrei eskaintzen zaizkienen parekoak. Tratamendu programak ekitaterako tresnak dira, eta segurtasun komunitarioa areagotzeko tresnak ere badira, tratamendua dagoenean berrerortzeen kopuruak behera egiten duela erakutsi duten ikerketa enpirikoek berresten dutenez. Ezinbestez, espetxe tratamendurako baliabideak gehitu behar dira eta kanpoaldearekiko harremanak sustatu, gizarte inklusiorako eskubidean oinarritutako zigor betearazpeneko eredu baten giltzarri gisa.

## *1. helburu estrategikoa. Espetxe tratamendurako baliabideak gehitzea, batez ere hezkuntza eta lan arloetakoak, eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak sustatzea.*

[50] *Algunos datos sobre la realidad del tratamiento en las prisiones españolas*. Salvador Cutiño Raya

Erabateko herritartasunaren printzipioarekin eta eskubide-berdintasuna bermatzea helburu duen ildo estrategikoarekin bat, espetxe jardueraren erdigunean jarri behar da gainerako herritarrekiko ekitatezko tratamendua, eta, beraz, ez da ulertu behar tratamendu hori bizimodu jakin bat inposatzea dela, baizik eta "*erabateko eta egiazko gizarteratzera bideratutako laguntza eta akonpainamendu pertsonalizatua jasotzeko eskubidea*" (15/2016 Foru Legea). Eskubide hori Nafarroan bizi diren edo errotuta dauden pertsona guztiei eskaini behar zaie. Beraz, kondenaren unean Nafarroan bizi ziren edo errotuta zeuden pertsona guztiak ekarri behar lirateke Foru Komunitatera, bertan gizarteratu beharko baitira. Arau orokor gisa, gainerako herritarrek gizarteratzeko egiten dituzten ibilbide pertsonalizatu berak eskainiko zaizkie presoei, eta premia edo arrisku bereziko kasuetan soilik antolatu beharko dira berariazko esku-hartze edo programak.

Beraz, gako-ekintza hauek proposatzen dira:

## Gako-ekintzak

1. **Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak bere gain hartzea preso nafarrak edo Nafarroan errotuak, hala nahi badute, Iruñeko espetxera ekar ditzatela eskatzeko ardura.**

Horrek esan nahi du preso nafarrak edo Nafarroan errotuak bilatu behar direla eta, ados badaude, Nafarroara ekar ditzatela eskatu behar dela; halaber, Iruñeko Espetxerako lekualdaketa eskatzeko mekanismo eta bide formal eta eraginkorrak ezarri behar dira presoen eskura. Etorkizuneko Zigor Betearazpeneko Zerbitzu horrek lekualdaketa horiek guztiak fiskalizatu eta bermatu behar ditu.

Espetxe arloko legeriak (Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 12.1 artikulua eta Europako Kontseiluaren Europako Espetxe Arauen 17.1 eta 17.3 artikuluak) presoen eskubidetzat ezartzen du norberak sustraiak dituen lekuan bete ahal izatea kondena (eta berariaz aipatzen du kondena betetzeko lekuari buruz norberaren iritzia azaltzeko eskubidea). Beste aldetik, espetxe arloko legeriak eskubide hori gauzatzeko betebeharra ezartzen dio Administrazioari. Hala ere, eskura dauden datuen arabera, preso nafar edo Nafarroan errotuetatik ia % 50 ari dira kondena betetzen Iruñekoa ez beste espetxe batean. Presoak familiaren eta gizartearen babesa duen tokitik urrun kondena bete beharrak kalte larriak eragiten ditu. Lehendabizi, presoak ahozko komunikazioen eta bisiten bidez ahaide eta lagunekin izan ditzakeen harremanak zailtzen, murrizten edo erabat galarazten dituelako. Maiz, familia egoerak, lanak, arazo ekonomiko edo sozialek edota osasun arazoek familiei zaildu edo eragotzi egiten diete senidea kondena betetzen ari den espetxera joan-etorriak egitea. Ondorioz, ez dira egiten presoari eskubidez legozkiokeen

komunikazio eta bisita guztiak, edo are gehiago, ez dago batere komunikaziorik, ezin direlako egin joan-etorriak. Bigarrenik, errotuta dagoen lekutik urrun kondena betetzen ari denak ez duelako kanpoan sostengu sozialik baimenak lortu ahal izateko edo espetxe sailkapenean gora egiteko. Kanpoan sostengurik ez izatea, jakina denez, Espetxe Administrazioak irteteko baimenak eta hirugarren espetxe gradurako igoerak ukatzeko erabiltzen dituen arrazoietako bat da. Hala, bada, presoa bere gizarte ingurunetik urruntzeak espetxe tratamenduan aurrera egitea eta kanpoko bizitzarekin pixkanaka harremanak egitea galarazten du, eta ondorioz luzatu egiten du espetxeko egonaldia.

Kontuan hartzen badugu, alde batetik, norbera errotuta dagoen tokitik urrun kondena betetzeak desozializazioa eragiten duela, eta bestetik, presoek kondena errotuta dauden lekuan betetzeko eskubidea dutela, beharrezkoa da Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak lekualdaketa horiek gauzatzeko jarduketen plan bat ezartzea (barnean dela kondena Nafarroatik kanpo betetzen ari diren nafarren mapatzea).

## 2. Lehen graduko sailkapenak ezabatzera bideratutako espetxe politika ezartzea.

Bakartzearen figurak, zehapen gisa edo kautelazko neurri gisa, egoera bakan eta salbuespenezkoetan eta *ultima ratio* edo besterik ezean soilik justifikatzen direnez gero, ezin da onartu bakartzea baliatzea –nahiz eta tratamendu antzeko edukia ematen saiatu– sailkapeneko gradutzat, halako moduan non horrela sailkatutako pertsonek hilabeteak edo are urteak eman ditzaketen gainerako presoengandik bereizita. Pertsonaren osasun integralaren eta gizarte inklusioaren hobekuntzaren ikuspuntutik –horixe baita edozein "tratamendu" kontzepturen helburu nagusia– sekula ezin da gomendagarria izan norbait bakartzea harreman

sozial guztiak eragotziz, espetxeak eskain dezakeen sozializazio apurra ere ukatuta.

Beraz, nahiz eta ezinezkoa izan legea aldatzea sailkapeneko gradu hori kentzeko, egin litekeen gauza da Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak lehen graduen aplikazioaren aurkako jarrera agertzea, presoen osasunarentzat erregimen guztiz kaltegarria dela iritzita. Horregatik, ez da zigorrak lehen espetxe graduan betetzeko modulurik jarri behar. Halaber, lehen espetxe gradutik bigarren gradura igotzea erraztu behar zaie preso nafarrei edo Nafarroan errotuta daudenei, Iruñeko Espetxera lekualdatu ahal izan daitezen erregimen arruntetan (bigarren gradua). Gradu-igoera jatorrian edo helmugan egin ahal izanen da (zuzenean bigarren graduan sailkatuz).

Aurrekoa gauzatzeko protokoloak ezarri behar dira, ordezko mekanismo ez hain kaltegarriak ezarriz egoera konplexuei erantzuteko, tratamendu batzordeei erraztasunak emanez lehen graduko sailkapenik ez egiteko.

### 3. Gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak sustatzea kanpoan bezala.

Azaldutako tratamendu ereduaren oinarrian ideia hau dago: Nafarroako legerian ezarritako gizarte inklusiorako eskubidea bete-betean garatu behar da presoei dagokienez. Espetxetik kanpo, gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuen bitartez gauzatzen da eskubide hori, aurrean aipatutako 15/2016 Foru Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera:

> *"1. Interesdunak eskatuta irekiko da, diagnostiko sozial bateratu bat eginez pertsonaren egoera pertsonalaz eta*

*familiakoaz, kasuan kasuko gizarte zerbitzuen esku-hartzearekin eta interesdunaren parte-hartze aktiboarekin. Ondoren, akonpainamendu sozialerako proposamen bat eginen da, eta programa pertsonalizatu bat finkatuko da haren gizarteratze prozesua maila guztietan egiteko.*

*2. Programa pertsonalizatuan gizarteratze itun bat ere sartuko da, bertan zehazteko iraupena, helburuak, partaideekin hartutako konpromisoak eta aurreikusitako emaitzak. Horrekin batera, Nafarroako Administrazio Publikoek gizarteratze ibilbidea laguntzeko emanen dituzten zerbitzuak eta programak ere sartuko dira, eta, halakorik badago, esku-hartze sozialean eta soziolaboralean espezializatuta dauden gizarte zibileko erakundeek ematen dituztenak, betiere gizarte zerbitzu eskudunarekin koordinatuta. Erabakitako ekintzen jarraipena eta egokitzapena egiteko sistema ere jasoko da.*

*3. Gizarteratze itunean parte hartuko dute, alde batetik, oinarrizko gizarte zerbitzuek edo, kasua bada, gizarteratzeko eta laneratzeko taldeek, beren profesionalen bitartez; eta, bestetik, eskatzaileak eta, bidezkoa bada, familia-unitateko beste kide batzuek.*

*4. Erregelamenduz ezarriko dira bai diagnostiko bateratua egiteko prozesua bai programa pertsonalizatua prestatu, garatu eta amaitzekoa prozesua ere."*

Esku hartzeko eredu hori erabat bateragarria da espetxe arloko legerian ezarritakoarekin, eta, izan ere, ederki moldatzen zaio tratamenduaren indibidualizazioari. Espetxe Erregelamenduaren 20.

artikuluan jasotako Banakako Tratamendu Programa deituak, zeinak Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 59. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraitu behar baitio, oinarritzat hartzen du presoarekin batera diagnostikoa egin eta akonpainamendu eta laguntza jardueren multzo bat diseinatzea. Ildo horretan, indartu egin behar lirateke lan eta hezkuntza jarduerak, berariazko tratamendu programekin batera (adikzioak, genero-indarkeria etab.). Tratamendu eredu hori gauzatzeko, berreskuratu egin behar da gizarte lanaren arloko eskumen historikoa (Nafarroako Gobernuak espetxean gizarte laneko lanpostuak finantzatzen zituen garaikoa), eta gizarte zerbitzu baten egoitza ezarri behar da Espetxean, banakako gizarteratze ibilbideak erabat txertaturik egon daitezen sare publikoan.

Azpimarratzekoa da tratamendu birgaitzailea eman behar dela, presoaren eta beraren borondatearen errespetutik abiatuta. Horretarako funtsezkoa da malgutasunez bete eta egokitu daitekeen proposamen bat edukitzea. Gerta liteke pertsonak ez egitea ereduzko programa, baina prestaturik egotea berriro gizarteratzeko. Gerta liteke, adibidez, preso batek hezkuntza gabeziak izatea. Hala ere, horiek ez badute zuzeneko zerikusirik delituarekin, Administrazioak errespetatu egin behar luke presoak nahi duena, eskolara joan ala ez joan.

## *2. helburu estrategikoa. Kanpoaldearekiko harremanak erraztea.*

Bigarren helburu estrategikoak Espetxe Erregelamenduaren 3.3 artikuluan aitortutakoa du oinarri:

> *"Askatasunaz gabetzen duten zigorrak eta segurtasun neurriak betetzeari buruz, printzipio gisa, aintzat hartuko da*

*presoa eskubideen subjektua dela eta ez dagoela gizartetik kanporatuta, aitzitik, gizarteko partaide izaten jarraitzen duela. Horrenbestez, espetxeko bizimoduaren erreferentzia bizimodu askea izanen da, ahalik gehien arinduko dira espetxeratzearen eragin kaltegarriak, eta erraztu eginen dira gizarteko loturak, erakunde publiko eta pribatuen lankidetza eta parte-hartzea eta prestazio publikoetarako irispidea."*

Beraz, kanpoaldearekiko harremanak indartu behar dira, baliabide komunitarioak erabiliz eta baimenak, irtenaldi programatuak eta kanpoan egiten diren programa espezializatuak sustatuz.

## Gako-ekintzak

### 1. Espetxe baimenak sustatzea, gizarteratzeko tresna gisara.

Espetxe baimenak presoen gizarteratzea sustatzeko biderik eraginkorrenetakoa dira. Alde batetik, espetxeratzeak eragiten duen desozializazioa leuntzen dute, ohiko familia eta gizarte harremanei eustea ahalbidetzen baitute, eta, bestetik, erdi-askatasun gradu hobeak lortu aurretiko lehen pausotzat hartu ohi dira. Espetxe arloko legeriak baimenak ematea onartzen du kondenaren laurdena betetakoan; hala ere, espetxeetako praktikan maiz ez da baimenik lortzen kondenan askoz aurrerago egin arte. Horrek pertsonari eragotzi egiten dio ereduzko gizarteratze ibilbidea egitea eta pixkanaka moldatzea erdi aske bizitzera lehendabizi eta erabat aske bizitzera azkenik.

Presoen gizarteratzea eta gizartearen segurtasuna oreka egokian egon behar dira, eta, horretarako, erabilera zuzena bermatuta eman behar dira legerian aurreikusitako espetxe baimenak eta presoen gainerako irtenaldiak. Berme horiek, ordea, hala behar duten presoei

laguntza handiagoa emanez eta jarraipena eginez lortuko dira. Hau da, baimenarekin irteteko oztopo diren gabeziak edo zailtasunak daudenean, Administrazio Publikoak ezarri behar ditu gabezia horiek gainditzeko beharrezkoak diren laguntza neurriak. Horren ildotik, aldatu egin behar litzateke Arrisku Aldagaien Taula, eta zigorraren xede gizarteratzailea lortzeko beharrezkoak diren laguntza eta jarraipen neurriak jasotzen dituen taula bilakatu.

Lehen irtenaldietarako, bi egun arteko baimenak ere erabili ahalko lirateke. Horrelakoek ez dute Espetxe Zaintzako Epaitegiaren onarpenaren beharrik, eta pixkanaka irtenaldi gero eta luzeagoak baimentzeko aukera ematen dute.

## 2. Espetxea gizarteari irekitzea.

Zigor betearazpenaren eredu honen oinarria da eskubideak baliatzeko berdintasuna eskaintzea, presoek egiaz atxiki dezaten beren erabateko herritartasuna, eta horretarako beharrezkoa da gizarteak zigor betearazpenean parte hartzea.

Jada badago kanpoko entitateen parte-hartze oso zabala hala SGPMAn nola Espetxean. Parte-hartze hori finkatu eta hedatu behar litzateke. Kultur, kirol eta hezkuntza irtenaldiak programatu litezke, eta programatutakoen kopurua handitu. Era berean, Espetxe barnean era guztietako unibertsitate ikastaroetako edota musika, literatura edo gastronomiako bilera eta jaialdietako saioak egin litezke, herritarrek espetxea barnetik ezagutu eta beren gizartearen osagaitzat har dezaten.

Bestalde, presoen eskura jarri behar lirateke komunikaziorako bitarteko telematikoak, Covid-19ak eragindako osasun larrialdian zehar egin den bezala.

**3. Eredu errestauratibo komunitarioak garatzea.**

Eredu honek proposatzen duen justizia errestauratiboak, gatazka biktimaren eta biktimagilearen artean indibidualizatzetik harago, gizarteari delituen kausez gogoeta eragiten dioten esku-hartze errestauratiboak diseinatu beharra azpimarratzen du, bai eta delitu-ekintzek eragindako kalte kolektiboak konpontzeko beharra ere. Horregatik, espetxean ikusmolde komunitarioa duten prozesu errestauratiboak egin beharko dira, hala nola bilera errestauratiboak, zirkulu errestauratiboak, erreparazio komunitarioko ekintzak, etab.

**4. Gizartearen baliabide normalizatuen bidezko esku-hartzea indartzea Espetxe Erregelamenduaren 117. artikulua dela medio.**

Arlo anitzeko eta departamentu arteko esku-hartzea sustatu behar da Osasunarekin eta Gizarte Zerbitzuekin batera, espetxeko bi arazo nagusiei ekiteko: droga-mendekotasunari eta osasun mentalari. Hori jada 1. ildo estrategikoan jorratu da. Ahal dela, esku-hartze horietan kanpoko baliabideak erabili behar dira, herritar guztiei eskaintzen zaizkienak.

Espetxe Erregelamenduaren 117. artikuluak hau xedatzen du:

> *"Tratamenduaren bigarren graduan sailkatutako presoak, arrisku sozial txikiko profila badute eta kondena urratzeko arriskurik ez, aldian behin kanpoko erakunde batera joan ahal izanen dira arreta espezializatuko programaren bat egitera, betiere programa horren beharra badute tratamendua jasotzeko eta gizarteratzeko."*

Adikzioen eta osasun mentalaren tratamenduari ederki aplikatzen ahal zaion tresna da, eta izaera orokorrarekin sustatu behar litzateke.

Oro har, akonpainamendu sozialeko programa gehiago behar dira eta gizarte hezitzaileek espetxe barnean lan egin behar dute espetxearen eta kanpoko baliabideen arteko bitartekaritza hori sustatzeko.

# 6. ANTOLAKETA ADMINISTRATIBOA

Zigor betearazpenaren arloko eskumen osoak hartzeak Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua berrantzolatzea eskatuko luke; hala, eginkizun gehiago eta langile gehiago izanen lituzke. Proposatzen den antolaketa administratiboa gutxienekoa da, hartuko liratekeen eginkizunak bete ahal izateko, kontuan izanik hainbat departamentuk eta administraziok parte hartzen dutela zigor betearazpeneko jarduera administratiboan, baina Justiziatik koordinatu behar dela jarduera hori. Nafarroako Gobernuaren egungo eskumen banaketatik abiatuta, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko Justizia Zuzendaritzak gidatuko luke zigor betearazpena. Justizia Zuzendaritzaren barnean dagoeneko onetsi da Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzua sortzea. Behin espetxe arloko eskumen osoa bereganatuta, zerbitzu horrek zerbitzu zentralak eta periferikoak izanen lituzke. Zerbitzu zentralak plangintzaz eta erabakiez arduratuko lirateke (politikak bultzatzea, jarraibide eta protokoloak ezartzea, sailkatzeko ebazpenak ematea), eta zerbitzu periferikoek, berriz, SGPMAko, Gizarteratze Zentroko eta Espetxeko langileria bereganatu eta handituko lukete.

Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuaren eginkizuna da bidea erraztea zigorren eta segurtasun neurrien betearazpena bat etor dadin Konstituzioaren arabera haiek justifikatzen dituzten gizarteratze-helburuekin. Horretarako garrantzi berezia dute departamentuak elkarrekin koordinatzeari eta eskubideak baliatzeko berdintasuna bermatzeari dagozkien eginkizunek. Kontuan izan behar da osasun, hezkuntza eta gizarte politikekin koordinatzeko

beharra dagoela, bai eta gazteentzako justiziari eta herritarren segurtasunari buruzko politikekin ere, besteak beste. Halaber, esparru honetan laneratze kontuak hobetze aldera, enpresa entitate publiko bat sortzeko aukera azter dadila proposatzen da, presoak eta preso ohiak laneratzeko ekimenak bultzatuko lituzkeena (Trabajo Penitenciario y Formación para el Empleo estatu-entitateak edo Kataluniako Centre d'Iniciatives per a la Reinserció delakoak bezala).

Koordinazioa antolatu behar da zigor betearazpenaren arloko eskumena duten gainerako administrazioekin batera (Kataluniako Generalitateko Justizia Departamentuarekin eta Espetxe Erakundeen Idazkaritza Nagusiarekin), pertsonak errazago lekualdatu ahal izateko beren zigorra betetzeko leku egokienera, eta, halaber, elkarri lagundu eta elkarrengandik ikasteko tresnak garatzeko.

Zigor Betearazpeneko Zerbitzuak dokumentu honetan zehar azaldu diren eginkizunak beteko ditu; honako eskumen-esparru hauetan banatzen ahal ditugu:

**1) Eskubideen bermea:**

a. Eskubide-berdintasuna bermatzea. Gainbegiratze penalaren pean dauden pertsonei zerbitzu eta prestazio orokorrak eskuratzeko berdintasuna bermatzea.
b. Atxilotuak, presoak eta espetxetik ateratzen direnak birgaitu eta gizarteratzeko neurriak koordinatu eta bultzatzea. Gizarteratze gaien ardura hartu behar duten departamentu eta administrazio guztiek (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, udalak...) trabarik gabe esku har dezaten lortzea. Zigor betearazpena gobernantza sistema konplexua da, zeinean kontuan hartu behar baitira botere judiziala eta abokatutza. Hori horrela, proposatzen den antolaketa administratiboan funtsezkoa da Espetxe Zaintzako

Epaitegiarekin eta Fiskaltzarekin koordinatzea, bai eta Abokatuen Elkargoko Espetxeko Orientazio eta Laguntza Juridikoaren Zerbitzuarekin ere. Gazteentzako justiziari eta herritarren segurtasunari buruzko politikekiko koordinazioa ere areagotu egin behar da.

**2) Askatasunaz gabetzen ez duten zigorrak:**

a. Epai aurretiko txosten psikosozialak egitea.
b. Askatasunaz gabetzen ez duten zigor eta neurriak kudeatzea. SGPMAren egungo langileak gehituko lirateke; Gizarteratze Zentroko eraikinean jarraituko lukete lanean, espetxeko datu-baseekin konektatuta. Haren langileriak lanbide profil gehiago bilduko lituzke (kriminologia, gizarte hezkuntza). Segurtasun neurriak ere kudeatu beharko lirateke.

**3) Erregimen irekia:**

a. Hirugarren gradua, 100.2 artikulua eta baldintzapeko askatasuna kudeatzea. Gizarteratze Zentroko langileak erantsiko lirateke, eta zentro horrek bere lanpostu zerrenda propioa beharko luke beste batzuen antzera. Hala, bere Tratamendu Batzordea edukiko luke, akonpainamendurako eta programetarako langileekin.
b. Bost urtetik beherako zigorrak sailkatzea. Gizarteratze Zentroko Tratamendu Batzordeak bost urtetik beherako zigorrak sailkatzeko proposamenak eginen lituzke, eta zuzendaritza zentroak ebatziko lituzke; Justizia Zuzendaritzari zuzenean atxikitako arlo anitzeko lantalde batek osatuko luke zuzendaritza zentroa.

c. Ingurune irekian gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak koordinatzea, elkarlanean sare publiko eta komunitarioekin (Gizarteratze Sarea).

4) **Barneratze erregimena**:

a. Bigarren graduko zigorrak kudeatzea. Atal honek Espetxeko langileak bereganatuko lituzke, eta langile gehiago gehituko lirateke harik eta legerian aurreikusten den banakako tratamendua egiteko adinako ratioak lortu arte.
b. Bost urtetik gorako zigorrak sailkatzea. Espetxeko Tratamendu Batzordeak eginen lituzke bost urtetik gorako zigorrak sailkatzeko proposamenak, eta Justizia Zuzendaritzari atxikitako arlo anitzeko sailkapen taldeak ebatziko lituzke.
c. Barneratze erregimenean gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak koordinatzea, elkarlanean sare publiko eta komunitarioekin.

5) **Justizia Errestauratiboa**:

a. Justizia errestauratibo komunitarioa sustatzea. Herritarrek beren gatazken ebazpenean parte har dezaten sustatuko litzateke.
b. Justizia Administrazioaren esparruan, justizia errestauratiboa eta gatazkak auzitara joan gabe konpontzeko bideak bultzatzea eta garatzea. Bai judizio barneko eta espetxe barneko prozesu errestauratiboak bai zigor ondokoak garatzea bultzatuko litzateke.

**Justizia Errestauratiboko Zerbitzua**

Justizia Errestauratiboko Zerbitzuak bitartekaritza penalari buruzko egungo ikusmoldea gaindituko luke kualitatiboki, eta ahaleginduko litzateke Nafarroan prozesu errestauratibo osoak eskaintzen, Europako Kontseiluaren (2018)8 Gomendioa oinarri. Gomendio horrek dio justizia errestauratiboa justizia penaleko prozesuaren fase guztietan erabil daitekeela, are gehiago, prozesu errestauratiboak sor daitezkeela sistema penaletik kanpo, honako eredu honek proposatzen duen bezala. Gomendio horrek justizia errestauratiboari buruz jasotzen duen kontzeptu orekatuaren arabera, epai eta espetxe sistematik, biktimentzako arreta zerbitzuetatik nahiz zuzenean herritarrengandik jaso litezke auziak.

Horregatik, Zerbitzuaren eginkizuna litzateke justizia errestauratiboari bultzada ematea eta gizarte zibilari bitartekoak ematea horrelako prozesuak egin ahal ditzan. Beraz, hauxe litzateke xedea:

1. Prozesu errestauratibo komunitarioak eskainiko lituzkeen sare bat sortu eta koordinatzea. Nafarroan bizi den edonork eduki behar lituzke eskura justizia sistemaren ordezko bitartekaritza prozesuak eta zirkulu komunitarioak. Aztertu behar litzateke zer zerbitzu dauden udalen eta elkarteen eremuetan, eta, azterketa horren arabera, gatazken prebentziorako eta kudeaketarako sare bat sortu, erakunde publikoen ardurapekoa eta herritarrek kudeatua.
2. Judizio barneko prozesu errestauratiboak (bitartekaritzak, konferentziak eta zirkuluak) koordinatu eta sustatzea:
    - Delitu arinetan, egokitasun printzipioa aplikatuta, artxibatzea ahalbidetzen duten akordioak sustatuz, alderdientzat askiesgarriak.

- Delitu astunetan eta ez hain astunetan, espetxearen ordezko aukerak ahalbidetzen dituzten akordioak sustatuz, alderdientzat askiesgarriak.

3. Espetxeko prozesu errestauratiboak koordinatu eta bultzatzea, biktimentzako erreparazioa, zigortuen gizarteratzea eta komunitatearen parte-hartzea sustatzen dituztenak.
4. Espetxe barnean espetxe-bitartekaritzako eta gatazken prebentzioko prozesuak koordinatu eta bultzatzea.
5. Elkarrizketa errestauratiboetako lantegiak koordinatu eta bultzatzea, askatasunaz gabetzen ez duten zigorrak betetzeko.
6. Espetxetik irten ondoko prozesu errestauratiboak koordinatu eta bultzatzea, gizarteratzen laguntzeko (babes eta erantzukizun zirkuluak).

Zeregin multzo konplexu hori Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuko atal batean zentralizatuko litzateke, alderdi guztiekiko koordinazioa errazte aldera.
Justizia errestauratiboko zerbitzu publiko oso bat izatea mugarri bat litzateke Estatuan eta nazioartean, zeren orain arte inoiz ez baita sortu sistema errestauratibo oso batek barnean har litzakeen eginkizun guztiak bere gain hartzen dituen zerbitzurik, filosofia hori zeharka txertatzen duenik zigorren betearazpenean.

Azkenik, Zuzendaritzaren mendean enpresa entitate publiko hau sortzeko aukera aztertzea proposatzen da: Presoak eta Preso Ohiak Gizarteratzeko Gizarte Ekimeneko Kooperatiba. Enpresa entitate publiko horrek presoen eta preso ohien laneratzea sustatuko luke. Eginkizun nagusia izanen luke irabazi-asmorik gabeko eta gizarte intereseko enpresa kooperatiboak sortu eta kudeatzea, espetxe arloko legeriak eta

Nafarroako legeriak jasotzen duten moduan (hurrenez hurren, Espetxeen Lege Organiko Orokorraren 27.c eta 32. artikuluak eta Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legea). Egungo Espetxeak eta Gizarteratze Zentroak badituzte erabiltzen ez diren instalazio asko, eta haietan askotariko ekimen ekonomikoak jar litezke martxan.

Giza baliabideen arloko politikari dagokionez, hiru ildo nagusi jorratu behar lirateke:

- ***Plantillak handitzea, ratio egokiak lortu arte.***
    - Hurbilketa gisa, askatasunaz gabetzen ez duten zigorren kudeaketari dagokionez, nazioarteko probation agentziek ratio hauek gomendatzen dituzte: 50 kasu kudeatzaile bakoitzeko, esku hartzeko premia berezia dagoenean, eta 200, kasu arruntetan.
    - Espetxean, arlo anitzeko lantalde tekniko osoak behar lirateke, bakoitzak 50 bat pertsonari arreta emateko.
    - Zaintzaileek ratio egokiak izan behar lituzkete tratamendu lanetan ere aritzeko, eta segurtasun eredu dinamikoa garatu ahal izan dadin, gatazken prebentzioan oinarritua.

- ***Hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarekin lankidetzan.*** Aurrean esan denez, funtsezkoa da genero-berdintasunari, osasun mentalari eta gatazken kudeaketari buruzko prestakuntza.

- ***Lan baldintzak hobetzea***, lanbidean aurrera egin ahal izateko, lanean gustura aritzeko eta gizartearen oniritzia izateko.

# 7. ONDORIO NAGUSIAK

Dokumentu honetan bildutako ekarpenen egileak espetxe arloan adituak dira, esperientzia luzea dute eta ongi ezagutzen dituzte espetxe munduaren nondik-norakoak. Egungo egoeraren eta nazioarteko, Estatuko eta Foru Komunitateko araudiaren azterketatik abiatuta, zigor betearazpenaren Nafarroako eredu baten ildo estrategikoak ezarri dira. Zigorren eduki konstituzionala gizarteratzea delako ideia dago zigor betearazpenaren eredu horren oinarrian. Zigorrak Konstituzioan xedatutakoaren arabera betearaztea, beraz, gizarteratze politikak egitea da, eta gizarteratze politikak egitea politika sozialak egitea da.

Badira hamarkada batzuk osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen alorretako politikak eskualdatu zitzaizkiela beren estatutuetan hala xedatua zuten autonomia-erkidegoei. Bada, zigor betearazpenaren arloko politikak ere eskualdatu behar zaizkio Nafarroako Foru Komunitateari, hala xedatzen baitu 58.1 artikuluan abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoak.

Zigor betearazpenaren arloko eskumenak foru politiken multzoan txertatze horrek zigortuen gizarte inklusioa hobetu ahalko du, berrerortze tasa apaldu, eta gizarte kohesionatuagoa eta seguruagoa eraikitzen lagundu. Horregatik, eskumenen transferentzia osoaren bidean aurrera egin behar da.

Azpimarratu behar da, ordea, azterlan honetan behin eta berriz aipatu den bezala, Nafarroako Foru Komunitateak dagoeneko badituela eskumenak zigor betearazpenaren eredu propio horren zati handi bat

garatzeko. Nafarroan bizi diren pertsona guztien egiazko berdintasuna sustatzeko betebeharra du, eta eskumen historikoak ditu espetxe gaietan. Bi oinarri horien gainean, badago jarduketak egitea presoen bizi baldintzak hobetzeko eta herritarren segurtasuna handitzeko.

Horri dagokionez, amaierako laburpen gisa, egungo eskumenak eta eskumen historikoak baliatuz berehala garatzen ahal diren neurriak zerrendatuko dira. Ez da zerrenda itxia, gizarteratzea erdigunean jarriko duen eredu horretarantz aurrera egiteko beharrezkoak diren neurrietako batzuk baizik.

## *Gizarteratzera bideratutako zigor betearazpenaren eredu baterako neurriak*

1. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuan Nafarroako Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzua sortzea, atxilotuak, presoak eta espetxetik ateratakoak birgaitu eta gizarteratzea xede duten neurri guztiak koordinatu eta sustatuko dituen administrazio unitate gisa. (Neurri hori jada inplementatuta eta garatzeko zain dago).
2. Berrikustea 1989ko hitzarmena, eta inguruabar berriei egokitutako beste hitzarmen bat egitea, Foru Gobernuaren jarduketak arautuko dituena zigor betearazpenaren alorrean, transferentzia osoa jasotzen ez den bitartean.
3. Organo judizialek askatasunaz gabetzen ez duten eta pertsonen inguruabarretarako egokiak diren neurri gehiago ezar ditzaten sustatzea, aurretiko txosten psikosozialak direla medio.
4. Gainbegiratze penalaren pean dauden pertsonei beren eskubideak, zerbitzuak eta prestazioak baliatzeko irispide-berdintasuna bermatzea osasungintzan, hezkuntzan, gizarte

zerbitzuetan eta bizitza publikoaren arlo guztietan. Horren haritik, 1. ildo estrategikoko 1. helburu estrategikoan jasotako ekintza guztiak berehala gauzatzen ahal dira. Besteak beste, hauek nabarmentzen ditugu:

a. Espetxean gizarte laguntza jaso ahal izateko berdintasuna bermatzea.
b. Oinarrizko osasun laguntzako zentro bat eta osasun mentaleko unitate bat ezartzea espetxean. Koordinazioa hobetzea kanpoko sareko osasun zerbitzu espezializatuak erabiltzeko presoen intimitaterako eskubidea errespetatuz. Presoak behar duten espezialitatera deribatzea, behar den garaian eta dagokien lehentasunarekin, gainerako herritarrak bezala.
c. Komunitatearen baliabide orokorrekin (osasun mentala, adikzioak, hezkuntza eta abar) koordinatzeko protokolo argiak ezartzea. Baliabide horiek presoak ere hartu behar dituzte erabiltzailetzat. Presoak ere sartu behar dira komunitateari eskaintzen zaizkien programa orokorretako zerbitzu zorroetan. Erakundearteko koordinazioa bermatu behar da bai Foru Gobernuko departamentuetan, baita udaletan eta gainerako administrazioetan ere.
d. Prestakuntza eskaintza handitzea, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta goi mailakoak egiteko aukera emanez.
e. Preso guztien erroldatzea bermatzea. Asmoa da gizarte eskubideetarako irispidea ez dadila galdu edo zaildu espetxean sartzeagatik.
f. Gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak sustatzea kanpoan bezala.
g. Nafarroako Zigor Betearazpeneko Zerbitzuan berdintasun printzipioa zeharka txertatzeko plana egitea.

h. Ikuspegi feministatik gizarte eta hezkuntza lantegiak planifikatu eta egitea, generoa, indarkeria, ahizpatasuna, generoaren eta jokabide kriminalaren arteko lotura eta horrelako gaiak jorratzeko.

5. Kondena Foru Komunitatetik kanpo betetzen ari diren nafar guztien mapa egitea, eta hala nahi dutenak Nafarroara lekualdatu ditzatela eskatzea.
6. Bultzada ematea justizia errestauratibo komunitarioari eta prozesu judizialaren fase guztietako justizia errestauratiboari.
7. Komunitate terapeutiko, gizarteratze-etxebizitza eta horrelako baliabideetako tokien kopuruak handitzea, baliabide horiei finantzaketa egonkorra ematea, eta egoitza-baliabide gehiago sortu behar ote den aztertzea.
8. Gizarteratze eta laneratze programa bat garatzea (prestakuntza, lan bilaketa, enplegua...), koordinazio eta deribazio prozedura batekin, pertsonak bideratu ahal izateko gizarte zerbitzuetako gizarteratze eta laneratze taldeengana eta horrelako programak erabiltzen dituzten gizarte entitateengana.
9. Gizarteratzeko baliabideen mapa egitea, gizarteratze sare oso eta egonkor baterako oinarriak ezarriz.
10. Gizarteratze politiken eta migrazio politiken arteko koordinaziorako neurriak aplikatzea (gaur egun biak departamentu berean daude).
11. Iruñeko Espetxeko langileentzako etengabeko prestakuntza indartzea, pertsonen eta taldeen arteko gatazkei nola heldu ikas dezaten.
12. Gatazkak ebazteko espetxe bitartekaritza ezartzea, espetxeari loturik ez dauden entitateek kudeatua. Espetxe barneko bizikidetzan gerta daitezkeen barne gatazkei ikuspegi errestauratibotik heldu behar zaie.

13. Administrazioaren, sindikatuen eta gizarte zibilaren ordezkariekin batera gogoetan eta lanean aritzeko taldeak sortzea, espetxeko gatazkak gutxitze aldera.
14. Gizartearentzat lan egiteko Nafarroako tokien katalogoa handitzea, toki gehiago sortuz Nafarroako Gobernuaren mendeko baliabideetan eta lan horiek beharrezkotzat jotzen diren udal eta kontzejuetan.
15. Presoen eta preso ohien gizarte beharrizanak aztertzea Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiaren bitartez, eta ikerketa aplikatuak egitea gizarteratzea sustatzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean.
16. Zigor Betearazpeneko Zerbitzua parte harraraztea bere ardurapeko gaietan diharduten nazioarteko sareetan. Zehazki, honako hauetan lan egin behar luke:
    a. Europako Probation Konfederazioa (CEP).
    b. Europris (European Organisation of Prison and Correctional Services).
    c. Justizia Errestauratiboaren Europako Foroa.
    d. Espetxe Prestakuntzako Europako Akademia.
17. Gainbegiratze penalaren peko pertsonen beharrak Nafarroako Gobernuaren plan eta estrategia garrantzitsu guztietan jasotzea. Zehazki, eta guzti-guztiak aipatzeko asmorik gabe, honako hauekin koordinatzeko bideak ezarri behar lirateke:
    a. Nafarroako Garapen Jasangarriko Helburuak.
    b. Nafarroa Suspertu Plana.
    c. Nafarroako Bizikidetza Plan Estrategikoa.
    d. Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa.
    e. Nafarroako Osasun Plana.
    f. Nafarroako Osasun Mentalaren Plana.
    g. Genero-zeharkakotasuna Nafarroako Foru Administrazioan.

h. LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko Ekintza Plana.

*Dokumentu honen xedea da baliagarria izatea gizarteratzea ardatz duen zigor betearazpeneko eredurantz aurrera egiteko.*

*Azpimarratu behar da dokumentu hau gizarteari zabalik dagoela; hobetu daiteke, eta hala egin behar da, berari buruz eztabaidatuz Justizia Administrazioko eta Espetxe Administrazioko profesionalekin, sindikatuekin, gizarte zibil antolatuarekin eta herritar guztiekin.*

*Gizarte zuzena eta baketsua eraikitzea guztion ardura da.*

# ZIGOR BETEARAZPENAREN EREDUAREN ILDO ESTRATEGIKOAK NAFARROAN



Dokumentu honen xedea da baliagarria izatea gizarteratzea ardatz duen zigor betearazpeneko eredurantz aurrera egiteko.

Azpimarratu behar da dokumentu hau gizarteari zabalik dagoela; hobetu daiteke, eta hala egin behar da, berari buruz eztabaidatuz Justizia Administrazioko eta Espetxe Administrazioko profesionalekin, sindikatuekin, gizarte zibil antolatuarekin eta herritar guztiekin.

Gizarte zuzena eta baketsua eraikitzea guztion ardura da.

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030